

MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA 2017:

“LABURPENA ETA GOGOETAK”



1. LABURPENA

I. DEMOGRAFIA

EAEn, Biztanleen Udal Erroldak emandako 2017ko urtarrileko azken datuen arabera, EAEko biztanleriak pixka bat gora egin du azken urtean, %0,2, eta 2.193,205 biztanle ditu (+%0,2 2016aren aldean), hots, aurreko urtean baino 3.671 gehiago. Lurralde Historikoei dagozkien datuen arabera, biztanleria hazi egin da Gipuzkoan (1.351 biztanle gehiago, +%0,9) eta Araban (+%0,7, 2.247 biztanle gehiago); Bizkaian, berriz, berdintsu eusten zaio (73 biztanle gehiago).

Bestalde, EUROSTATEN zenbatespenen arabera, Europar Batasunean 511,8 milioi biztanle daude, 2017ko urtarrileko datuen arabera, hain zuzen ere 2016ko urtarrilean baino 1,5 milioi gehiago. Milako 3ko hazkunde horri esker -milako 3,5ekoa izan zen aurreko urtean-, beste urte batez eutsi ahal izan zaio 1960tik gertatu izan den etengabeko hazkunderako joerari, egungo Batasunaren populazioa 400 milioi biztanlekoa zenetik. Bilakaera positibo hori berriro ere immigrazioaren portaeraren ondorioa izan da; izan ere, berezko hazkundera (jaiotza eta heriotzen arteko aldea) zero da, aurreko urtean Batasunean positiboa izan ondoren.

Euskal Autonomia Erkidegoan 2016ko behin-behineko datuek berezko hazkunde negatiboa erakusten dute (jaiotza eta heriotzen arteko aldea), saldo positiboak izan ziren 9 urteren ondoren: urte horretan 18.240 jaiotza gertatu dira, aurreko urtean baino % 3,2 gutxiago, eta 21.223 heriotza, 2015ean baino % 1,3 gutxiago. Horren ondorioz, berezko hazkundera -2.983 izan da, hots, milako -1,4koa. 2016ko saldoa negatiboa da, beraz, jaiotzek gora begin arren heriotzen igoera handiagoa baita.

“Migrazio Mugimenduei buruzko 2016ko Estatistikak” zenbatu zuenez, urte horretan gure erkidegoak 8.871 biztanle irabazi zituen (2015ean izandakoa baino nabarmen handiagoa, orduan 3.362 biztanle gehiago zituelako). Lurraldean arabera, Bizkaiak 4.320 lagun gehiago ditu, Arabak 1.474 eta Gipuzkoak 3.077.

Gainera, saldo positiboa da (hots, gure Erkidegoan etorkin gehiago erregistratu dira aldi berean emigratzen dutenak baino) oinarrizko maila guztietan, lanbide heziketan, bigarren hezkuntza eta maila ertainean/goi-mailan, eta negatiboak dira soilik goi mailako titulazioetan.

2016an, 5 urtetik gorako pertsonen migrazio saldoa +7.928 lagun da, eta horietatik 3.747k oinarrizko ikasketak zituzten, 3.539k bigarren mailakoak eta gainerakoek lanbide edo unibertsitateko ikasketak. Azken kopuruei dagokienez, goi-mailako titulazioek dute bakarrik saldo negatiboa, -495 lagunekoa (+181 maila ertainean edota goi-mailakoan). Azken urtean, goi-mailako titulazioa dutenen 4.288 emigratio izan ziren (5 urtetik gorako emigratioen %14,4) eta 3.793 immigratio (guztizkoaren %10,1). Hortaz, -495 laguneko saldoa dago; migratio-saldoa, berriz, positiboa da. Goi-mailako titulazioetan saldo positiboak izan dira betidanik, baina beste ikasketak maila baino txikiagoak dira. Hala ere, lau urtez jarraian datu negatiboak izan dituzte (irteera gehiago sarrerak baino), halako moldez non 2013-2016 aldian gure Erkidegoak goi mailako ikasketak dituzten 1.677 pertsona galdu baititu.

Bestalde, Udal-erroldaren datuei jarraiki, 2017. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duen atzerriko biztanleria 195.969 zen, eta hirugarren urtez jarraian handitu da, 7.373 pertsona gehiago (+%3,9), 2013-2014 bi urtekoan atzerakada txikia izan ostean eta 90eko hamarkadaren amaieran hasitako mugimendu handiaren ondoren. 2017ko urtarrilean erroldatuta zeuden atzeritar jatorriko 195.969 pertsonak biztanleriaren %8,9 dira, 2016. urtean baino hiru hamarren gehiago. Estatuan, berriz, %13,2ko ratioa zegoen 2017an, eta egonkor eutsi dio azken hiru urtekoan.

Herraldeka, 2017an, lehenengo hamar garrantzitsuenen artean sei Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Bolivia, Ekuador, Nikaragua, Brasil eta Paraguai), hiru komunitarioak (Errumania, Portugal eta Frantzia), bat afrikarra (Maroko). Hamar jatorri horien batura atzeritar jatorriko biztanleriaren %54,5 bada ere, 2008ra atzera eginez gero, pilaketa hori handiagoa zela ikusiko dugu, eta horrek jatorriko herrialde desberdinen presentzia handiagoa eta dibertsifikazioa erakusten ditu, gaur egun, EAEn bizi diren atzerriko jatorriko taldeen osieran. Gaur egun, eta 2014. urteaz gero,

marokoarra da atzerriko nazionalitate nagusia EAEn, 21.345 erroldatu 2017an, hots, atzeritar jatorriko pertsona guztien %10,9 EAEn. Bigarren nazionalitatea Kolonbiakoa da, guztizkoaren %9,3.

Herritarrek immigrazioari buruz duten iritziari dagokionez, IKUSPEGIK jakinarazi duenez, immigrazioa ez da arazo euskaldunentzat. %2,4k besterik ez du esaten bat-batean EAeko lehen arazoa denik, eta aipamenak guztira %12,6 dira (%12,3 2016an). Enpleguari dagokionez, immigrazioak lan-merkatuan betetzen duen eginkizunari buruzko ikuspegi funtzionala eta utilitarista nabarmen jaitsi da krisiaren ondorioz: 2004an %80k uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko. 2014an, berriz, %30,5ek uste zuen hala. Gorabehera txikiak izanda, ordea, 2015etik hasita badirudi gora egin duela berriz ere ikuspegi utilitarista horrek, 2017an %41,4an kokatu baita. Antzeko zerbait gertatu da baieztapen honekin: ekonomia hobeto dabil, migratzaileek betetzen dituztelako biztanle autoktonoen nahi ez dituzten lanpostuak. 2014an, %32,8 ados zegoen baieztapen horrekin (kontsideraturiko serie osoko ratorik txikiena), eta 2017ean %45,9raino igo da ehuneko hori, gorabeherak izanda.

II. EKONOMIA

2017an, jarduera ekonomikoak, NMFren arabera, aurrerapen nabarmena izan zuen **ekonomia aurreratuetan** (%2,3, 2016an baino 6 hamarren gehiago) nahiz **goranzko ekonomietan** (%4,8, hots, 4 hamarren gehiago). Jardueraren hedapen horrekin batera, indartu egin da munduko merkataritza, inbertsioaren nolabaiteko gorakadarekin lotua. Izan ere, kontsumo pribatuak maila globalean hazkunderako funtsezko gakoak izaten jarraitzen badu ere, inbertsioak gorakada izan du, bereziki ekonomia aurreratuetan. Hala, Atzeraldi Handiaren ondorengo aldirik gehienez gertatu ez bezala, munduko merkatariaaren aurrerapenaren erritmoa produktuaren hazkundera baino pixka bat handiagoa izan da (2017ko munduko BPGaren hazkundera baino 1,1 puntu gehiago).

Ingurumari horretan, munduko produktuaren hiru laurden inguru sortzen dituzten herrialdeetatik bi heren 2016an baino bizkorrago hazi ziren 2017an (hazkunderaren urte arteko igoera izan duten herrialdeen proportziorik handiena 2010. urtetik).

Inflazioaren maila orokorrak berriz ere egin zuen gora, irailtik petrolioaren prezioa garestitzearen ondorioz. Aitzitik, ezkutuko inflazioa (erregaien eta elikagaien prezioak alde batera uzten dituen) neurri apalean hazi da. Munduko jardueraren egoera hobe hori ez dator bat presio inflazionisten gorakadaren zantzu urriekin.

Finantzen eta moneten egoerari dagokionez, Europako Banku Zentralak eta Japoniako Bankuak ez zituzten aldatu esku hartzeko tasak aurreko urtearen aldean. Lehenbizikoak %0,00aren inguruan eutsi zion urte osoan; bigarrenak, aldiz, -%0,10aren inguruan. AEBetako Erreserba Federalak, bestalde, hirutan igo zituen tasak, martxoan %1, ekainean %1,25 eta abenduan %1,5.

Dibisen merkatuari dagokionez, AEBko dolarraren egiazko aldaketa-tasak 1,184 \$/€-an bukatu zuen urtea, 2016. urteko abenduko 1,054 \$/€-ren aldean. Hots, %12,3ko balio-igoera izan zuen euroak yenarekiko eta libra esterlinarekiko.

Munduko burtsaren merkatuetan, IBEX 35ek urte arteko %21,4ko hazkundera izan zuen (2017ko abenduan 2016ko abenduarekiko), aurreko urteko %7,4aren aurrean; Nikkei %19,1 hazi zen noiz-eta 2016an %0,4 igo zenean; Dow Jonesek %25,1 egin zuen gora (+%13,4 2016. urtean); Euro Stoxx zabala, berriz, %10,1 hazi zen (%1,5 aurreko urtean).

Eurogunean, 2009-2010ean izandako susperraldi laburrean ez bezala (produktuaren hazkundera nahikoa desberdina izan zen lurraldeen arabera), egungo hedapena orokorragoa da, eta balio erantsiaren hazkunde-tasen sakabanaketa txikiagoan islatu da herrialdeetan eta sektoreetan, EBZren datuen arabera.

Hala, 2017an, BPGaren hazkundera batez besteko tasa, urte arteko kopuruetan eta bolumenean, %2,4aren inguruan kokatu zen EBZren eta EUROSTATen arabera (2007tik izandako ratorik handiena).

Eskariaren aldetik, kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren hazkundera da aurrerapenaren oinarria, baita esportazioena ere. Izan ere, mundu mailan izandako susperraldiaren onura jaso dute, euroaren truke-tasaren ondoriozko kontrako zenbait eragin gorabehera.

Kontsumo pribatuaren urte arteko batez besteko hazkunde-tasa %1,8 da, baina urteko azken lauhilekoan nolabait moteldu dela ikusten da. Berez, emaitza gaurkotuagoak lortzeko adierazle kuantitatiboek emaitza desberdinak ematen dituzte, eta deigarria da txikizkako salmenten beherakada.

Inbertsioari dagokionez, enpresen inbertsioak goranzko bideari eutsi dio, finantzaziorako oso baldintza onei eta enpresen errentagarritasunaren hobekuntzari esker; eta eraikuntzako inbertsioak, 2015ean argi eta garbi hondoa jo ondoren, goranzko bidean jarraitu du.

Eskaintzaren aldetik, arestian esana dugunez, produktuaren hazkundera orokorra izan zen sektore ekonomiko guztietan. Industriako BEGaren hazkundera, urte arteko tasan, igo egin zen 2017an, %3,3aren inguruan kokatuta (hiruhilekoaren goranzko profila ageri da, lehen hiruhilekoan +%1,8, eta azkenean +%4,6koa da laugarrenean). Merkatuko zerbitzuen sektorean, berriz, %2,3aren ingurukoa izan zen, 2016an izandakoa baino handiagoa ere (hiruhilekoaren goranzko profila ageri da horretan ere, +%2,1arekin hasita lehen hiruhilekoan eta azkenean +%2,4 laugarrenean). Aldi berean, erakuntzaren balio erantsiak krisiaren aurreko mailaren azpitik jarraitu bazuen ere, susperraldian sartu zen, lehen hiruhilekoan %2,4an hasita eta azkenean %3,6 laugarren hiruhilekoan (urteko batez bestekoa: %3).

Lan-merkatuek suspertzen jarraitu zuten 2017an. Langabezia-tasa murriztuz joan zen urte horretan ere, eta %9,1aren inguruan kokatu zen, 2009ko hasieratik izandako txikiena.

Herri administrazioen zorra berriz ere jaitsi zen 2017an ia estatu guztietan, Frantzian izan ezik (gutxi gorabehera berdintsu eusten dio), baita Luxenburgoren eta Eslovakian ere (hazi egin da bertan). 19ko eurogunean, zor publikoa %86,7koa izan zen BPGarekiko. 2016an, berriz, %89koa izan zen.

Defizitari dagokionez, eurogunean, defizit publikoa BPGaren %1 izan zen. 2016an, berriz, %1,6koa. Bakarrik Espainian gainditu zen BPGaren %3ko muga (-%3,1). Hauexek ditugu -%1,5 eta -%3 artean: Irlanda, Estonia, Letonia, Finlandia, Austria, Eslovakia, Belgika, Polonia, Erresuma Batua, Hungaria, Italia; Frantzia, Errumania eta Portugal. Gainerakoetan superabita izan zen.

Espainiako ekonomia ardatz hartuta, EINen arabera, BPGak urte arteko %3,1eko hazkunde izan zuen 2017an, hots, 2016ko baino 2 hamarren gutxiago eta eurogunekoa baino puntu eta erdi gehiago (%2,4).

Estatuko eskariak hazkunderaren eragile nagusia izateari eusten dio, BPGaren hazkunderari %2,8 ekarrita, 2016an baino hiru hamarren gehiago, hauexek bultzatuta: kontsumo pribatuaren jokabide onak (+%2,4, 2015ean baino 5 hamarren gehiago) eta ekipo-ondasunen inbertsioaren joera hobeak (+%6,1, urtebete lehenago %4,9koa izan ondoren). Kanpo-eskariak hazkunderari egiten dion ekarpena 3 hamarrenekoa da, 2016an baino lau gutxiago, inportazioetan izandako susperraldia esportazioena baino handiagoa izan baita. Hala, barne-eskariak nahiz kanpo-eskariak ekarpen positiboak egin zizkieten 2017an BPGaren hazkunderari bigarren urtez jarraian.

Eskaintzaren aldetik, industriaren eta eraikuntzaren hazkundera nabarmentzen da. Hala, urte osoan, urte arteko kopuruetan eta bolumenean, industria %3,7 hazi zen (+%3,8 manufaktura-industrian, 2016an baino hiru hamarren gehiago) eta eraikuntzan %4,9 (2016an baino 3 puntu gehiago). Bestalde, zerbitzuen sektoreak %2,6 egin zuen gora, 2016an baino 4 hamarren gutxiago. Jarduera-adarretan hazkundeak izan ziren, finantza- eta aseguru-jardueretan izan ezik, %1,5eko jaitsiera izan baitzuen (2016koa baino jaitsiera handiagoa: -%0,8)

Ingurumari horretan, Espainiako ekonomiaren finantza-egoera hobetu zen munduaren gainerakoaren aldean. Berriz ere superabita izan zuen, 23.081 M€ lortuta, hots, BPGaren %2. Hala eta guztiz ere, Estatuko Administrazio Publikoek, guztira 36.233 milioi euroko defizita izan zuten 2017an; horren ondorioz, BPGaren ratioa %4,5etik %3,1era igaro zen 2016

eta 2017 urteen artean. Datuak berezita, Administrazio Zentralak, autonomia-erkidegoek (AAEE) eta Gizarte Segurantzak superabita zutela itxi zuten ekitaldia berriz ere, ekitaldi honetan %0,6m 2016ko ratio bera.

Diru-sarrerak direla eta zerga nagusietako zerga-bilketak, autonomia erkidegoen eta tokiko korporazioen partaidetza aintzat hartuta, hazkundea izan zuen (+%4,3). Bestalde, Estatuak onartutako obligazioak %0,9 txikitu ziren.

Ondoko lerrootan, **EAEko bilakaera ekonomia** jorratuko dugu.

EUSTATen Jarduera Ekonomikoen Direktorioaren (JEGID) 2017ko azken datuen arabera, guztira 158.806 enpresa ziren jardunean EAEn (lehen sektorekoak barne), eta orotara 874.241 pertsonari ematen diete lana. Beraz, batez besteko tamaina 5,5 lanpostukoa da enpresako.

2016 eta 2017 bitartean, enpresa kopurua % 0,2 jaitsi da, baina enplegua %2,4 hazi da. 1.896 establezimendu eskasek, kopuru osoaren % 49,2k hain zuzen, 50 enplegu edo gehiago dituzte, guztira 430.384 lanpostu (guztien % 49,2, %48,8 2016an eta %48,3 2015ean). Aitzitik, 120.166 enpresa, kopuru osoaren % 76 (%76,6 2016an) ez da iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 16,8 bakarrik hartzen dute (%17,4 2016an).

Euroguneko batez besteko tamaina 5,2 lanpostukoa da enpresako (2015eko datuak), eta 28ko EBn 5,4, EAEkoaren antzekoa. Batez besteko horien gainean daude Alemania (10 lanpostu), Luxenburgo (9,9), Erresuma Batua (8,8), Danimarka (8, 2014ko datua) eta Austria (7,3) eta Kroazia (7).

Enpresa-errotazioari buruzko azterketak agerian uzten duenez, 2017ko urtarrilaren 1ean, enpresa-kopuruaren (lehen sektorekoak aintzat hartuta) jaitsieraren ondorio nagusia ondokoa izan zen: 16.179 enpresa hasi ziren jardueran data horretarako eta, 16.529 enpresak, berriz, itxi egin zuten. Horrela, saldo gordina -350ekoa da. Bestalde, enpresak sortzeko tasa gordina, urte zehatz bateko alden kopurua zati aurreko urtean zegoen enpresa-kopurua bezala kalkulaturik, % 10,2koa da; itxitako enpresa-tasa, aldiz, % 10,4¹.

Ekonomi Kontuek erakusten dutenez, EAEko ekonomiaren BPGak %2,9ko hazkundea izan zuen 2017. urte osoan kopuru errealean (2016an baino bi harreman gehiago). Ekoizpenaren hazkundea handiagoa da EAEn eurogunean baino (%2,9, %2,4aren aldean), baina Estatukoa baino txikiagoa (%3,1).

Hiruhilekoen profilak goranzko joera erakusten du urtean zehar, eta lehen hiruhilekoan urte arteko %2,8ko hazkundearekin hasi zen. 2015ean eta 2016an gertatu bezala, BPGaren hazkundea gertatu da funtsean barne-ekonomiaren jokabideagatik. Izan ere, %3,0 hazi zen, eta BPGaren %2,9ko igoerarekin batera, kanpo-ekonomiak ekarpen negatibo txikia izan du BPGaren hazkundera.

Barne-ekonomiaren aldakuntza-tasa positiboaren oinarriak izan dira Amaierako Kontsumoko Gastuaren hazkundea nahiz Kapitalaren Eraketa Osoarena. Lehenengoaren tasa %2,8 hazi da, lau urtez jarraian aldakuntza positiboak metaturik, baina beheranzkoak izan dira azken hiru urtean. 2017an, erregistro positiboak bildu ziren, bai familien Amaierako Kontsumoko Gastuan (azken urteetako erregistroak positiboak dira, baina beheranzkoak ere ageri dira, eta 2017an %3an kokatu zen) nahiz herri administrazioen Amaierako Kontsumoko Gastuan (%2,4).

Bestalde, KEG %3,5 hazi zen, eta 2016an bildutakoa baino lau hamarren gehiago dira. Bi bilakaera desberdin ageri dira KEGan: ekipo-ondasunen hazkundea handiagoa da KEGaren gainerakoa baino, eraikuntzari lotuago baitago. Hala, ekipo-ondasunen KEGaren hazkundea %4,7 da; 2016an, berriz, %5,3 zen (eta %7,3 2015ean). Bestalde, eraikuntzako ondasunen KEG %2,7 da; 2016an, berriz, %1,8 izan zen. Alabaina, lehenbizikoa motelduz badoa ere, bigarrena haziz doa.

Kanpoko sektorearen bilakaeran, esportazioetan nahiz inportazioetan, aurreko urtekoak baino aldakuntza-tasa handiagoak ageri dira urte arteko batez bestekoetan. Esportazioek %3 egin zuten gora eta aurreko urtean, berriz, %1,7. Esportazioetan %3,1 hazi zen, aurreko urtean %1,5 izan ondoren. Urteko profilaren azterketak agerian uzten duenez,

¹ Heriotza-tasan, bajekin kalkulatu da zatidura.

goranzko joera dago bi kasuetan. Hala, esportazioetan urteko lehen hiruhilekoan %1,5eko hazkundera izan zen, eta laugarrenean, azkenean, %4,8koa izan zuten. Inportazioetan, berriz, lehenengo hiruhilekoan %1,9koa izatetik laugarrenean %4,8koa izatera igaro zen.

“*Kanpoko Merkataritzaren Estatistikak*” (Aduanetako Erregistroak oinarri hartuta) ondasunen kanpoarekiko merkataritzari buruz emandako behin-behineko datuek erakusten dutenez, gora egin zuen esportazioen ohiko balioak 2017an, %10,5 hain zuzen (orotara 23.856,7 milioi euro, hau da, 2016an baino 2.261 milioi gehiago): ez-energetikoetan %8,7ko hazkundera izan da (guztizkoaren %90,8) eta energetikoetan %32,2koa. Esportazioen urteko kopuru hori serie historikoko handiena da 1900. urteaz geroztik. Bestalde, guztizko inportazioek %20,5 egin zuten gora (orotara 18.652,6 milioi euro, 2016an baino 3.169 milioi gehiago), noiz-eta ez-energetikoen inportazioetan (guztizkoaren %73,1) %11,4 handitu zenean eta energetikoetan, berriz, %54,5.

Kanpoko saldoak 5.204 milioi euroko superabita zuen 2017an (2016an izandako baino 907,9 milioi gutxiago). BPGarekiko portzentajea %7,1 da, hain zuzen 2016koa baino %1,5 puntu gutxiago (%8,6). Ondasun eta produktu energetikoak eta ez-energetikoak bereizita, berriz ere ikusten da saldo energetikoa defizitariora dela (-2.813,6 milioi euro). Ez-energetikoenak, aldiz, berriz ere izan zuen superabita, 8.017,6 milioi, hots, BPGaren %10,9, 2016an izandako ratio bera hain zuzen ere.

Eskaintzaren aldetik, Lehen Sektorean izan ezik, gainerako jarduera-sektore handietan aldakuntza positiboak izan ziren, eta Zerbitzuen sektorea nabarmentzen da %3,1eko hazkunderarekin 2017. urtean. Tasa horretatik hurbil Industria kokatzen da, urte osoan %2,7ko hazkundera izan baitu. Aldi berean, Eraikuntzan %2,5eko hazkundera izan da.

Industriaren sektorean Manufaktura-industriak bere bilakaera orokorrari eutsi dio, hain zuzen %2,8ko tasarekin hazita. Hiru azpisektorek hartzen dute parte zerbitzuen sektoreko bilakaera positiboan. Dinamikoena merkataritza, ostalaritza eta garraioei dagokiena da, %3,7ko hazkunderarekin. Bigarrenik, Gainerako zerbitzuak deritzona da, %2,8ko hazkundera izan baitu. Azkenik, Herri administrazioa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte zerbitzuak deritzon adarrak lortu du bilakaera pixka bat apalagoa, %2,7 hazita.

2012 eta 2016 bitartean, BPGaren urteko batez besteko aldakuntza-tasa, kopuru errealetan, +1,7 izan zen. Aldakuntza negatiboa izan zuen jarduera-adar bakarria Finantza- eta aseguru-jarduerena izan zen (urteko -%0,9ko jaitsiera batez beste). Bestalde, hona hemen BPGaren hazkunde nagusiak: Telekomunikazioak (%3,9), Informatika (%2,8), Beste zerbitzu batzuk (%2,6), eta Jolas eta kultur jarduerak (%2,5, urteko batez besteko tasa).

Finantzen sektorea sakonduta, Espainiako Bankuaren datuen arabera, herri administrazioaren titulartasun peko gordailuen guztizko saldoa EAEn 3.226 milioi eurokoa zen 2017aren bukaeran, hots, %11,3ko gehikuntza. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak 76.435 M€ izan ziren, hau da, %4,4ko igoera 2016aren aldean. Gordailu horiek modalitateen arabera aztertzen baditugu (agerikoa, epea eta aktiboen aldi-baterako lagapena –AAL–), ikusiko dugu %71 ageriko gordailuak direla, %22,9 epe laburrerako gordailuak eta %2,1 AALei dagokie. Nabarmentzekoa da ageriko gordailuetan izandako %66ko gehikuntza, hain zuzen ere 2017an interes-tasen egoeragatik.

Hala, moneta-merkatuko interes-tasak eurogunean (gordailuak) negatiboak dira, eta gainera behera egin dute urteko batez bestekoan epe guztietan.

Bestalde, EAEn gordailu-erakundeek emandako guztizko kredituak behera egin zuen 2017an, bi urtez jarraian gora egin ostean. Hala, 71.564 milioi eurotik 70.862 M€-ra igaro da (-%1). Jaitsiera hori gertatu da bai Herri Administrazioei (-%5,5) nahiz sektore pribatuari emandako kredituaren beherakadagatik, baina azken hori (guztizkoaren %90,7 da) askoz neurri txikiagoan jaitsi da (-%0,5).

Euroguneako kreditu-erakundeek familiei eta IPSLH egoiliarrei EBB (UTB) maileguetan ematen dien interes-tasak gora egin zuen kontsumoan, %8,14tik %8,3ra 2016 eta 2017 bitartean, baina behera egin zuen etxebizitzan, %2,19tik %2,05era hain zuzen.

Burtsari dagokionez, Bilboko Burtsako 2000 Indizea 1.577,5 puntuetan kokatu zen 2017ko abenduan, hots, %6,1eko igoera 2016ko abenduko datuen aldean. Kontratazio bolumena (erosketak eta salmentak) 117.825,3 M€-koa zen, hots, %7,9ko igoera 2016aren aldean.

Euskal ekonomiaren enpleguaren bilakaera, lanaldi osoko lan baliokideetan neurtua, positiboa izan zen, batez beste %2,1 hazita 2017an. Zerbitzuen sektoreak izan du joerarik positiboena enpleguan, %2,2 hazi baita 2016aren aldean. Aipatzekoa da industriaren sektorearen bilakaera, %1,7 hazi baita, eta oso hurbiletik jarraitzen du eraikuntzaren sektoreak (%1,6).

Inflazioari dagokionez, prezioetan 2017ko amaieran izandako igoera aurreko urtekoa baino pixka bat txikiagoa izan zen. Hala, 2017ko abenduan +%1,1ean kokatu ziren; 2016ko abenduan, berriz, +%1,5ean.

EINen “*Lan-kostuei buruzko Hiruhilekoetako Inkesta (LKHI)*”ren datuek erakusten dutenez, enpresen lan-kostua² EAEn %1,2 hazi zen 2017ko IV. hiruhilekoan 2016ko epealdi beraren aldean (Estatuan %0,7ko hazkundea izan zen), eta 3.114,6 euroan kokatu zen langileko eta hileko, hots, Estatuan baino 445,8 euro gehiago.

Lanaren ezkutuko produktibitateari dagokionez, 2017an %0,8ko hazkundea izan zen kopuru errealetan, hots, aurreko urtean baino %0,4 gutxiago. Mailaren arabera eta ez bilakaeraren arabera azterketak erakusten duenez, EAEk 127,9ko indizea du, Estatukoa baino %26,4 handiagoa, eta 28ko EBko batez bestekoa baino %27,9 eta eurogunekoa baino %20,7 handiagoa.

Bestalde, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren Kanpo-inbertsioen Erregistroko datuen arabera, atzerriko inbertsioak EAEn behera egin zuen 2016 eta 2017 urte bitartean, atzerriko balioak dituzten enpresak deskontaturik (ABDE). Hortaz, bi urtez jarraian izan dira hazkundeak. Orotara, 2017. urtean 2.216 milioi euro jaso zituen EAEk. Horren zatirik handiena energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire egokitua hornitzeko sektoreari dagokio.³ Hala, EAEk hirugarren toki du inbertsioen bolumenean, Madril eta Kataluniaren atzetik. Sektoreen ikuspegitik, bereziki nabarmenak dira guztizkoan duen pisuagatik honako hauetan eginikoak: argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura, informazioa eta komunikazioa eta motordun ibilgailuen fabrikazioa eta bestelako garraio-materiala. Lurraldeen aldetik, ELGAko herrialde batean kokatzen da, kasuen %99,1ean, inbertsioaren azken titularra bizi deneko herrialdea, 15eko EBko batean kasuen %96,1ean, eta %2,2 Mexikokoa da.

Euskal inbertsioa atzerrian, ABDEak deskontaturik, 2016ko igoeraren ondotik, berriz ere itzuli da aurreko urteetan erregistraturiko mailetara. Zehazki, 2017an 1.182 milioi euro dira, hots, %63,3ko jaitsiera aurreko urtearen aldean. Hala, EAE laugarren tokian da AAEEn rankingean atzerrian eginiko inbertsioan. Hauexek ditu aurretik: Madril, Katalunia eta Valentziako E.

Sektoreen aldetik, hauexek nabarmenak dira: Makineriaren konponketa eta instalazioa, Finantza- eta aseguru-jarduerak eta Handizkako merkataritza, Txikizkako eta Motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa. Lurraldeen aldetik, EAEko inbertsioaren %72,3 ELGAko herrialdeetara dago bideratuta, %51,1 15eko EBko herrialdeetara eta %4,8 AEBetara. -----

Ekoizpen-azpiegituri dagokionez, nabarmendu nahi dugu Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF, PUERTOS eta RENFE) ingeniariak zibilean EAEn eginiko esleipenei buruzko datuek (Sustapen Ministerioak argitaratuak) jaitsierak erakusten dituztela 2016 eta 2017 bitartean, AENAREN kasuan izan ezik. ADIF Estatuko Sozietate Publikoak (Tren-azpiegituren Administrazioa) ingeniariak zibilean EAEn eginiko esleipenek behera egin zuten, 73,4 milioi eurotik 16,6 milioi eurora, PUERTOSek eginikoak 114,7 milioi eurotik 42,2 milioi eurora, RENFEk eginikoak 1,9 milioitik 1,2 milioira. AENAREN, berriz, 4,4 milioi eurotik 20,7 milioi eurora igaro da.

²Industria, eraikuntza eta zerbitzuak (etxeko jarduerak izan ezik hala nola enplegatzaileak eta lurraldez kanpoko erakundeak).

³Alemaniko inbertsio hori guztia Gamesa eta Siemens Wind Power enpresak 2017ko apirilean izandako bat-egiteari dagokio.

Garraio azpiegiturei dagokienez, edukiera handiko bideen portzentajea EAEn Estatuan baino handiagoa bada ere (%14,9 eta %10,3), EAEn ordaindu beharreko autobideen portzentajea askoz handiagoa da EAEn Estatuan baino (%17,8), batez ere lur gaineko errepedetako dentsitatea kontuan hartuta.

Bestalde, energiari buruzko zenbait datu ematen dituzte: oinarritzko energiaren ekoizpen propio urria (443 Ktep 2016an), EAEk energiaren aldetik duen eskariaren %7,1 betetzeko lain besterik ez. Hala, EAEn mendekotasun energetikoa %92,9an kokatu zen, eta portzentaje hori Estatukoa (%73,3) eta 28ko EBko batez bestekoa (%54) baino nabarmena handiagoa da. Adi berean, iturri berriztagarrietan oinarrituriko ekoizpenari esker (415 Ktep), barne kontsumo gordinaren %7 bete ahal izan zen (6.253 Ktep); hots, energia berriztagarriek barne kontsumo gordinen duen partaidetza-ratioa askoz txikiagoa da Estatukoa eta 28ko EBkoa baino (%14, eta %13 2015ean) eta Euskadiko 2020 Energia Estrategian (3E2020) gure Erkidegorako ezarritako %14ko helburutik urruti.

Energia-intentsitateari dagokionez, 2016an 13 puntu txikiagoa izan zen (hobekuntza) 2008an baino. 2015. urtearen aldean, %3ko hobekuntza izan zen BPGaren %3ko hazkunderari esker, energiaren amaierako kontsumoari eutsita. Beraz, ratioa 90etik 87ra igaro da.

Energiaren fakturari dagokionez, energiaren kostua laugarren urtez jarraian jaitsi da amaierako kontsumoan, %9,7 2016an, kontsumoaren murrizpen txikiari eta azken urteetako prezioak mantentzeko joerari esker. Hala, 4.978 milioi eurokoa da, eta 5.000ko mugatik jaitsi da lehen aldiz 2009tik.

EAEko sektore publikoa dela-eta, Eusko Jaurlaritzaren “*Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistika*”ren arabera, Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek 16.640,9 milioi euroko sarrerak likidatu zituzten orotara, hots, %6,3ko igoera aurreko urtearen aldean (hain zuzen ere +%2,8koa 2016. urtean), zeharkako zergen bilketaren bilakaera positiboagatik (batez besteko hazkunderaren gaintik), %13,9 hazita, baita zuzeneko zergen igoera txikiagoagatik ere (%5,1), baina 2016an baino gehiago igo baita (%4,2ko hazkundera izan zuten). Bi partidok EAEko Sektore Publikoaren sarreren %86,2 ziren 2017an. Halaber, aurreko ekitaldian bezala, %11,7 egin zuen behera finantza-pasiboan aldakuntzak (-%7,9 2016an), Eusko Jaurlaritzaren (-%11,8) nahiz foru aldundien (-%11) zorpetze txikiagoarekin lotuta betiere. Sarreren hazkunderak antzeko bilakaera du administrazioen artean, zeren eta Eusko Jaurlaritzaren kasuan %8,2koa baita eta foru aldundiena, berriz, %9,3koa.

Balantzea emate aldera, EAEko Sektore Publikoaren sarrerek EAEko BPGarekiko duten portzentajeak puntu erdi egin zuen gora 2017an (2016ko %22,1etik %22,5era, behin-behineko datuekin betiere).

Zuzeneko zergek eta zeharkakoek eta zerga guztien %90etik gorakoek osatzen duten Itundutako Zergen bilketan %11,8ko hazkundera izan zuen 2017an (orotara 14.473,9 milioi euro bildu ziren). Aurreko urtean, berriz, %2,7. Oro har ikusten denez, aurreko ekitaldian ez bezala, joera hobea izan du zeharkako zerga-ordainketak (+%16,4) zuzenekoak baino (+%7,2), eta zuzeneko zerga-ordainketaren igoera nabarmena gertatu da neurri handi batean BEZaren egokitzapen positiboagatik; izan ere, ezohiko sarrera hori ez da berriz izango datozen urteetan.

Orotara, 14.473,9 milioi euro bildu ziren, hau da, EAEko BPG korrantearen %19,7 2017. urtean, behin-behineko datuen arabera (%18,3 2016. urtean). Amaierako zerga-bilketa hori handiagoa izan da Finantzen Euskal Kontseiluak 2017ko urrian aurreikusitakoa baino, 106,2 milioi gehiago hain zuzen ere, eta lehen aldiz gaintitu da 2007an bildutako bolumenta krisia hasi zenetik. Sarreren %35,5 PFEZari dagozkio, %41,7 BEZari (gure kudeaketako eta barne eragiketen eta aduanen ziozko egokitzapenengatik), %7,7 Sozietateen gaineko Zergari eta %15,1 zenbait Zerga Bereziri.

EAEko Sektore Publikoaren guztizko gastua, 2017an, 16.129,5 milioi eurokoa zen (Tokiko erakundeak alde batera utzita), eta %5,3 hazi zen 2016aren aldean (aurreko urtean +%0,9koa izan zen). Beraz, EAEko BPGan duen portzentajea %0,3 handitu da, %21,6tik %21,9ra.

Gastuaren bilakaera positiboa izan da bai Eusko Jaurlaritzan (+%4,4) bai foru aldundietan (+%11,1), eta agregatuaren aldakuntza %5,3koa da, zeren eta zenbait partida erakundeen artean konpentsatzen baitira (transferentzien zati bat, esate baterako).

Gastuen kapituluaren arteko aldakuntza esanguratsuenek zenbait ezberdintasun dituzte aurreko urteekiko: lehenik eta behin, pertsonalaren gastua puntu erdi gehiago hazi da 2015ean eta 2016an baino (%2,5), eta neurri txikiagoan aldundietan (+%2,9) Eusko Jaurlaritzan baino (+%2,5). Aldi berean, ohiko transferentziek azken lau ekitaldietako joera positiboari eutsi diote, eta gainera, proportzio handiagoan hazi dira (+%7,3, 2016ko %1,2aren aldean). Funtzionamendu gastuek (ondasunen eta zerbitzuen erosketari dagokionez), aldiz, aurreko hiru urteetako joerari eutsi diote, baina hazkunde apalagoa izan da (%2,4 hazita, aurreko urtean +%2,9 hazi ondoren). Inbertsio errealei dagokionez, 2010 eta 2015 bitartean etengabe behera egin ostean neurri handiagoan edo txikiagoan, 2016an %4,7ko igoera izan zuten, baina joera horrek ez du 2017an iraun, %0,3 jaitsi baita.

Eusko Jaurlaritzaren gastua ardatz hartuta, eta 2018ko maiatzean eguneraturiko 2017ko aurrekontuko kopuruen arabera, %8,6 hazi da 2016an eginiko gastuaren aldean (urte horretan %2 egin zuten gora). Gasturik handiena egin duten bi sail nagusiak, 2017an ere, Hezkuntza (gutzizkoaren %23,9, baina kontuan hartu behar da Hizkuntza Politika eta Kultura aparteko saila direla 2017tik, aurrekontuko %2,2arekin) eta Osasuna (%31,6). Gastua, orotara, 11.256 milioi euro da, gure Erkidegoaren BPGaren %15,3.

2017an, EAEko Sektore Publikoaren (Eusko Jaurlaritzaren gehi foru aldundiak) ohiko sarrerak %8,8 egin zuten gora, baina gastu horiek neurri txikiagoan hazi dira (%4,7). Hori dela-eta, %67ko hazkundea izan da aurrezpen gordinean, 1.532,6 milioi euro izan artean. Zenbateko hori gure Erkidegoaren BPGaren %2,1 da (behin-behineko datuak). Horrez gain, 410 milioi euroko (BPGaren %0,6) superabit publikoa izan da (finantzatzeko ahalmena), finantzakoak ez diren gastuak (ohikoak gehi kapitalekoak) txikiagoak baitira horrelako sarrerak baino. Aurreko ekitaldian, 21,7 milioi euroko defizita izan zen.

2017ko Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Inkestak erakusten duenez, era berean, EAEko sektore publikoaren (Eusko Jaurlaritzaren gehi foru aldundiak) zorpetze garbia jaitsi egin da lau urtez jarraian, 2017an %47,9, krisiaren lehenbiziko urteetan igoerak izan ostean. Bestalde, zorpetze gordina %11,7 jaitsi da, eta orotara 1.162,3 milioi eurokoa da. Horietatik 975 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio (-%11,8 2016aren aldean) eta gainerako 187,3 foru aldundiei (-%11). Horren ondorioz, ekitaldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek 11.410 milioi euroko zorra zuten, hain zuzen ere 2016an baino %2,3 gehiago (BPGaren %15,5, eta 2016an %15,6 zen). Beste urte batez, zorraren zatirik handiena Eusko Jaurlaritzari dagozkie (zor guztiaren %82,8, %81,7 aurreko urtean).

Eta azkenik, enplegu publikoari dagokionez, EAEko herri administrazioek 131.973 enplegatu⁴ zituzten 2016ko abenduaren 31n, EUSTATen "*Herri Administrazioen Direktoria*"ren arabera. Hau da, aurreko urtean baino %1,2 gehiago eta EAEn 2016ko laugarren hiru hilabeteetan lan egiten zuten guztien %14,6 (2015eko ratio bera), BJAren okupazioari buruzko kopuruak kontuan hartuz gero. Datu horietan ez da kontuan hartu Estatuko administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren sistemako langileen kopurua, baina Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioak, 2017ko urtarrileko bere buletinean eginiko zenbatespenen arabera, Estatuko herri administrazioak egun horretan 11.075 langile zituen EAEn. Bi kopuruok batuz gero, 2016ko amaieran, 143.048 lagun ziren⁵.

EUSTATen kopuruak berriz ere aztertuta, 2016ko abenduan ziren 131.973 enplegatu publikoetatik %65,3 EAEko administrazioetakoak zen, %19,6 tokiko erakundeetakoak, %8 foru aldundietakoak eta gainerako %7,1a unibertsitateetakoak, fundazioetakoak eta beste erakunde publiko batzuetakoak. Bestalde, funtzionarioak langile guztien %62,3 ziren, %36,8 lan-itunpeko pertsonala zen, kasu bietan Osakidetzaren estatutu etako pertsonala barne; %0,9 goi-mailako kargudunak ziren.

⁴ Lanaldi osoko pertsonala.

⁵ Hala ere, soilik zenbatespenetat hartu behar da kopuru hori, erreferentziako datak eta erabilitako metodologiak desberdinak direlako.

Gainera, pertsonal finkoa (funtzionarioak, lan-iturpekoak eta estatutuetaoak) pertsonalaren %60,9 zen, %15 bitarteko funtzionarioak ziren eta %23,2 aldi baterako lan-iturpeko pertsonala zen.

I+G+b jarduerak 2016an 1.290,9 M€ euro inbertitu ziren EAEn, hots, azken urtean baino %1,4 gehiago eta hiru urtez kopuru negatiboak izan ondoren bilakaera positiboa itzuli da. Lurralde historikoen arabera, Arabak guztizkoaren %11,8 egiten du, Bizkaiak %41,6 eta Gipuzkoak %46,6. Esfortzuaren aldetik, BPGd-aren %1,82 da, hots, beste jaitsiera bat (4 ehunen 2015aren aldean), eta jaitsierak metatu ditu lau urtez jarraian. EINek %18,9ko ratioa erregistratu zuen EAEn. Hori dela-eta, gure Erkidegoa Estatuko batez bestekoaren gainetik dago (%1,19).

Iturria edozein delarik, eurogunean izandakoa baino txikiagoa da esfortzua, % 2,12, eta arlo horretako erreferentziako herrialdeen azpitik: Suedia (%3,25), Austria (%3,09), Danimarka (%2,87), Finlandia (%2,75), Alemania (%2,94), Belgika (%2,49), Frantzia (%2,22%), Eslovenia eta Islandia; hala ere, herrialde horietako zenbaitetan ratioa egonkortu edo nabarmen jaitsi dela ikusten da hala nola Finlandian edo Eslovenian, EUROSTATen arabera.

Gastua egikaritzeari dagokionez, enpresek⁶ %75,4 egikaritu zuten, %17,5 goi-mailako hezkuntzan, eta gainerakoa, %7,1 administrazioaren mende dauden erakundeetan. Egitura hori ez dator bat Estatuan dagoenarekin; izan ere, %53,7, %27,5 eta %18,5eko ehunekoak daude bertan, hurrenez hurren.

Hala, enpresa sektoreak jarraitzen du gastu gehien egiten, eta gainera %0,7ko igoera du bere partaidetza-portzentajearen. Beraz, hautsi egin da enpresaren sektoreak 2006tik izandako partaidetza galtzeko joera.

Gastuaren finantzazioari dagokionez, sektore pribatuak gastuaren finantzazioan duen partaidetza %55,7aren inguruan mantentzen da (10,3ra puntura Europako helburutik: I+G arloko gastu guztiaren %66 funts pribatuekin finantzatzea). Administrazioak gastuaren %33,5 finantzatzen du, 2015ean izandako ratioa baino handiagoa (%33,4). Estatuan, EINen arabera, sektore pribatuak gastuaren % 46,7 finantzatzen du (Europako helburuaren 19,3 puntu azpitik dago) eta herri-administrazioak % 40. Eurogunean, EUROSTATen datuei jarraiki, 2015ean kopuruak %57,3 eta % 31,8koak izan ziren, hurrenez hurren. Herrialde hauetan I+G arloko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratioa oso handia da: Japonia (%78), Txina, Hong Kong izan ezik (%74,7), Hego Korea (%74,5), Eslovenia (%69,2), Alemania (%65,6), AEB (%64,2), Danimarka (%59,4), Suedia (%57,3), eta Finlandia (%54,8). Bereziki deigarria da Finlandiaren kasua, non ratioak beherantz egin izan baitu %53,5era iritsi arte 2014an, baina 2015ean berri ere egin zuen gora, %54,8ra.

Hala, sektore pribatuak eta sektore publikoak finantzaturiko I+G BPGaren %1,02 eta %0,61 dira hurrenez hurren, 2015eko ratio berak. Europako helburuak %2 eta %1 dira 2020rako.

AOBko langileek (17.898 lagun: enpresa-sektore osoaren %70,6, eta %22,4 goi-mailako hezkuntzan eta %7 Administrazioan), hots, %1,8ko jaitsiera 2015ekoaren aldean. Sexuen araberako azterketak agerian uzten duenez, jarduera horretako langile guztien %35,6 emakumea da (aurreko urtearen antzeko ratioa).

Orain, enpresa-sektoreko I+G-ko adierazleak aztertuko ditugu, betiere Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentroak alde batera utzita. Lehenik eta behin, 1.254 enpresak egin zituzten I+G jarduerak (Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentro teknologikoak alde batera utzita) 2016an, hots, beste jaitsiera bat, oraingoan %16,5koa; horietatik 577 industria-sektorekoak dira (2015ean baino 141 gutxiago, -%19,6).

Jarduera horietako aritze edo lanaldi osoko langileei dagokienez, hor ere behera egin du berriz ere: lanaldi osoko 10.573,8 lagunetik 9.857,3 lagunera. Hots, enpresa-sektoreko AOBren %1,1 (ZTESeke zentroak alde batera utzita), azken urteotan behera egin baitu. Adar handietan banatuta, hauxe dugu: industriako lanpostu guztietan %2,6 I+G-ko jardueretan ari da. Aurreko urtean, berriz, %2,9.

⁶Aintzat hartu behar da I+Gko gastuaren zati handi bat Teknologia Zentroen sarearen bitartez bideratzen dela, eta estatistika eragiketa honetan enpresa sektorearen barruan sartu dira, euren izaera juridikoa dela-eta.

Jarduera horietako enpresek eginiko guztizko gastua, aldiz, handitu egin da 2015 eta 2016 bitartean: %0,3. Badira aldeak sektoreen artean. Industrian eta eraikuntzan behera egin dute (-%0,9 eta -%49,1 hurrenez hurren).

Bestalde, nabarmentzekoa da I+G egiten duten euskal enpresen batez besteko tamaina handia; izan ere, 70 lanpostu ditu, euskal enpresen batez besteko tamaina baino askoz gehiago (5,5 lanpostuko batez bestekoa da).

UPV/EHUK Ikerkuntza Erretoreordearen arabera, arestian aipaturiko partidatik kenduta, UPV/EHUK 2016an eginiko jarduera 53,1 milioi eurokoa izan zen, hots, %1,9ko jaitsiera aurreko aldiarekin erkatuta. Gehienak (%45,5, 24,2 milioi euro) ikerkuntza proiektuei dagozkie, eta ondoren, prestakuntzarako pertsonalaren funtsak datoz (%22,7, 12 M€) eta Unibertsitatea Antolatzeko Legearen (LOU) 83. artikulua itzalpean sinaturiko kontratuak, hots, funts guztien %17,6 dira (9,3 M€).

Funtsen jatorriari dagokionez, 2013-14 aldian funts autonomikoak izan ziren finantzabide nagusia (gutizkoaren %39,7), eta gauza bera gertatu zen 2015ean. 2016an, estatuaren eta autonomiaren finantzaketa eta finantzaketa propioak dira finantzabide nagusia, hots, gutizkoaren %24, %22 eta % 22 hurrenez hurren. Arlo zientifikoen arabera, I+G+b jardueretako gastua batez ere zientziei, ingeniariari eta arkitekturari dagokie.

Enpresen berrikuntza jardueri dagokionez, EUSTATen “Berrikuntzari buruzko Inkesta”ren arabera, 2014-2016 aldian behera egin zuen enpresa berritzaileen portzentajeak, halako moldez non 2016an enpresen %16,4 baitziren (aurreko aldian baino 5 hamarren gutxiago). Portzentaje hori ateratzen da kontuan hartuta hala berrikuntza teknologikoko enpresak (produktuak eta/edo prozesuak berritzen dituzte eta enpresen %11,4 dira; aurreko aldian %11,9) nola teknologiaz aparte berrikuntza-jardueretan aritzen diren enpresak (antolamendua eta/edo merkaturatzea berritzen dituzte eta enpresen %9,4 dira, %9,5 aurreko aldian).

10 lanpostu eta gehiago enpresak bakarrik aintzat hartuz gero (EINekoekin alderatu ditzakegu), enpresa berritzaileen (teknologikoen eta teknologikoak ez direnen) portzentajea handiagoa da, % 34. Horretatik, % 27,9 berrikuntza teknologikoari dagokio eta % 19,4 berrikuntza EZ teknologikoa).

Estatuan, EINen “Enpresetako berrikuntzari buruzko inkesta”ren arabera, epealdi bereko ratioa %28,5 da (%28,6 aurreko epealdian) eta, beraz, EAEko ratioa baino txikiagoa.

Berrikuntza teknologikoa duten enpresen analisiari gagozkiolarik (arestian esana dugunez: enpresa guztien %11,4), 2016an gora egin zuen berrikuntza teknologikorako jardueretan eginiko guztizko gastuak. Hala, hautsi egin da azken lau urtean izandako beheranzko joera. Zehazki, %3,3 hazi zen 2015 eta 2016 bitartean, guztira 2.524,6 M€, hots, BPGd-aren %3,6 (%3,5 aurreko aldian), EUSTATen “Berrikuntza Teknologikoari buruzko inkesta”ren arabera. 10 langile edo gehiago dituzten enpresak soilik aintzat hartuz gero (tamaina horretako enpresa guztien %27,9), gastua 2.123,9 M€ da, hots aurreko urtean baino %2,1 gehiago, baina egonkor eusten dio BPGd-aren %3an.

“Europako Berrikuntzaren Adierazleen Panela, 2017” delakoak berretsi egiten ditu aurreko alderdiak, zeren eta EAEko adierazle sintetikoa 0,48 baita, Estatukoaren gainetik (0,39), baina pixka bat 28ko EBren azpitik (0,50). Hala ere, “berrikuntza maila handiko herrialde”en taldearen barruan dago, EBko 28ko batez bestekoa %95 delako.

28ko EBren batez bestekoaren aldean, EAE lehen blokean nabarmentzen da (Esparru baldintzak), hiru dimentsioetan: “Giza baliabideak”, “Ikerkuntza sistema erakargarriak” eta “Berrikuntzarako ingurune egokia”. Bigarren blokean (Inbertsioak), “Enpresen inbertsioa” dimentsioa nabarmentzen da. Eta hirugarren blokean (Berrikuntzako jarduerak), EAE “Berritzaileak” dimentsioan nabarmentzen da. Hain zuzen adierazle hauetan: Produktuan edo prozesuan berritzaileak diren ETEak ETEen % gisa (%33,31, eta %30,90) eta barne berrikuntza duten ETEak ETEen % gisa (%31,11, eta %28,77). Hirugarren adierazlean, marketinean edo antolaketan berritzaileak diren ETEak ETEen % gisa, emaitzak ez dira hobeak (%20,85, eta %34,89).

Gainerako dimentsioetan, “Finantziazioa eta laguntza”, “Loturak”, “Aktibo intelektualak”, “Eragina enpleguan” eta “Eragina salmentetan”, lorturiko puntuazioak Europako batez bestekoak baino txikiagoak dira.

EAEk familien edota biztanleriaren **IKT ekipamenduen inguruan** duen posizioa aztertuko dugu. EUSTATen “Familien Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak (FIGI)” erakusten duenez, 2017. urteko lehen hiruhilekoan EAEko etxeen %70,7k ordenagailua du, hots, 15 urte eta gehiagokoen %77,9k. Aurreko urtearen aldean, bi ratioek gora egin dute (%0,6 kasu bakoitzean). Bestalde, familien %78,9k internet du etxean(+4,8 puntu portzentual 2015eko urte bereko epealdian), eta %,4,1 egin du gora sarerako sarbidea duten 15 urte eta gehiagokoen ehunekoak, hots, %85,3an kokatu da hain zuzen ere.

EUROSTATen arabera, Autonomia Erkidegoetako konparaziozko datuek honelako datuak ematen dituzte: EAEk %87 du, eta aurretik dira Nafarroa (%88), Ceuta (%88), Madril (%89) eta Illes Balears (%89). Alabaina, portzentaje hori urruti dago Europako iparraldeko eskualdeetan ikusten diren erreferentzietatik; izan ere, hainbat kasutan %90 gainditzen dute, eta batzuetan %100a.

Transakzio elektronikoei dagokienez, EUSTATen arabera, 15 urte edo gehiagoko biztanleen %34,7k erosketaren bat egin zuen Interneten 2017. urtean, aurreko urtean baino gehiago. Hona hemen ondasunik erosienak: kirol materiala eta arropa (%54), bidaiak eta oporretako ostatuak (%26,3, beheranzko joerari eusten badio ere) eta etxerako produktuak (%22).

Enpresetako IKT ekipamenduak direla-eta, EUSTATen “Enpresen Informazioaren Gizarteari buruzko Inkestak” oro har erakusten duenez, euskal enpresetan gero eta ugariagoak dira IKT ekipamenduak, eta handituz doa teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen portzentajea.

2017an, establezimenduei dagokienez, ekipamendurik hedatuena orain ere telefono mugikorra eta ordenagailua dira, eta ondoren Internet eta posta elektronikoa. Jarduera-sektoreen arabera, industri sektoreko enpresek dute ezarpen teknologikoko mailarik altuena, eta ondoren zerbitzuen sektoreko enpresak eta eraikuntzako enpresak datoz. Industria-sektorean, gainera, ekipamendu guztiak daude zabaldua.

Teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen portzentajeari dagokionez, EUSTATen arabera, berriz ere izan da igoera aurreko urtearen aldean. Jarduera-sektoreen arabera, beste urte batez eta aurreko kasuan ez bezala (establezimenduen portzentajea) zerbitzuen sektorea nabarmentzen da besteen gainetik. Halaxe gertatu da gehienbat zerbitzuen sektoreetan joera handiagoa dagoelako zenbait jardueratan horrelako ekipamendu motak sartzeko eta erabiltzeko.

Enplegu-estratuen araberrako azterketak erakusten duenez, lehenik eta behin, IKT ekipamenduak hedatuago daude establezimenduaren tamaina handitzen den heinean. Bigarrenik, zenbat eta enplegu tamaina handiagoa izan, hobetzeko marjina txikia dela-eta, orduan eta txikiagoak dira ekipamenduetan izaten diren. Eta hirugarrenik, bi alderdi horiek gehiago ikusten dira establezimenduen aldetik enpleguaren aldetik baino. Hala da besteak beste establezimendu txikien aurrerapen handiagogatik, baita establezimendu handietan langile guztiek ekipamendu horiek eskuratzetik ez dutelako ere.

Bestalde, “Enpresetako IKTen eta merkataritza elektronikoen erabilerari buruzko inkestak” erakusten duenez, 2017ko lehen hiruhilekoaren datuak ikusita, interneteko konexioa, web orria duten enpresen ratioa eta banda zabala duten enpresen ratioa handiagoa da EAEn estatuko batez bestekoa baino (EAEn, ratioak, %98, %83,1 eta %82,1 dira eta Estatuan, %98,7, %77,7 eta %82,4, hurrenez hurren). Alabaina, txikiagoak dira enpresa hauen ratioak: izenpe elektronikoa erabiltzen duten enpresak (%70,7 eta %77,1), hedabide sozialak erabiltzen dituzten enpresak (%40,5 eta %49,6) eta hodeian “cloud computing” konputazio irtenbideak erosten dituzten enpresak (%19,6 eta %24,6).

Enpresa-sareko merkataritza elektronikoa dagokionez, EUSTATen arabera, gorantz jarraitzen du kopuru ekonomikoetan, eta nabarmen egin du gora azken urtean (2016). Alabaina, behera egin zuen 2015 eta 2016 bitartean merkataritza elektronikoa parte hartzen duten enpresen portzentajeak; hala ere, 2012 eta 2016 urte bitartean %6,3 egin zuen gora ratioak (%19,7tik aipaturiko %26ra).

Establezimenduak tamainaren arabera bereizita, merkataritza elektronikoa egiten duten eta 10 lanpostu edo gehiago dituzten establezimenduen portzentajea %29,7 da, aurreko urtean baino %0,3 gutxiago (%26 oro har). Handiagoa da erorketa elektronikoa egiten dituztenen portzentajea (%25,8) salmentak egiten dituztenena baino (%11,9).

Emaitzek erakusten dutenez, EUROSTATen eta EUSTAT⁷en arabera, on line saldu duten (aurrekoaren %1 gutxienez) 10 langile edo gehiagoko enpresen portzentajea (finantza sektorerik gabe) handiagoa da 28ko EBn eta eurogunean EAEn baino (%18 eta %11,9); on line erosi duten enpresen portzentajea (eskarien %1 gutxienez), berriz, nahiko antzekoa da (%25,8 EAEn eta %26 28ko EBn eta %27 eurogunean).

Administrazio elektronikoa dagokionez, EUSTATen arabera, gora egin du azken urteetan administrazioarekiko izapidetze elektronikoa eskatzen duten enpresen kopuruak. Hala, 2011 eta 2017 bitartean, interneteko sarbidea duten eta izapide horiek egiten dituzten enpresen %61,8tik %89,9ra igaro da. Portzentaje horiek altuagoak dira 10 langile edo gehiago dituzten enpresak aintzat hartuz gero (%85,2tik %91,8ra).

Izapidetze hori zuzenean egin daiteke, hirugarrenen bitartez (aholkularitza enpresak...) edo bi prozedurak erabiliz. Hala, establezimendu guztien %46,6k zuzenean egin ditu izapidetak. %63,3k, aldiz, hirugarrenen bitartez. 10 lanpostu edo gehiagoko kasuan, tamaina handiagoa del- eta bitarteko gehiago dituztenez, zuzenean egiten dira neurri handiagoko izapide horiek (%82). Hirugarrenen bitartez egiten dutenen ratioa, berriz, txikiagoa da (%50,7).

Enpresak administrazioarekin egiten duen izapidetze motari dagokionez, hauexek nabarmentzen dira establezimenduetan: BEZaren aitortzea egitea (guztizkoaren %74,3), sozietateen gaineko zergaren aitortzea egitea (%65,1), informazioa lortzea (establezimenduen %61,1) eta inprimakiak eta formularioak eskuratzea (%60,5). 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduei dagokienez, hauexek nabarmentzen dira: informazioa eskuratzea (horrelako establezimenduen %83,1), inprimakiak eta formularioak eskuratzea (%80,6), inprimakiak eta formularioak beteta itzultzea (%74,8), BEZa aitortzea (%73,2), enplegatuen kotizazio sozialak aitortzea (%72,8) eta sozietateen gaineko zerga aitortzea (%72).

Horrelako izapidetak egiteko interneteko konexioa duten establezimenduek erabilitako administrazioari dagokionez, hauexek nabarmentzen dira: Foru Aldundiak (establezimenduen %75,4 eta 10 lanpostu eta gehiagoko %80,6) eta Administrazio Zentrala (establezimenduen %70,7 eta 10 lanpostu eta gehiagoko %83,6).

III. LAN-MERKATUA

Lehenik eta behin, EUSTATen BJAk 2017ko laugarren hiruhilekoei buruz emandako datuen arabera, EAEko biztanleria aktiboa, orotara, 1.033.100 lagunekoa zen 2017aren bukaeran, eta horietatik %52 gizonezkoak ziren eta %47,8 emakumezkoa. Horrez gain, 2017an dirudienek eten egin da azken urteetan biztanleria aktiboan izandako jaitsiera, zeren eta %0ko hazkundea zenbatetsi baitu, 200 lagun landun gehiago kopuru absolutuetan. EAEko jarduera-tasa orokorra %56,2 zen 2017. urtea bukatzean (2016an baino 2 hamarren gutxiago), eta emakumeak %51,8 ziren (2016ko datu bera). Gizonezkoen biztanleria, berriz, %60,9raino jaitsi zen (2016. urtean bukatzen baino 4 hamarren gutxiago).

Halaber, 2016ko abendutik 2017ko abendura bitartean okupazioaren gehikuntza %1,7 izan zen EAEn (+15.000 lanpostu gehiago, horietatik %61,3 emakumezkoenak. Izan ere, emakumezkoen enplegua batez bestekoaren gainetik

⁷ Datuak ezin dira modu zuzenean alderatu, azterketa unitatean dagoen aldeagatik: enpresa eta establezimendua. Dena den, gutxi gorabeherako ikuspegia eskaintzen dute.

hazi da, %2,2 hain zuzen (gizonena %1,3koa da). Hazkunde horren oinarria, funtsean, industriako sektorea da, 12.900 lanpostu gehiago eskuratuta (+%6,9). Zerbitzuetan %5,8ko igoera izan zen 2016an, baina 2017an 1.000 lanpostu gehiago baino ez ditu irabazi (+%0,2), emakumeen 6.100 lanpostu gehiagoren eta gizonezkoen 5.300 lanpostuen galeraren arteko saldoaren arabera⁸. Eraikuntzak, berriz, 900 lanpostu gehiago eskuratu ditu (+%1,9), gutxi gorabehera %50ean banatuta gizonen eta emakumeen artean.

Hona hemen EAEko lan-merkatuan 2017an aintzat hartu beharreko bestelako alderdiak. Lehenik eta behin, lanaldi partzialeko landunen portzentajearen beherakada, 9 hamarren gutxiago, %16,8raino jaitsita. Bigarrenik, behin-behinekotasunaren gorakada, %2,7 hazita: soldatapekoen %23,4tik %26,1era. Sektore pribatuko eta publikoko behin-behinekotasuna erkatuz gero, sektore publikoan askoz handiagoa dela esan behar da, eta alde horri eusten zaio zenbait gorabeherarekin hamar urtetik gorako epealdian. 2017an, sektore publikoko behin-behinekotasun tasa %34,6 izan zen laugarren hiruhilekoan. Sektore pribatuarena, berriz, %24,2 zen. Hortaz, 10,4 puntuko aldea dago.

Bestalde, Gizarte Segurantzako kotizatzaileen batez besteko kopurua, 2017ko abenduan (ikus kapitulu honetako 1 orri-oina), 943.987 zen, eta horietatik %47,2 emakumeak ziren eta %52,8 gizonak. Hala, %2 egin du gora aurreko urteko hilearen aldean (+%3,4 batez beste Estatuan), eta guztira 18.696 afiliatu gehiago daude alta emanda, hain zuzen ere 2016an izandako igoerari gehituta (%1,9koa izan zen).

Jarduera-sektore handien arabera, oinarrizko sektorea %0,2 besterik ez da hazi eta, beraz, alta emanda dauden afiliatu guztiekiko duen pisu konstanteari eusten dio (%0,9). Industriak, bestalde, 2016ko neurri berean hazi da, %1,9, eta afiliazio guztiekiko %19,3koa izateari eusten dio. Eraikuntzaren bilakaera batezbestekoa baino hobea izan da, %2,2 hazi baita, eta afiliazioaren %5,7 da. Azkenik, zerbitzuen sektorea batez bestekoaren neurri berean hazi da, %2, eta 2016an bezala, alta emanda dauden afiliatuen pisuari eusten dio (%74,1).

Ekoizpen-adarrik⁹ gehien bilakaera positiboa izan da, lehen sektorean izan ezik (-%1, nekazaritzako sistema berezia alde batera utzita -horretan, berriz, %4,1eko hazkundea izan da-); erauzketa-industrietan %2,9ko jaitsiera izan da, finantza- eta aseguru-jardueretan -%3,6, etxeko lanean -%2,8 eta beste zerbitzu batzuetan -%0,5. Halaber, etxeko enplegatuen araubide bereziaren afiliazioak %0,7 egin du behera. Manufaktura-industria afiliazioan pisurik handiena duen adarra da (guztizkoaren %19,1), eta batez bestekoaren gaineratik hazi zen pixka bat 2016an (+%2, eta batez bestekoa %1,9). 2017an, berriz, neurri txikiagoan hazi da, %1,8, eta azken urtean 3.000 afiliatu gehiago bildu ditu. Zerbitzuen sektorearen afiliazioa, arestian esana dugunez, batez bestekoaren gaineratik hazi da, %2,2 hain zuzen, hau da, 14.277 afiliatu berri. Horrez gainera, adar guztietan izan dira igoerak, finantza- eta aseguru-jardueretan aipaturiko salbuespena izan ezik. Afiliatorik handiena biltzen duen zerbitzuen adarreko merkataritzan (guztizkoaren %15,3), urte arteko %0,2ko hazkundea izan zen (324 afiliatu gehiago). Pisu nabarmena duten beste jarduerak batzuetan, hala nola osasunean, hezkuntzan eta ostalaritzan, batez bestekotik gorako urte arteko tasak bildu ziren (afiliazioan %7,6, %2,9 eta %2,7ko hazkundeekin hurrenez hurren).

Kontratazioak ere gora egin zuen 2017an (+3,4), eta 2014an hasitako bilakaera positiboari eutsi zion. Hona hemen 2017an gehien kontratu ziren jarduerak: ostalaritza (kontratuen %15,7, 2016an baino %1,9 gehiago), manufaktura-industria (kontratuen %15, %1 hazita), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak, horien artean ALE (hasierako kontratu guztien %12,2, 2016an baino %0,3 txikiagoa), osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuetakoak (kontratuen %12 eta +%2,1 2016aren aldean) eta merkataritza (kontratu guztien %11,4 eta +%4,6 aurreko urtearekin alderatuta). Hortaz, ikusten dugunez, kontratazioaren guztizko kopuruak baino bilakaera negatiboagoa dute kontratazioen pisurik handiena duten jarduerak. Aldea ikusten da sexuen arabera; izan ere, gizonen izenpeturiko lau kontratuetako bat hartzen du manufaktura-industriak (guztizkoaren %23,6, 2016an baino 9 hamarren gutxiago).

⁸Sexuaren arabera aldakuntzen batura ez dator bat guztizko saldoarekin, kopuruak "milakoetan" ematen direlako eta BIAk datuk biribiltzen dituelako.

⁹Hiruhilekoetako Ekonomi Kontuek (HEK) ekoizpenaren eta enpleguaren bilakaerari buruzko informazio osagarria ematen dute ekoizpen-adarren arabera. Ikus Memoria honetako EAEko ekonomiari buruzko II. kapitulua.

Emakumeen artean, berriz, osasun jarduerak eta ostalaritza dira jarduerarik handieneko atalak (bien artean kontratu berrien %38,5 hartzen dute). Estatuan, berriz, 21,5 milioi kontratu erregistratu ziren 2017an, 2016an baino %7,6 gehiago (+%7,5 aurreko urtean).

Adin-taldeen arabera, 2017an gizonak nahiz emakumeak sinaturiko kontratu berri gehienak 25-45 urte bitarteko adin-tarteari dagokio (kontratuen %57,1), 25-35eko eta 35-45eko adinetan banaturik, %16,1 eta %41 hurrenez hurren. 25 urtetik beherakoetan, kontratuen %16,8 sinatu dira, biztanleria aktiboan duen pisua baino handiagoa, %3,8koa baita. 2016ko bilakaerari dagokionez, adin-talde guztietan igo da kontratuen kopurua, 25-39 urte bitarteko adin-tartearen salbuespenarekin (-%1,4) eta, zehazki, gizonen artean nahiz emakumeen artean (-%0,6 eta -%2,2 hurrenez hurren). Ratorik handienak, batez bestekoaren ginetik, gazteenen artean ageri dira (+%17,5 20 urtetik beherakoak), kontratazio guztiekiko pisu txikia bada ere (gutzitzkoaren %2,5), baita 45 urte eta gehiagokoaren artean ere (+%7,3 eta kontratuen %26 dira).

Ikasketa mailaren arabera kontratazioaren banaketari dagokionez, hamar kontratuetatik ia sei (%39,8) bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonak izenpetzen dituzte, gehienak hezkuntza orokorreko maila dutenak, gizonetan (kontratuen %43) nahiz emakumeen artean (%36,6). Bigarrenik, kontratuen %33,4 bigarren hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonak izenpetzen dituzte (bi herenek gutxi gorabehera hezkuntza orokorreko ikasketak eta beste herenak LHkoak). Ondoren, %22,1 DBH ondorengo ikasketak dituzten pertsonak izenpetzen dituzte, horietatik %13,6 unibertsitatekoak eta %8,5 goi-mailako lanbide ikasketak dituztenak. Kontratazioaren igoerarik handienak doktorego eta unibertsitate masterreko mailei dagokie (%24,1 2016aren aldean, bai kontratazioaren %1,7 besterik ez dira), eta oinarrizko ikasketen artean, osatu gabeko ikasketak dituzten langileentzat (kontratu guztien +%13,9 eta gizonen +%15,4). Kontratazioak gora egin du ikasketa maila guztietan, oinarrizko LHn izan ezik (-%4,3).

Lanaldi motari helduta, bilakaera positiboa izan zen lanaldi partzialeko kontratuetan, EAEn 385.771 guztira (+%3,8 2016aren aldean), kontratu guztien %40,3arekin, nahiz lanaldi osoko kontratuetan, guztira 569.806, %3,2 hazita (kontratuen %59,5). Gainerako %0,3 lanaldi eteneko 2.522 kontratuei dagokie. Sexuaren arabera, lanaldi partzialeko kontratazioaren pisua oso desberdina da, zeren eta emakumeak sinaturiko kontratuen erditik gorakoa baita (%53,7 2017an). Gizonekoak sinaturiko kontratuak, berriz, %26,9 dira.

Kontratuen iraupenari dagokionez, izenpeturiko kontratu gehienak aldi baterakoak dira (kontratu guztien %92,3), halako moldez non 2017an izenpeturiko guztietatik 73.328 mugagabeak izan baitziren, hots, %7,7 (2016an baino 6 hamarren gehiago), 2008tik izan den kopururik handiena. Kontratu mugagabe horien tasa %1,7 hazi zen 2011 eta 2017 bitartean (6,0tik 7,7ra), eta pixkanaka hobetuz doa 2011tik.

Horrez gain, kontraturiko pertsonen zati handi batek hainbat aldiz egiten du urtean. Txandaketa (kontratu kopuruaren eta kontraturiko pertsona kopuruaren arteko ratioa) 3,21 izan zen, 2016an baino 5 ehunen gutxiago. Lehen jaitsiera da 2011. urtetik. Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupenari dagokionez, 50 eguneko da (2015ean eta 2016an baino 2 gehiago). Estatuan berriz, 52 egun dira batez beste, hau da, 2 egun gehiago 2016aren aldean.

2017. urtean lan-merkatuak izandako bilakaeraren emaitza gisa, BJAren langabezia-tasa orokorra % 11,1ekoa izan da urtearen amaieran (aurreko urtean baino 1,5 puntu gutxiago); gauzak horrela, Europar Batasunaren batez bestekoa gaitzen da (EBn % 7,3koa izan da eta Eurogunean % 8,7koa, hirugarren hiru hilekoaren datuak). Europar Batasunean, oso zabala da langabeziaren balio-sorta. Kopuru handietatik, adibidez, Grezian (%20,3) eta Espainian (%16,4), ratio txikiak, esaterako Alemanian, Maltan, Hungarian eta Erresuma Batuan. Belgikak, Finlandiak eta Lituaniak EBko batez bestekoaren inguruko langabezia-tasak dituzte. AEBetan %4,1eko langabezia-tasarekin bukatu zen urtean, eta Japonian, berriz, %2,8koa, zenbait adibide aipatzearen.

2017an, laugarren urtez jarraian egin zuen behera EAEn langabezian zeuden pertsonen kopuruak (lau hiru hileko), sei urtez (2008. urtetik 2013. urtera) Euskadin langabezia etengabe hazi ondoren. Zehazki, eginiko zenbatespenen arabera, 2017ko amaieran 114.800 langabetu zeuden, aurreko urtean baino %11,8 gutxiago (-15.300 lagun), eta horietatik %51 gizonak izan ziren eta %49 emakumeak.

2016an ez bezala -langabeziaren jaitsiera gehienbat gizonena izan zen orduan-, 2017an bi sexuetan gertatu da antzeko intentsitatea, zeren eta gizon langabeen kopurua %11,7 jaitsi baita eta, emakumeena, berriz, %11,8. Bilakaera horren ondorioz, 2017. urtea bukatzean langabezia-tasetan 5 hamarreneko aldea dago sexuen artean. Izan ere, %10,9 da gizonentzat eta %11,4 emakumeentzat (%11,1 batez beste, ikusi dugunez), 2016ko amaieran baino hamarren bat gutxiago (orduan %12,3ko eta %12,9ko tasak ziren hurrenez hurren).

Adinen arabera, langabetuen kopuruak behera egin du horietan guztietan eta, bereziki gazteenetan (-%35,8 25 urtetik beherakoetan eta -%12,25 eta 44 urtekoen bitarteko taldean), baina 44 urtetik gorakoan artean ere bai (-%6,5), 2016an gertatu bezala. Horren ondorioz, adin-talde horretako langabezia-tasan 9 hamarreneko jaitsiera dago, %9,5eraino, %11,1ko batez bestekoaren azpitik oraindik. Gazteen adin-taldean, berriz, txikitu egin da, baina batez bestekoaren gainetik betiere: %12,3 25 eta 44 urte bitartekoentzat eta %17,2 gazteenentzat, eta langabezia daude 16-24 urte bitarteko 96.100 gazte aktibo.

Bestalde, 2017ko bukaeran, BJAk zenbatetsitako oso antzeko zifrak bildu zituen LANBIDEk langabeziaren inguruan, estatistika-eragiketa horretan berriki sartu ziren metodologia aldaketaren ondoren. 2017ko abenduan LANBIDEN erregistraturako 127.547 langabetu zenbatu ziren (%6,3 jaitsi da aurreko urtekoarekiko, estatuaren batez besteko %7,8koaren aldean); alabaina, biztanleria jardueraren araberrako inkestak, EUSTATEk egindakoak, 113.800 kalkulatu zituen urteko azken lauhilekoan. Krisia hasi zenetik bosgarren urtez jarraian gertatu da erregistraturiko langabeziaren urte arteko saldo negatiboa, eta gainera, 2015ean eta 2016an bezala, langabezia bi sexuetan murriztu dela ikusten da: bereziki gizonen artean (-%9), baina emakumeen artean ere bai (-%4,1).

Adinen arabera, antzeko zerbait gertatzen da, zeren eta 2016ko abendutik 2017ko abendura bitartean guztietan egin baitzuen behera langabeziak (salbuespen batekin, igoera txikia 59 urtetik gorakoan artean). Adin-talde handietan, langabeziaren jaitsiera handiagoa izan da 25 urtetik beherakoan artean (-%13,6), batez ere gizonetan (-%16,8, eta emakumeena -%10,1 da talde horretan). Ondoren, 25-44 urtekoen taldea dago (-%8,4, gizonak batez bestekoaren gainetik, baina emakumeak azpitik) eta 44 urtetik gorakoan taldea (-%3,4), bai gizonenak, bai emakumeenak batez besteko orokorraren azpitik.

Ikasketa mailaren arabera, behera egin zuen langabeziak 2016ko abenduaren aldean (aurreko urtean gertatu bezala) maila guztietan. Beherakadarik handienak, batez bestekoaren gainetik, lehen zikloko unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen artean ageri dira (-%7,6) eta hezkuntza orokorreko bigarren mailako ikasketak dituztenen artean (-%7,8). -%6,3ko batez bestekoaren inguruan jaitsi da langabezia oinarrizko ikasketa osotuetan eta goi-mailako LHn (bietan -%6,3), baita oinarrizko LHn ere (-%6,1). Horrenbestez, langabetuen taldeko zatirik handiena hezkuntza orokorreko titulazioa duten pertsonen artean dago (erregistraturiko pertsona guztien %48,5), aurreko urtean baino 8 hamarren gutxiago), eta oinarrizko ikasketak dituztenak gehituz gero (%21,9), langabeen %70,4 dira. Pisu hori apenas aldatu da azken urtean.

Langabezia emandako denbora kontuan hartuz gero, 2017an behera egin zuen langabetuen kopuruak kategoria guztietan, bereziki langabezia urtebete baino gehiago daramaten taldean, gizonetara nahiz emakumetara. Erregistraturiko guztizko langabezia %6,3ko jaitsiera izan da, eta langabezia 6 hilabete baino gutxiago daramaten pertsonen kopuruan, berriz, ia antzeko proportzioa da, %6,4. %4,3 murriztu da langabezia 6 hilabete eta urtebete arteko denbora daramaten taldea. Urtebetetik gora daramaten artean (iraupen luzeko langabezia deritzona), berriz, %6,8 jaitsi da, neurri txikiagoan emakumeen artean (-%4,1), baina nabarmen handiagoa gizonen artean (-%10). Hala, iraupen luzeko langabezia-tasak (egoera horretan urtebetetik gora daramaten pertsonen portzentajea (%52,2raino egin zuen behera 2017ko abenduan (%41,9 estatuan), 2016ko abenduan baino 2 hamarren gutxiago. Ratio hori %47,1koa da gizonen artean (-0,5 puntu) eta %56,2ko emakumeetan (-0,3 puntu).

Lan-merkatuaren egoera honetan, enplegu politikak oso garrantzitsuak dira, bai politika aktiboak (langabetuek enplegua lortzeko eta lanean ari direnek lanpostua mantentzeko), bai politika pasiboak (langabetuen babes ekonomikorako).

Lehenbizikoei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak 2014-2016ko Enplegu Planaren balantzea aurkeztu zuen 2017an. X. Legealdian hartutako konpromisoari berehalako erantzun eraginkorra emateko egin zen plan hori, eta lehenetsunezko zatia jo zen egungo enpleguaren aldeko lana egitea eta lanpostu berriak sortzeko beharrezko baldintzak eta pizgarria sortzea. Horren ondorioz, gehienbat eragiketarako sortutako plana zehaztu zen, neurri zehatzekin eta errealistekin, eragin neurgarria eta zenbagarria izateko berehala.

Eusko Jaurlaritzaren txostenean eginiko balorazioaren arabera, Planaren betearazpen-maila aurreikusitako finantzazioaren %85 izan zen, hots, 661 milioi euro, eta aurreikusitako baliabide pribatuen %58 mugiarazi ziren, 910 milioi euro. Hots, 1.571 milioi euro erabili ziren orotara, eta horien bidez, Urteko Ekintza Planetan aurreikusitako 92 ekimenetatik 87 garatu ziren (aurreikusitako ekimenen %95). Planak, era berean, 32.000 lanposturako pizgarriak ezarri zituen, 134.600 lanposturi eustea eta laneko lehen esperientzia izateko aukera 23.000 gazterentzat. Abiarazitako ekimenen garapen- eta betetze-mailari esker, aurreikusitakoa baino handiagoa izan da sortutako enpleguan izandako eragina (%116) eta enplegua bere horretan mantendu da ia-ia (%98). Horri esker, 37.146 lanpostu sortzeko eta 131.898 lanpostu mantentzeko lagungarria izan da. Gazteen laneko lehen esperientzia bultzatzeari dagokionez, 6.302 gazteri lehen laneko esperientzia emateko aukera bultzatu zen, aurreikusitako helburuen %27,2 hain zuzen ere.

2017. urtean, Enplegurako Plan Estrategiko berria zehaztu zen 2017-2020 epealdirako, *“Ekonomia eta Enplegua Suspertzeko 2017-2020ko Esparru-programa”* delakoaren oinarritzko zatia den aldetik. Izan ere, plan horretan ere ezarri dira, ekonomia suspertzeko dimentsioan, Eusko Jaurlaritzak berrikuntzaren, nazioartekotzearen, industrializazioaren eta inbertsioaren arloan garatu beharreko oinarritzko ildo estrategikoak. 2017-2020ko Enplegurako Plan Estrategikoaren aurrekontuen baliakizunari buruz eginiko zenbatespenen arabera, 1.180 milioi euro erabiliko dira 2017-2020 aldian.

Bestalde, LANBIDEk (Enplegurako Euskal Zerbitzuak) funtsezko eginkizuna du ezarrita EAeko enplegurako politika aktiboak garatzeko eta Plana abiarazteko, zeren eta haren eginkizunak baitira laneko aktibazioa (enplegua sustatzeko programak, bitartekaritza, orientazioa, etab.) eta enplegurako trebakuntza (landunen trebakuntza nahiz langabezia daudena).

Aurrekontuko likidazioak oinarri hartuta (obligazio aintzatsiak), jakin badakigu 2016an 847,79 milioi euroko gastua izan zuela, 2015ean baino %3,5 gehiago, eta horietatik 516,2 milioi, gastu guztien %60,9, Gizarteratze Programarako erabili ziren (2015ean baino %3,5 gehiago), 217,4 milioi euro (guztizkoaren %25,6) Enplegu Programarako (2015ean baino %8,5 gehiago) eta 101 milioi (gastuaren %11,9) Prestakuntza Programarako (-%4,1 2015ekoaren aldean). Hortaz, eta nahiz eta sinplifikazioa izan daitekeen enplegurako politiketako gastua prestakuntzako eta enplegurako programen baturatze hartzea, gizarteratzearekiko berezko erlazioa duenez gero, LANBIDEk 2016an enplegurako politika aktiboetan 318,3 milioi euroko gastua izan zuen, 2016an baino %4,1 gehiago. 2014 eta 2015 urte bitartean, berriz, %9,1eko igoera izan zen.

Konparazioa eginez, Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioaren kopuruetatik ondorioztatzen denez, 2015ean (eskuratu dugun azken datua) EAE izan zen enplegua sustatzeko fondo gehien erabili zituen autonomia erkidegoa, Estatu osoko %11. Izan ere, garai horretan, Estatuan zegoen langabeziaren %3,8 biltzen zuen (urteko batez besteko datua). Informazio horren arabera, 341,30 milioi euro erabili zituen EAek 2015ean laneko prestakuntzarako, orientaziorako eta laneratzeko, 2014an baino %6,7 gehiago. Kopuru hori, bat ez badator ere, oso hurbil dago LANBIDEk prestakuntzarako eta enplegurako programetan urte horretan erabilitako kopuruarekin (305.639 milioiko gastua, 2014an baino %9,1 gehiago). Langabetu bakoitzeko gastuak gora egin zuen 2015ean 2014aren aldean, %14,1 hain zuzen.

Langileentzako etengabeko prestakuntza hori enplegurako politika aktiboen baitan sartzen da. EAEn, araudiaren eta indarreko eskumenen banaketaren ondorioz, HOBETUZen (Etengabeko Lanbide Heziketarako Euskal Fundazioa) eta estatu mailako FUNDAEren (Enplegurako Trebakuntzarako Estatuko Fundazioa) bitartez kudeatzen dira aipaturiko jarduerak horiek.

2016an (azken datu bateratuak), EAeko 34.486 langileren prestakuntza hartu zuen bere gain HOBETUZek (+%177,6 2015aren aldean), eta horretarako, 19 milioi euroko diru-laguntzak eman ziren (+%487,7). Eta 2014aren aldean (2015.

urtea ezohiko urtea izan zen, ez baitzen eskaintza deialdirik izan) %13,2ko jaitsiera izan da trebaturiko langileen kopuruan eta %11,6ko igoera diru-laguntzen zenbatekoan.

FUNDAEk sustaturiko ekintzei dagokienez, EAEko 135.255 langilek hartu zuten parte prestakuntzako 206.049 ekintzatan (langile berak prestakuntza bat baino gehiago egin dezake urtean), aurreko urtean baino %4,6 gehiago, 17.465 enpresa trebatzailearen lanari esker (2015ean baino -%11,8): enplegurako prestakuntzarako 28 milioi erabili zituzten (-%6,7).

Enplegurako politika pasiboei dagokienez, langabeziaren ziozko prestazioetarako guztizko gastua, 2017an, eta behin-behineko datuen arabera, 606,74 milioi euro da, hots, 2016an baino %13,2 gutxiago. Zenbateko hori EAEn BPGaren %0,82 da (%0,99 aurreko urtean), Estatuko langabeziaren ziozko gastu osoaren %3,47, non 17.507 milioi eurotik gorako gastua bildu baitzen (-%6,6 2016aren aldean).

2017. urtearen bukaeran, langabeziagatik prestazioen 46.890 hartzaile zeuden EAEn, 2016an baino %8,5 gutxiago (aurreko urtearen aldean %12,3ko beherakada izan zen). Horietatik %59,9 (28.073 lagun) kotizaziopeko prestazioen onuradunak ziren, %34,2 subsidioenak (16.021), %5,6k (2.613) Laneratzeko Errenta Aktiboa jasotzen zuen eta gainerako %0,1ek, 183 lagunek, Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa jasotzen zuten. Estatuan, hil berean, 1,89 milioi onuradun erregistratu ziren (-%4,5 2016ko abenduaren aldean), eta kotizaziopeko prestazioaren onuradunen ratioa %40,6 zen, %40,9koa subsidioetarako eta %9,7 gizarteratze errenta aktiborako. Horrez gain, %2,9k Enplegurako Aktibazio Programaren prestazioa jasotzen zuen, eta %5,9k balizko nekazaritzako subsidioa. Erregistraturiko langabeziaren guztizko kopuruak aintzat hartuta, esan liteke, 2017ko abenduan, EAEko 100 langabeetatik 63k ez zuela prestaziorik jasotzen (62k 2016an) eta, jasotzen zuten 37 horietatik 22k kotizaziopeko prestazioa jasotzen zuen, 13k subsidioa eta 2k Laneratzeko Errenta Aktiboa.

Kopuru horiek izanik, Estatuko batez besteko estaldura %58,6 zen (2016ko abenduan baino %2 gehiago), eta EAEkoa baino handiagoa da (lehenago lan eginda zeuden eta hile horretan erregistraturiko langabeen %41,5, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak darabilen metodologiaren arabera). Horrenbestez, autonomia erkidego guztietako langabeziarako estaldura-tasarik txikiena du EAEk, Melillak izan ezik. Hortaz, 2016an bezala, langabeziaren kopuru hobeein batera –lanik gabe daudenentzat- gora egin du langabeziarako babes sistemaren babesik ezak.

Halaber, bere inguruabar sozialengatik eta ekonomikoengatik (gizartean baztertuta edo arrisku horretan egotea) edo ezintasunen bat izateagatik lan-merkatuan berdintasunean sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonentzako enplegu politikaren kopuruak aurkeztuko dira. Helburu nagusia enplegu ordaindua eta pertsonaren nahiz gizartearen ikuspegitik pertsona horiek behar dituzten zerbitzuen prestazio egokiak ziurtatzea da eta, aldi berean, lan araubide arruntean integratzeko bitartekoa izan nahi dute. Hori guztia enplegua, hain zuzen ere, pertsonak gizarteratzeko bide nagusia dela onartuta.

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da 2016ko abenduan, EAEn, orotara 8.959 ezinduk (%64,4 gizonak eta %35,6 emakumeak) 76 Enplegu Zentro Berezitako plantilletan egiten dutela lan. Sexuaren araberako banaketa apenas aldatu bada ere, 330 lagun gehiago zituen taldeak (+%3,8) 2015eko abenduko datuen aldean. Eta zentro horiek mantentzeko laguntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 35,99 milioi euro erabili zituen 2016an (+%36,6 2015aren aldean). Halaber, LANBIDEk 3,99 milioi euro erabili zituen (-%0,3) laneratzeko zailtasun handiak dituzten 4.121 langile ezinduri laguntzeko, laguntza-unitateko 481 adituren lanari esker.

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratzeko modalitate berezi hori hedatzea sustatu nahi du; haren bidez, pertsona bat, besteren konturako langile, bazkide langile edo laneko bazkide, laneratzeko enpresa batean sartzea kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarrenetan, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatetik ondorioztatzen da 2003tik 2016ra bitartean, 98 milioi euro inguru banatu ditu laguntza-lerro horrek, urtean 37 erakunde onuradun batez beste eta 3.000 laneratzeko-langile onuradun. 2016an (informazioa eskuratu dugun azken urtea) 41 laneratzeko enpresentzako laguntzak eman ziren, eta horien zenbatekoa, guztira, 8,177 milioi euro izan zen, aurreko urtean baino %7,3 gehiago.

Soldatei dagokienez, EINen “*Laneko Prezioen Indizeak*” (soilik lan-merkatuaren presioen eraginez lan-eskuaren prezioan izandako aldaketa neurtzen du, betiere eginiko lanaren kalitatean eta kantitatean eraginik izan gabe) erakusten duenez, 2008 eta 2015 bitartean (eskuratu dugun azken datu), soldatek %6,7 egin zuten gora EAEn. Estatuan, berriz, %0,1 jaitsi ziren. Inflazioak 2008 eta 2015 bitartean (Estatuko batez bestekoa +%8,5 da), kopuru horiek adierazten dutenez, EAEn 1,4 puntu egin zuen behera erosteko ahalmenak (8,1 ken 6,7). Estatuan, berriz, 8,2 puntuko jaitziera izan zen (8,1 ken -0,1). Eta eskuragarri dugun azken urtearen bilakaera ardatz hartuta (2015. urtea), LPI %2,9 hazi zen EAEn (+%0,7 Estatuan); izan ere, hazkunderik handiena izan deneko Autonomia Erkidegoa da, eta urte horretan 2,9 puntu berreskuratu dira erosteko ahalmenean (inflazioa %0koa izan baitzen).

Bestalde, OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2017an 38,22 istripu izan ziren (lan-egunetan baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere 1.000 langileko istripu kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatu den kopurua) gure Erkidegoan milako (37,13 milako 2016an eta, beraz, berdin eusten zaio ratioari, +1,09 punturekin). Sektore bakoitzari erreparatuta, eraikuntzan izan zen intzidentziarik handiena (86,27 milako), 5,49 puntu hazi baitzen 2016aren aldean. Ondoren lehen sektorea zegoen, 75,58 milako (-1,29 2016aren aldean) eta industria, 65,29 milako, 1,36 puntu hazita 2016aren aldean. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batez bestekoaren azpitik zegoen, 27,44 milako (+0,85 puntu).

Autonomia erkidegoei dagokienez, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak kalkulatu duen lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, U. Balearrak ziren rankingeko buruan istripuetan, eta ondoren Gaztela-Mantxa zegoen. EAEn indizea 35,06koa zen milako, eta %0,7 egin zuen gora bere indizeak. Hala, Estatuko batez bestekoaren gainetik zegoen kopuru absolutuetan; industriaren sektoreak duen pisu handiak eragin zezakeen intzidentzia hori. Portzentajeetan emana, urte horretako Estatuko batez bestekoa negatiboa izan da, -%0,9.

Horrez gain, lan kontratu motaren arabera lan istripuei buruzko datuek erakusten dutenez, istripuen kopurua handiagoa da aldi baterako kontratu dutenen artean kontratu mugatua dutenen artean baino. Hala erakusten dute Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren 2016ko datuek. Zehazki, kontratu mugagabea zutenen istripu kopurua 29,4koa izan zen mila soldatapeko bakoitzeko (EPAn lan serieak erabiliz); aldi baterako lan-kontratua dutenen artean, berriz, 47,4koa izan zen milako. Istripuen banaketa zein den jakin beharko litzateke sektoreen, adinaren eta okupazio motaren arabera, behin betiko ondorioak atera ahal izateko. Baina ikuspegi dinamikoaren arabera, nabarmentzekoa da kontratu mugagabea eta aldi baterakoa zuten pertsonen arteko istripuen indizea zegoen aldea 26,4 istripukoa zela 1.000 biztanleko 2009an, baina 2016an 18ra murriztu da. Istripuen larritasunari dagokionez, istripu arinek %5,5 egin zuten gora, eta larriek %16,7. Heriotza eragin zuten istripuetan, berriz, %26,5eko murriztapena izan zen. Gainera, ezbeharra izan zuten 4 pertsonatik 3 gizonetakoak ziren.

Bestalde, Lan Harremanen Kontseiluak (LHK) emandako 2017ko behin-behineko datuen arabera, urtearen hasieran EAEn langileen %23k zuen indarreko hitzarmen kolektiboa; %56,2k, berriz, berritzeke zegoen hitzarmena zuen, eta %20,8k agortuta zeukan hitzarmena. Hortaz, negoziazio kolektiboaren estaldura %79,2koa zen (aurreko urtean baino puntu erdi gehiago). Negoziazioei dagokienez, urtean 304 hitzarmen izan ziren, 2016an baino gehiago (28 hitzarmen), baina pertsona gutxiagori eragin zien (95.787). 2016an, berriz, 98.728 ziren. Lurrez lurrez, Estatu mailako 91 hitzarmen erregistratu ziren, eta 213 zuzenean gure Erkidegoan. Orotara, 49.384 eta 46.403 langileri eragin zien.

Horren ondorioz, hauxe da urtearen bukaeran negoziazio kolektiboaren egoera: langileen %39,2k zuen indarreko hitzarmena (%16,2k urtean erregistraturiko hitzarmena zuen eta %23k aurreko urtekoak), %41,5ek luzatuta eta berritzeke zuen, eta gainerako %19,3k agorturiko hitzarmena zuen. Horrenbestez, negoziazio kolektiboaren estaldura-maila %80,7 zen urtearen bukaeran (aurreko urtekoa baino ratio txikiagoa; %82,1 zen orduan). Bestalde, EINen “Lan Kostuen Hiruhileko Inkesta”ko kopuruen arabera 2017an (urteko batez bestekoak) enpresek eta langileek hitzartutako hileko orduen kopurua 147 zen, hots, 2016an baino %0,1 gutxiago, eta 2008an hitzartutakoak baino %3 gutxiago.

Ordu horietatik 122,43 (2016ko datu bera), %83,3 benetan lan egindakoak izan ziren, baina ratio hori 2 hamarretan gutxitu da azken urtean. Halaber, lan egin gabeko orduak 25,1 izan ziren 2017 langile eta hilabete bakoitzeko, hots, 2016an baino %1,3 gutxiago, eta benetan lan egindako orduen %20,5.

Bukatzeko, LKHiren lan-gatazkei buruzko datuen arabera, 2017an guztira 208 greba erregistratu ziren EAEn, eta 59.485 lagunek hartu zuten parte. Orotara, lan egin gabeko 96.371 egun bildu ziren, hots, urte arteko %26,8ko igoera greba kopuruan. Partaideei eta lan egin gabeko egunei buruzko kopuruetan, berriz, %333,1eko eta %65,7ko igoerak izan dira, hurrenez hurren. 2014-2015eko bi urtekoan lan-gatazkek beheranzko joera izan ondoren, 2017. urtean gorantz egin zuen, 2016. urtea bezala, greba kopurua eta gatazkaren intentsitatea handitu baitziren.

IV. BIZI BALDINTZAK ETA GIZARTE BABESA

Bizi Baldintzak EAEn

Krisiaren ondorioz, nabarmen handitu zen pobrezia edo bazterketa arriskuan dauden EBko herritarren kopurua, eta 2012an izan zuen gehienekoa. Egoera horren eraginpean daude gaur egun (2016koa da azken datu eskuragarria) biztanleriaren %23,4, hots, EBko 117,5 milioi herritar, Europa 2020 Estrategian ezarritako irizpideen arabera. Estrategia horri “ARPE tasa” deritzo (population at risk of poverty and exclusion). 2015aren aldean, 3 hamarren egin du behera Batasunerako batez besteko tasak (eraginpeko 1,200.000 lagun), eta, beraz, intzidentzia EBko 7 herrialdeetan besterik ez da handitu. Espainian, 2016ko ratioa %27,9 zen, Europako batez bestekoa baino 4,5 puntu handiagoa (eraginpeko ia 13 milioi lagun baino gehiago), eta 7 hamarreneko murriztapena izan du aurreko urtearen aldean.

EAEn, biztanleriaren %15,9 (EUROSTAT eta EINen metodologiaren arabera) pobrezia eta bazterketa arriskuaren eraginpean zegoen 2016an, bestela esanda, 350.000 lagun (ez dago talde horren banaketari buruzko sexuaren araberako informaziorik), 2015ean baino %1,7 gutxiago. Intzidentzia hori %13,9koa zen krisiaren hasieran (2008ko datua). Nahikoa maila apaletan eusten zaio European, gora egin badu ere, hain zuzen Herbeherearen edo Danimarkaren parean.

EAEn egoera on erlatibo horri buruzko ñabardurak egin daitezke AROPE tasako hiru osagai bakoitzari dagokionez:

1. Adierazle horren osagaiei dagokienez, batetik, 2016an EBko biztanleen %17,2 pobrezia-arriskuan zegoen gizarte-transferentzien ondoren (moneta-pobrezia); egoera horretan daude, zehazki, diru-sarreraren kontsumo-unitateko banaketaren herrialde bakoitzeko medianaren %60tik (pobrezia-atalasea deritzonetik) beherako diru-sarrerak dituztenak. Ehuneko horrek hamarren bat egin du behera 2015aren aldean, eta bost pertsonatik bat baino gehiago dago egoera horretan Errumanian (%25,3), Bulgarian (%22,9), Espainian (%22,3). EAEn, %9ko tasa zen 2016an, eta azken urtean %1,9ko jaitsiera izan du eta hamarren batekoa krisia hasi zenetik hona.
2. Europako populazioaren %7,5eko oinarritzko baldintzak eskuratzeko muga larriak zituen 2016an, zeren eta oinarritzko baliabiderik ezak eragindako bizi-baldintzak baitituzte hala nola fakturei aurre egiteko ahalmenik eza (familien ohiko gastuei dagokienez), etxea bero mantentzeko edo urtean astebeteko oporraldia gozatzeko ezintasuna. Ratio hori 8 hamarren murriztu da azken urtean, eta dagoeneko 2008an zuen %8,5aren azpitik dago. Batasunean, gabezia horren intzidentzia asko aldatzen da herrialdeen artean: Suedian %0,8 dago edo Luxenburgon %1,6, eta beste muturrean Bulgaria, %31,9 edo Errumania, %23,8. Gehienetan, ordea, emaitza hobeak izan dira azken urtean. 2008aren aldean, gabezia larria dutenen proportzioa hazi egin da horretarako datuak dauden 9 herrialdeetan, eta behera egin du 16

herrialdetan. Espainiak %5,8ko tasa du (2015ean baino 6 hamarren gutxiago), eta EAEk %4,2 (%4,6 2015ean). 2008-2016 aldia aztertuta ikusten denez, bilakaera negatiboa izan da, %3,4tik %4,2ra, baina beti eutsi zaie %5etik beherako mailai.

3. EBko biztanleriaren %10,4 lan-intentsitate oso txikiko etxeetan bizi zen 2016an. Hala deritzo familiako 59 urtetik beherako helduek azken urtean beren lan-gaitasunaren %20 erabiltzen dutenean (2015ean baino 2 hamarren gutxiago eta 2008an baino %1,2 gehiago). Grezia (%17,2), Espainia (%14,9) eta Belgika (%14,6) daude Batasuneko rankingeko buruan. Estonian eta Polonian, berriz, %6an inguruan dabilta. EAEko datua %13,7 da, EBko batez bestekoa baino handiagoa (%10,4). Hortaz, AROPE tasaren dimentsio horretan bakarrik dago gure Erkidegoa Europako batez bestekoaren azpitik, baina 6 hamarreneko igoera izan da aurreko urtearen aldean, krisia hasi zeneko %6,5etik oso urruti.

Hobekuntzaren ildo beretik, Eusko Jaurlaritzaren PGDIren 2016ko azken datuen arabera, jaitsiera gertatu da EAEko pobrezia eta prekariedade arriskua 2014aren aldean, baita eraginpeko pertsonen kopuruan ere, baina oraindik ez dira berreskuratu krisiaren aurreko ongizate mailak. Joera orokor on horretan, PGDIk darabiltzan desberdintasun-adierazleek desberdintasunaren jaitsiera antzematen dute EAEn. Hala ere, berriro ez da berreskuratu krisiaren aurreko egoera (gainera, nahikoa maila txikiko errenten desberdintasun mailak dira, bai Estatu mailan, bai Europa mailan):

- ✓ Gini¹⁰ indizeak beste norabide bat hartu du EAEn azken bi urtekoan: 2012ra arte etengabe behera egin ondoren, 1996ko 28,0tik 2008ko 25,2ra eta 25,3ra 2012an, gora egin zuen 2014an 27,1era. 2016an, aldiz, 25,8raino murriztu da koefiziente hori, eta beraz, 2008-2012ko aldiko zenbakiak baino handiagoak ez diren mailetan kokatu da.
- ✓ EAEko %20 aberatsenen sarrerak eta %20 pobreenen sarrerak erlazioztatzen dituen ratioak (S80/S20) behera egin zuen 1996 eta 2008 bitartean, eta berriz ere gora egin zuen 2012an eta nabarmenago 2014an, 4,2raino. 2016an, 3,9raino jaitsi zen ratioa, eta berriz ere 2008-2012ko kopuruak baino ez dira gairiditzen.
- ✓ Bestalde, dinamikarik kezagarriena, 2014ra arte, EAEko baliabide gutxien dituzten pertsonen %10ari dagokion biztanleriaren gutzizko diru-sarreraren zatiaren adierazlea da. 2000ko %3,55etik 2008ko %3,8rra igo ondoren, adierazleak behera egin zuen 2012an, %3,75eraino, eta %3,41eraino 2014an. 2016an, berriz, %3,48raino igo da, eta 2014an gertatu zen bezala, 1996-2012ko datuen azpitik eutsi dio.

Bestalde, EINen “Bizi-baldintzei buruzko Inkesta”ko kopuruek, aurreko urtean moduan, bilakaera desberdina erakusten dute EAEko familien gabezia-adierazleetan:

- Bilakaera ona izan duten adierazleen artean, 2015ean gertatu bezala, behera egin du hilaren amaierara iristeko zailtasunak dituztela dioten familien ehunekoak (%42,1etik %39,9ra), baita etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko gai ez direla diotenenak ere (%7,7tik %7,3ra), “pobrezia energetikoa” deritzona. Hobekuntza hori aitorturiko batez besteko errentekin ere gertatu da: familia errentan nahiz errenta pertsonalean, gora egin du azken urtean EAEn (+%3 eta +%3,7 hurrenez hurren), eta nahiko handiak izatean jarraitzen dute Estatuko gainerakoen aldean.
- Haatik, gora egin du etxebizitzaren ordainketetan atzerapenak dituzten familien ehunekoak (%4,6tik %5,3ra), urtean astebeteko oporraldia ezin har dezaketenenak (%20,3tik %22,4ra), baita ezusteko gastuei aurrera egiteko modurik ez dutenenak ere (%18,5etik %19ra).

Bestalde, nahiz eta fenomeno berria ez den, krisi ekonomikoak gaurkotasuneko gaia bihurtu du bizitegi-bazterketa larria, baita horrek eraginpeko pertsonen herritartasun eskubideetan duen eragina ere. Europar Batasunak onartu duenez, lehentasunezko arazoa da pobrezia eta gizarte bazterketaren kontrako borrokarekin loturiko agenda politikoan Europako 2020 Estrategiaren baitan.

¹⁰Hauxe neurtzen du Gini indizeak: sarrerak banakoen edo familien artean ekonomia baten barruan banantzea zein neurritaraino urruntzen den banaketa ekitatiborako eredutik, halako moldez non 0 indizea ekitate perfektua baita, eta 100 indizea ekitate perfektua.

EAEEn bizi diren eta bizitegi bazterketa larria bizi duten pertsonen kopurua zehazteko, haien ezaugarri soziodemografiko garrantzitsuenak, bizi-baldintzak eta bizi-ibilbideak zein diren jakiteko, Eusko Jaurlaritzak 2016an "EAEEn bizitegi bazterketa larria bizi duten pertsonen inguruko III. azterlana" egin zuen. Horri esker, aurreko bi azterlanetako emaitzak eguneratu ahal izango dira, 2012an eta 2014an eginikoak, eta Memoria honen 2015eko edizioen aurkeztuak. Hona hemen emaitza nagusiak:

- EAEEn etxerik gabe ikusitako pertsonen profila 2016an, funtsean, hau da: 45 urtetik gorako gizonezkoa eta espainiar nazionalitatekoa (kasuen %22,1ean), eta bigarrenik ere gizonezkoa izango litzateke, baina gazteagoa (30 urtetik beherakoa) eta atzeritar nazionalitatekoa (kasuen %20,8an). 2012aren aldean, arestian esan dugunez, nolabaiteko zahartze-prozesua antzematen da taldean, baita atzeritar jatorriko biztanleen pisuaren beherakada ere.
- Ikasketa mailak apenas izan du aldaketarik ondoz ondoko zenbaketetan. Ia %60k ez du ikasketarik edo gehienez oinarrizko ikasketak lortu ditu (%58k 2016an). %34k, berriz, bigarren mailako ikasketak ditu, eta %5ek besterik ez goi-mailako titulazioak.
- Etxerik ez dutenen egoeraren iraupena dela-eta, bilakaeraren datuek agerian uzten dutenez, igoera izan da etxerik gabekoen ibilbide luzeetan: inkestaturiko pertsonen %28k 5 urte edo gehiago daramatza etxerik gabe, 2012an baino ehuneko 6 puntu gehiago. Hala ere, nahikoa egonkor eusten dio bizitegi bazterketan dauden pertsonen ehunekoak orain dela urtebete baino gutxiagoko tartean (%30).
- Etxerik gabeko pertsonen lan-egoerari dagokionez (ez dugu beste urte batzuetako daturik), langabezia-tasa %83,9an kokatzen da (%12,6 biztanleria osoan, 2016ko laugarren hiruhilekoko BJArean arabera), eta nahitaez pertsona horien erdia landuntzat jotzen diren (%49,8), %8k bakarrik du enplegu erregularra (biztanleria osoaren %49,3). Sarrera-iturri nagusia laguntza publikoak dira (%53,8), eta DBE da neurri handiagoan jasotzen duten diru-laguntza (%21,5). Hala ere, %32k ezagutzen ditu laguntzok, baina ez ditu inoiz eskatu, eta %20k ez ditu ezagutzen. Beste sarrera-iturri batzuk dira honako hauen ondoriozkoak: lanekoak (%18,6), laguntzako gizarte-sarekoak eta hirugarren sektoreko erakundeetakoak (%14,7 kasu bietan). Aldi berean, %8,3k dio sarrera-iturri nagusia eskean ibiltzeari dagokiola (askotariko erantzuna). Horrez gain, etxerik gabeko 10 pertsonatik ia 2k ez du diru-sarrerarik eta %63,9 pobrezia larrian dago (tasa orokorra %4,9 da).
- Bizitegi bazterketak dakartzan kasuak aztertzean, faktore estrukturalak nagusi direla esan beharra dago (inkestaturikoen %56,3k aipatua, askotariko erantzunen galdetegian), laneko arazoak, ekonomikoak... eta arazo pertsonalak (%28) –adizioak, osasuna, etab.-.
- Azkenik, kalean lo egiteak arrisku handiagoa dakarkie era guztietako irainak, lapurretak eta erasoak jasateko, eta emakumeak dira kaltetuenak. Sexuaren araberako diferentzia nagusiak sexu-erasoetan izaten dira: inkestaturiko emakumeen %20k jasan ditu horrelakoak. Galdetegiari erantzun dioten gizonen %2k besterik ez du horrelakorik pairatu, baina eraso fisikoak oro har nahikoa ugariak dira, emakumeen (%30) nahiz gizonen (%20) artean.

Bestalde, EAEko familia-sistemen tipologia asko aldatu da azken hamarkadetan, demografia, gizarte eta kultura prozesuen ondorioz. Aldaketa nabarmenen artean, hauek daude: etxe-moten aniztasun gehiago; batez besteko tamainaren murrizketa; aldaketa handiak etxe horietako erreferentziazko pertsonen profilean; etxean dauden adingabeen proportzioaren murrizketa eta menpekotasun-egoeren areagotzea. Aldaketak gorabehera, familiak pertsonen bizitzaren ardatza izateari eusten dio. Eusko Jaurlaritzaren Ikerketa Soziologikoko Kabinetearen 2012ko edizioako "Familia EAEEn" txostenak erakusten zuenez, elkarriketaturiko pertsonen %96k uste zuen familia oso edo nahikoa garrantzitsua dela, beste alderdi batzuen gainetik adibidez aisialdia (%93), lagunak (%92) edo lana (%91).

Azken urteotan, familian izandako eraldaketek eta ugalkortasun-tasetan izan duten inpaktuak interes publiko handiagoa piztu dute, horrek dakartzan ondorioak direla medio. Seme-alabak izateko adinik ugariak eta lanean sartzeko eta promozionatzeko adinak bat datozenez gero, emakume gazteak oso egoera zailean daude seme-alabak izateko erabakia hartzeari begira. 2016ko Soziometroaren arabera, elkarriketaturikoen %44k uste du seme-alabak izateak nahikoa oztopatzen duela emakumearen ibilbide profesionala (%45ek 2014an), eta %26k "asko" oztopatzen duela deritzo (%22k 2014an). Aitzitik, gizonen artean, galdetutako pertsonen %13k baino ez du nahiko oztoporik edo oztopo askorik ikusten ibilbide profesionalen seme-alabak izateagatik.

Halaber, EUSTATEk “*Lana eta bizitza pertsonala eta familia bateratzeari buruzko inkesta*” egiten du (LBI), eta 2016ko emaitzetan nabarmentzen denez, lehenik eta behin, etxetik kanpora lan egiten duten emakumeek, gainera, egunean %40-45 ordu gehiago ematen dituzte seme-alaba adingabeak eta mendetasunean bizi direnak zaintzeko gizonaek baino, eta %67 denbora gehiago etxeko lanetan. Gizonaek, ordea, 3,3 ordu erabiltzen dituzte egunean-egunean adin txikikoak zaintzeko; emakumezkoek, ordea, 4,7 ordu. Alde hori handiagoa da (%45) menpeko pertsonen zaintza kontsideratzen badugu; izan ere, gizonaek egunean 1,1 ordu ematen dute jarduera horretan eta emakumeek, berriz, 2,7 ordu. Horrez gain, etxeko lanetan, emakumeek 2 ordu ematen dituzte batez beste egunean, eta gizonaek, berriz, 1,2 ordu.

Beren gain hartutako kargen inguruko desberdintasun horrek ondorioak dakartza etxeko lanen banaketarekiko gogobetetasunean, zeren eta emakumeek, batez beste, 6,3ko gogobetetasun-maila adierazten baitute 10etik, ezkontideak edo bikotekideak etxean egiten dituen lanen gainean; gizonaekoen kasuan, berriz, 7,7koa da.

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, markoari lerrun juridiko handiagoa emateko eta familia politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizikaltatea hobetze aldera. Familientzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren I. Familia Planarekin. Harrezkero, 2015era arte, 640 milioi euroko gastuak izan dira laguntza horietan, gutxi gorabehera erdibana banatuta jaiotza, adopzio edo aurre-adopzioko harrerarako laguntzen eta bateratzeko laguntzen artean.

III. Familia Planaren indarraldia bukatuta (2011-2015), Lan eta Gizarte Politiketako Sailak, 2017an eginiko ebaluazioan aitortzen duenez, aurrerapen gutxi izan da Planeko neurrien betetze-mailan. Eta emandako laguntzen kopuru zehatzei dagokionez, planaren indarraldian 133,3 milioi euro erabili dira seme-alaben jaiotzagatik eta mantenuagatik, hain zuzen ere guztira 157.738 espedientetan. Uztartzeko laguntzek, bestalde, 136,3 milioi euroko gastua ekarri dute, eta guztira 97.086 onuradun izan dira. Espedienteen aldetik nahiz gastuaren aldetik, adingabeak zaintzeko bateratze-laguntzei dagokie %96 eta, beraz, presentzia txikia dakar berekin beste bi lerroetan (menpekoak zaintzeko bateratze-laguntzak eta zaintzaileak kontratatuzko laguntzak). Laburbilduz, aztertutako familientzako laguntzen bi lerroetan, 2011-2015 aldian 270 milioi euroko gastua izan da, gutxi gorabehera %50a bakoitzean.

Era berean, nabarmendu behar da ezen, plana indarrean izan den aldian, emakumeak %90 baino gehiago direla adingabeak zaintzeko laguntzetan eta %80tik gora mendekoak zaintzeko laguntzak direnean.

Ebaluazio hori abiapuntua izan da familien gaineko politikei buruzko gogoeta prozesuan, hain zuzen plan berria egite aldera. Familiaren Euskal Kontseiluak, 2017ko abenduan, “*Familien eta Haurren Aldeko Ituna*” adostu zuen, eta ondoren, 2018ko urtarrilean, EAEko administrazioen multzoak izenpetu zuen. Diagnostiko partekatuan dago oinarrituta ituna, non funtsezko bi fenomeno estruktural antzematen diren: familia-proiektua abiaraztea eta nahi duten seme-alaba kopurua izatea zailtzen duten eragozpenek bere horretan jarraitzea eta, familien gabezia ekonomikoen ondorioz, desberdintasunak belaunaldi batetik bestera igarotzeko prozesua hausteko zailtasunak. Itun hori zehaztu egingo da gobernua lantzen ari den “*Familiei Laguntzeko V. Plana*” deritzonengan.

EAEko Gizarte Babesa

Hasteko eta bat, EUSTAT erakundearen 2016ko “EAEko Gizarte Babesari buruzko Kontua” delakoaren arabera, Euskadin helburu horretako guztira erabili ziren baliabideak 17.260 milioi eurokoak izan ziren lehen aipatutako urtean, hau da, 2015ean baino % 1,9 gehiago. Esandako kopurua urte horretako BPGaren % 24,4 izan zen (%4,6ko hazkundera 2008ko urtearen aldean), behin-behineko datuen arabera. Gizarte babesaren gastuak etengabe egin du gora eskuragarri dugun urteetako seriean, eta biztanleko gastua 6.402€ izan zen 2008an. 2016an, berriz, 7.940 (+%24). Horrez gain, EUROSTATen azken datuak izanik, 2015ean gizarte babeseko per capita gastua EAEn, erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtua, 8.519 euro izan zen, EBko batez bestekoaren gainetik (7.937 euro 2014an, eskuratu dugun azken datu banakatua), baita Estatukoaren gainetik ere (6.263 euro).

Bigarrenik, 2017. urtean, milioi erdi pertsona baino gehiago (555.287, lehen zenbatespenaren arabera) Gizarte Segurantzaren pentsio-sistemaren onuradun izan ziren gure autonomia erkidegoan (kontribuziozkoak eta ez-kontribuziozkoak). Kopuru hori aurreko urtekoa baino % 1,4 gehiago da, eta aurreko urtean ere % 1,3 hazi zen. Azken urteetan gertatu den bezala, hazkuntza hori kotizaziopeko pentsioen onuradunak diren pertsonen bilakaeragatik izan da; izan ere, beste modalitateetan oro har murrizteko joera izan du. Hala, Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen ehunekoa 25,5era heldu zen.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (prestazioen %97,7 eta gastuaren %99,3 dira), onuradunen batez besteko kopurua 543.700 izan zen (+%1,3) 2017an, eta urteko gastua 8.501,7 milioikoa, 2016an baino %3,4 gehiago. Bestalde, kotizaziopekoak ez diren pentsioek 11.587 lagunengatik gastua estaltzen zuten 2017an, guztira 59,5 milioi inguruko gastuak. Azken batean, gora egin zuen pentsioen gastuak EAEn 2017an, behin-behineko datuekin, orotara 8.561,2 milioi euro, hots, %3,4ko igoera 2016aren aldean, halako moldez hamarren batean jaitsi baita BPGan duen portzentajea, %11,6raino hain zuzen.

Gizarte Segurantzaren pentsioen ziozko gastua Euskal Autonomia Erkidegoan eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketaren zenbatekoak erkatzen baditugu 2016. urteari dagokienez horixe baita aipatutako bi datuak eskura ditzakegun azken urtea gure zenbatespenen arabera, gastua 8.223 milioi eurokoa izan zen; sarrerak, berriz, 6.592,8 milioi eurokoak. Beraz, saldoa negatiboa izan zen, 1.630,2 milioi eurokoa eta aurreko urtean ere negatiboa izan zen, 1.460,4 milioi eurokoa 2015ean.

Bestalde, Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtsezko prestazioa Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) izeneko da, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak ezarritakoari jarraiki.

DSBEren bizikidetzaren unitate hartzaileen kopurua, 2017an, 60.405 da (abenduko datua, hots, 108.524 onuradun). Hala, 15 urtez etengabeko hazkundera izan ondoren (1999 eta 2014 bitartean), hirugarren urtez behera egin du, azkenean %5,3.LANBIDEren 2017ko espediente aktiboen fitxari esker, jakin badakigu %42,9 gizonezkoak zirela eta %57,1 emakumezkoak. Onuradun gehien biltzen dituen adin-tartea 40-59 urte bitartekoa da (guztizkoaren %37,4), eta nabarmenezkoa da ere 4.631 jasotzailek 30 urte baino gehiago dituztela. Bizikidetzaren unitate hartzailea den pertsona titularraren profila hau da: espainiar nazionalitateko emakumea, 40 urtetik gorakoa eta oinarrizko ikasketak dituen. Prestazioa jasotzen duten atzerriarrak guztien %27,3 dira (%27,7 2016an), eta hartzaile titularren %25,7 pentsiodunak dira (%24,8 2016an). Horrez gain, unitate hartzaileen %19,9 DSBE jasotzen dute soldata-errenten osagarri gisa (EPO), 27.917 bizikidetzaren unitatek jasoa, guztien %46,2k. Aldi berean, 9.338 lagunek guraso bakarrak izatearen ziozko osagarria jasotzen dute (%15,5).

2017ko maiatzean, eta "Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta hobetzeko oinarrizko dokumentua"ren baitan, Eusko Jaurlaritzak prestazio horri buruzko inkesta baten emaitzak argitaratu zituen, herritarrek diru-sarrerak bermatzeko sistemari buruz duten irudipena zein den jakiteko egina. Lehenik eta behin nabarmendu behar da euskal herritar gehienek ezagutzen duten prestazioa dela (%86k izan du horren berria), baina datu hori ez dator bat laguntza eskatu beharko luketen tokia zein den dakitenen portzentaje txikiarekin; izan ere, inkestaturikoen %24,8k besterik ez daki nora jo beharko luketen diru premia izanez gero. Horrez gain, kontsultaturiko pertsonen %41ek ez daki DSBEren egungo onuradunen kopurua handiagoa edo txikiagoa izan daitekeen. Errenta osagarriari dagokienez, kontsultaturiko pertsona gehienak -%82 eta %90 hurrenez hurren- soldata edo pentsio txikia jasotzen dutenei DBSE ematearen alde agertu dira. Horrez gain, kontsultaturiko pertsonen %41ek ez daki DSBEren egungo onuradunen kopurua handiagoa edo txikiagoa izan daitekeen.

2010ean, Etxebizitzaren Prestazio Osagarria (EPO) abian jarri zen, arestian aipatu dugun 18/2008 Legea garatzeko. Haren helburua Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri diren prestazio ekonomikoen sistema egituratzea da, biztanleriako talderik ahulenei etxebizitzaren inguruko gastuak ordaindu ahal izan dezaten. Indarraldiko lehen urtean (2010), guztira 50 milioitik gorako gastua izan zuen EPOk, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2016ko 91 milioi euroraino (orain arteko handiena).

2017an 86,72 milioi euro erabili ziren prestazio horretarako, aurreko urtean baino %4,7 gutxiago. Titular hartzaileen kopuruari dagokionez, 2017ko abenduan DSBEn 27.917 bizikidetz-unitate onuradunek gainera EPO jaso zuten (aurreko urtean baino %5,2 gutxiago).

Era berean, EPO abian jarri ondoren, Gizarte Larrialdiko Laguntzak (GLL), Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren hirugarren tresnak, bere jatorrizko helburua berreskuratu zuen (hau da, oinarritzko beharizan espezifikoei aurre egitea, batez ere etxebizitzarekin zerikusia dutenak, gizarte bazterketako egoerak prebenitzeko, ekiditeko edo leuntzeko gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez daukaten pertsonen egoera zehaztuz sortzen zaizkienak) eta bere aurrekontu partida nabarmen murriztu zen: 2016. urtean (informazio kontsolidatua daukagun azken urtea) laguntza horretarako 33,35 (+19,9 2015aren aldean) milioi euro bideratu ziren. 2017an guztira 28.882 kontsumo-unitate hartzaile zenbatu ziren, 2016an baino %6,6 gutxiago, eta orotara 43.813 laguntza eman ziren hainbat kontzepturengatik, hala nola oinarritzko beharrak (9.157 laguntza), alokairua (8.469) edo interesen amortizazioa (1.347), hots, laguntza bakoitzeko batez besteko zenbatekoa 761 euro da (+%13 2015aren aldean

Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, 2017an, 501,8 milioi euro gastatu zituen orotara, aurreko urtean baino %4,6 gutxiago. Honelaxe daude banatuta: 381,71 milioi DSBeri dagozkio (guztien %76,1, eta 2016an baino %4,9 gutxiago), 86,72 milioi EPOrako (guztien %17,3 eta 2016an baino %4,7 gutxiago), eta eginiko zenbatespenen arabera, Sistemaren gastu agregatua kalkulatzeko aldera, 2016an GLLrako emandako 33,4 milioiei eutsi egin zaie 2017an (Sistemako guztien %6,7), laguntzari buruzko datu ofizialak izan arte. Konparazioa egiteko aldera, Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioaren "Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostena"ri esker, autonomia erkidegoetako sarrerak bermatzeko sistemak kopuru handien konparaziozko segimendua egin daiteke, betiere era askotako araudiak eta sistemak garatzeko maila ezberdinak daudela kontuan izanik.

2015eko txostenaren arabera (ezin izan da eguneratu 2016ko gure memoriako informazioa), aurreko gure Erkidegoak urteko 6.075,42 euroko gastua zuen prestazio horien titular bakoitzeko. Estatuko batez bestekoa, berriz, 3.575,52 da (%70 gehiago), eta 36,71ko estaldura-tasa mila biztanleko (Estatuko batez bestekoa 7,75 da). Azterlanaren arabera, gure Erkidegoak 2015ean Estatuan prestazio horietarako emandako funts guztien %35,9 erabili zuen DSBerako gehi EPO, autonomia erkidegoen arabera. Euskal biztanleriak Estatu osoan duen pisuaren arabera egokitu beharko litzaiokeena baino askoz portzentaje handiagoa da; izan ere, %4,7koa da aipaturiko urtean.

Aldi berean, pobrezia eta bazterketaren kontrako ondoko ondoko planak egin izan ditu Gobernuak, pobrezia eta gizarte bazterketaren kontrako borrokaren oinarriak finkatzeko eta araudi hori garatzeko abiarazi beharreko neurriak eta helburuak egituratzeko. 2017an, Gobernuak 2012-2016ko Gizarteratze Aktiborako III. Plana ebaluatu du, IV. Plana egiteko abiapuntua den aldetik. Ondorioztatu duenez, ez dira helburuak bete, baina haren neurrietako asko garatu egin dira eta eragin ona izan da pobrezia prebentzioaren eta gutxiaren aldetik. Alabaina, III. Plana ez da nahikoa izan gizarteratzeko politiken erakundearen arteko artikulazioaren ikuspegitik. 2017-2021eko Gizarteratze Plan berria lau helburu zehaztu dira:

- ✓ Enplegua: enpleguaren prekarizazio prozesuari aurre egitea eta aurrezaintza lana egitea, gazteen edo lana aurkitzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen laneratzeko bultzatzea eta enplegurako euskal sistemaren hobekuntza aurrera egitea.
- ✓ Sarreraren bermea: diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduaren zaintza eta hobetzea, gizartean duten legitimitatea eta iraunkortasun ekonomikoa bermatzeko.
- ✓ Gizarte zerbitzuak: Gizarte Zerbitzuen Legearen garapena bultzatzea, halako moldez non eraginkorra izango baita herritar guztiek gizarte zerbitzuak eskuratzeko duten eskubide subjektiboa, gizarte zerbitzuen sistema Planean aipaturiko oinarrietara egokitzea kontzeptuen aldetik eta gizarteratzeko programa berriak bultzatzea herritarren eta gizartearen partaidetzaren ikuspegitik.
- ✓ Etxebizitza: gizartean baztertuta edo arrisku horretan daudenen etxebizitza eskuratzeko modua erraztea, etxebizitza izateko eskubide subjektiboa garatuz eta bizitegi bazterketako egoerei aurre egitea eta aurrezaintza lana egitea.

IV. *Gizarteratze Plana* abiarazteko, 4.000 milioi euroko aurrekontua dago, eta horren jarraipena egingo da Memoria honen geroko edizioetan.

Bestalde, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak gizarteratzea bultzatzeko eginiko ekimenen barruan, Hirugarren Sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzen programa burutzen da gizarteko esku-hartzearen eremuan. Horretarako, 2016an (informazioa dugun azken urtea) diru-laguntzak eman ziren hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko gizarteko esku-hartzearen eremuan, orotara 4,34 milioi euro, aurreko urtean baino %7,7 gutxiago. Laguntza horietatik 3,74 milioi, %86,2, “gizarteko esku-hartze” lerrorako erabili ziren eta gainerako %13,8 (600.000 euro inguru), “elkartegintza indartzeko”.

2007ko Mendetasunaren Legea ezartzeari dagokionez, IMSERSOren 2017ko abenduaren 31ko azken datuek erakusten dutenez, aipaturiko data horretan, EAEk 99.245 balorazio-eskabide zituen erregistraturik Mendekotasunaren Arretarako Sisteman. Horietatik (gainerako erkidegoetan bezala) gehienak mendekotasun-gradua aintzatesteko berrikuspenei dagozkie. Eskabideen kopuruak EAEko biztanleriaren %4,52ko ratioa du (+0,11 puntu aurreko urtearen aldean. Eskabide horiek, gainera, Estatuan erregistraturikoen %5,8 dira, noiz-eta gure Erkidegoko biztanleria %4,71 denean. Hurrengo adin-talderik handiena emakumearena da (%64,3), 80 urte edo gehiagoko adinarekin (eskabideen %54,3). Eskatzailearen profila emakumea da (%64,3), 80 urte edo gehiagokoa (eskabideen %54,3). Hurrengo adin-talde nagusia 65 eta 79 urte bitartekoena da, eskabide guztien %20,8. Erregistraturiko 99.245 irizpen-eskabideetatik %99,34k irizpena jasota zuten ordurako (%92,98 batez beste Estatuan) eta 76.344 lagunek, irizpena jasotako kasuen %77,73k, prestaziorako eskubidearen aintzatespena jaso zuten.

Halaber, aipaturiko datuan, 76.543 prestazio egin ziren (+%10,5 2016aren aldean), eta horietatik %43,52 Senideak Zaintzearen ziozko Prestazio Ekonomikoari dagozkio (Estatuko batez bestekoa baino handiagoa den ratioa, %32,7koa baita), %16,65 Egoitzako Arretari, %12,14 telelaguntzako zerbitzuari, %9,36 eguneko/gaueko zentroetako zaintzei eta %8,86 etxez etxeko laguntza zerbitzuari, prestazio eta zerbitzurik garrantzitsuenak aipatzearen. Prestazio horiek 62.070 onuradunei dagozkie (1,23ko prestazioko ratioa dago pertsonako, zeren eta pertsona batek zerbitzu edo prestazio bat baino gehiago jaso baititzake), aintzatesitako prestazioa jasotzeko eskubidea duten 76.344 lagunen %81,3 (%77,5 2016an).

Kopuru horien osagarri, “*Mendekotasunaren Espainiako Behatokia*”ren (Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Gerenteen Espainiako Elkarteko kideek osatua) txostenei esker, mendekotasunaren arretarako sistema hedatzeko lanbide-balorazioaren jarraipena egin daiteke Mendekotasunaren Legea oinarri hartuta, autonomia erkidegoen arabera. Azkenak erakusten duenez, 2017ko abenduko datuekin, EAEk garapen handiagoa du beste autonomia erkidego batzuek baino, baloraturiko pertsonen ehunekoaren aldetik nahiz emandako prestazioen aldetik.

Behatokiak IMSERSOren informazioa oinarri hartuta 2017rako egiten duen ebaluazioan nabarmentzen duenez, EAEn hobetu egin da sistema azken hiru urteetan, onuradun gehiagoren kopurua handituta, Estatu mailako hazkundearen ildotik. Alabaina, eskaintako arreta berrien ardatza kostu txikiko zerbitzuak izan delako kritika egin da hala nola telelaguntza eta senideak zaintzeko prestazio ekonomikoa. Hala, hazkunde-tasa oso txikiak izan dira, ordezen-tasa hutsak, kostu handiagoko gainerako prestazioak hala nola eguneko zentroak edo II eta III. Graduetako egoitzetako plazak. Zerbitzuen zorroan, etxez etxeko laguntza guztizkoaren %9 besterik ez da (%16 Estatuko batez bestekoa). Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa, aldiz, %8rainokoa da haren zerbitzuen zorroan (Estatuan, berriz, %1 besterik ez da).

Bukatzeko, EAEko borondatezko gizarte aurreikuspenen sistemaren bilakaeraren balantze gisa, hauxe aipatu behar da: Eusko Jaurilaritzako Ogasun eta Finantza Sailak jakinarazi duenez, 2017ko abenduaren 31n (behin-behineko datuak) EAEk 80 BGAE zituen, horietatik 45 banako BGAEak dira, 33 banakoak eta 2 elkartuak. Elkartuetakoen erdia baino gehiagok, %59k, banako BGAE zuen, eta ondoren enpleguak, elkarturikoen %40,8 hain zuzen ere. Ondareari dagokionez, %50ean banantzen da bi modalitateen artean, baina ordaindutako prestazioak gehienbat enplegu erakundeetan metatzen dira (guztizkoaren %65,5), eta bigarren tokian banakoak (%34,5). Kuotak, azkenean, gehienbat banako BGAEei dagozkie (guztizkoaren %60,3), eta gainerakoa enplegukoei (%39,6).

Kuotak edo ekarpenak 2017an 675,16 milioi euro izan ziren orotara, eta %0,5 egin dute gora 2016aren aldean. Bestalde, atxikipenak, 1,127 milioi, jaitsi egin dira azken urtean, gutxi bada ere (-%0,8). Aldi berean, ordaindutako prestazioak 620 milioi eurotik gorakoak dira, hots, 2016an baino %4,4 gutxiago. Halaber, 2017an orotara 161,7 milioi euro erreskatatu ziren; aurreko urtean, berriz, 181,4 milioi euro eta, beraz, %10,9ko jaitsiera da.

V. BIZI-KALITATEA

Hezkuntza eta kultura

EUSTATen arabera, 375.439 ikasle matrikulatu dira EAEn unibertsitatekoa ez den araubide orokorreko irakaskuntzan (helduentzako hezkuntza eta araubide bereziko irakaskuntzak kanpo utzita), 2017/18 ikasturtean. Horrek esan nahi du %0,5eko hazkundea egon dela aurreko ikasturtearekiko.

Hezkuntza Berezia alde batera utzita dugun matrikulazioko datuei helduta eta mailen arabera berezita, hauxe ikusten dugu: mailarik baxuenetan (haur eta lehen hezkuntza) 218.680 ikasle daude matrikulatuta: 88.191 ikasle Haur Hezkuntzan (-%3,2) eta 130.489 ikasle Lehen Hezkuntzan (+%0,7, aurreko urtean izandako hazkundeari gehituta; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan 83.286 (+%2,3) eta Oinarrizko Lanbide Hezkuntza berrian, 2015/16 ikasturtean Hasierako Lanbide Prestakuntza Programa (HLPP) tokia hartu zuen horretan, 4.584 ikasle (+%4,5).

Derrigorrezko Irakaskuntzaren Ondorengoari dagokionez, Batxilergoan 30.574 pertsona matrikulatu dira eta 14.827 pertsona gradu ertaineko LHn. Gradu ertaineko LHn izandako hazkundea (%2,7) Batxilergoan erregistraturikoa baino handiagoa da (%1,1). Bestalde, goi-mailako graduko LHn 20.065 lagun matrikulatu dira, aurreko ikasturtean baino %5 gehiago.

Lanbide heziketetan sakonduta, EUSTATen arabera, hona hemen 2016-17 ikasturtean ikasleen kopururik handiena bildu duten gradu ertaineko lanbide-taldeak: Osasuna (%16), Fabrikazio Mekanikoa (%14,1), Elektrizitatea eta Elektronika (%9,2), Garraioa eta Ibilgailuen Mantentzea (%8,3), Administrazioa eta Kudeaketa (%7,5) eta Instalazioa eta Mantentzea (%7). Goi-mailako tituluen artean, hauexek nabarmentzen dira: Fabrikazio Mekanikoa (%13,9), Elektrizitatea eta Elektronika (%11,6), Administrazioa eta Kudeaketa (%11,3), Gizarte-kulturako Zerbitzuak eta Komunitatearen Aldekoak (%10,7), Informatika eta Komunikazioak (%8,9), Osasuna (%6,7) eta Instalazioa eta Mantentzea (%6,4).

Emakumeen partaidetza oso handia da honako hauetan: Irudi pertsonala (%94,1 maila ertainean eta %96,7 goi-mailakoan), Ehungintza, ebaketa eta larrugintza (%88,4 goi-mailakoan), Kultu zerbitzuak eta Gizarte zerbitzuak (%77,2 maila ertainean eta %78,3 goi-mailakoan), Osasuna (%74,9 eta %73,7, hurrenez hurren), Elikagaien industriak (%61,9 eta %66,7) eta Administrazioa eta Kudeaketa (%60,4 eta %62,9). Eta gizonaren parekoa Merkataritzan eta marketinean (%53 eta %47) eta Kimikan (%52,9 eta %50,9). Emakumeek lanbide-ikasketetan duten partaidetzak gizonezkoenak baino txikiagoa izaten jarraitzen du (maila ertainean %35,1ekoa da eta goi-mailakoan %35,6koa). Gizonezkoenak, berriz, %64,9 eta %64,4 dira. Halaxe gertatzen da emakumeen matrikulazioa oso txikia delako profil teknikoagoko lanbide-adarretan. Hala, Elektrizitatean eta elektronikan, Fabrikazio mekanikoan, Garraioetan eta Ibilgailuen mantentzean eta Instalazioan eta mantentzean %10 besterik ez da emakumeen matrikulazioa kasurik onenean.

Unibertsitateko ikasketei dagokienez, 2015-16 ikasturtean 66.830 ikasle zeuden matrikulatuta EAEko unibertsitateetan, hots, %0,3ko jaitsiera aurreko ikasturtearen aldean. Ikasleen %75,2 unibertsitate publikora doa eta %24,8, berriz, unibertsitate pribatuan matrikulatu da. Bestalde, sexuaren araberrako banaketak emakumearen aldeko diferentzia erakusten du unibertsitatean (%52,7 emakumeak dira). Alabaina, Lanbide Heziketako matrikulazioan gertatzen den bezala, emakumeek unibertsitateko adar teknikoetan (Ingeniaritza eta arkitektura) duten presentzia txikiagoa da gizonezkoena baino (%28,3 eta %71,7).

Unibertsitateko graduazioaren arloan, %2,7ko igoera erakusten dute datuek, orotara 13.654 lagun, eta horietatik %55,2 emakumeak dira.

Graduko ikasketei dagokienez¹¹, ikasle gehienek Gizarte Zientzien eta Zuzenbide Zientzien adarrean graduatu ziren (%50,4), eta ondoren %21,6arekin Ingeniaritzan eta Arkitekturan. Neurri txikiagoan hauexetan: Osasunaren Zientziak (%14,1), Arteak eta Giza Zientziak (%8,2) eta Zientziak (%5,7). Ez dago titulazio bikoitza duen graduaziorik. Sexuaren arabera diferentziak ageri dira ikasketa-arloa aukeratzean, eta emakumeek gehienbat Gizarte eta Zuzenbide Zientzien barruko programak nahiago dituzte ingeniartzakoen aldean, Osasunaren Zientziak eta Gizarte Zientziak irakaskuntza teknikoaren aldean.

Hezkuntza-adierazleei dagokienez¹²:

- Eskolaratze-tasa:

EUSTATen datuek erakusten dutenez, alde batetik, ia erabatekoa da eskolaratzea nahitaezko irakaskuntzetan edo orokorretan eta lanbide hastapenekoetan (%100 6-15 urtekoen artean eta %98 ingurukoa 16-17 urtekoetan). Bestalde, oso handia da prestakuntza arautuko sisteman jarraitzen duten gazteen portzentajea adin aurreratuetan, baina ratioa jaitsi egiten da adinean gora egin ahala.

“HKMren Espainiako hezkuntza zenbakitan. 2018ko edizioa” deritzon txostenaren arabera, 16, 17 eta 18 urtekoen eskolaratze-tasak handiagoak dira 2015-16 ikasturtean EAEn estatuko batez bestekoak baino. 16 urterekin (%99,2 eta %95,5), 17 urterekin (%97,9 eta %89,6) eta 18 urterekin (%90,6 eta %80,3). 28ko EBko estatu kideekin erkatuta, EUROSTATen arabera, EAE bosgarren tokian dago 16 urtekoen eskolaratze-tasan, Suedia, Danimarka, Irlanda eta Poloniaren atzetik, eta 17 eta 18 urtekoetan, berriz, zortzigarren tokian. 17 urterekin, hauexen atzetik: Danimarka, Erresuma Batua, Suedia, Polonia, Errumania, Irlanda eta Luxenburgoko; eta 18 urterekin, Errumania, Eslovakiar Errepublikak, Holanda, Erresuma Batua, Irlanda, Danimarka eta Hungariaren atzetik.

- Irakasle bakoitzeko ikasle kopurua, lanaldi osoaren pareko lanaldiarekin.

HKMren arabera, 2014-15 ikasturtean, EAEko unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko lanaldi osoaren pareko lanaldiko irakasle bakoitzeko ikasleen batez besteko kopurua alderatzen badugu, ratio txikiagoa zen EAEn estatuan baino (12,1 eta 12,5) Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Batxilergoko eta/edo LHko eta Hezkuntza Bereziko zentroetan, baina DBH ematen den ikastetxeetan eta hezkuntza berezietan ratorik txikiena Estatuari zegokion.

Iturri beraren arabera, Espainiako ratioa ELGAko batez bestekoak baino txikiagoa da hauexetan: 13,7 ikasle irakasleko Lehen Hezkuntza, 11,9 Bigarren Hezkuntzako 1. etapan, 11,1 Bigarren Hezkuntzako 2. etapan eta 12,7 Goi Mailako Hezkuntzan.

- Hezkuntzako gastu publikoa administrazio motaren arabera.

HKMren datuen arabera, Hezkuntzako gastu publikoa, 2016an, 47,189,7 milioi eurokoa izan zen Estatuan (finantza-kapituluak kenduta eta, horri esker, gorabeherak kendu eta nazioarteko konparazioa egin daiteke), hots, BPGaren %4,1.

Hezkuntzako gastu publikoa, 2015ean, BPGaren %5,1 izan zen 28ko EBn, estatuko %4,2koaren gainetik. Honatx ratorik handienak dituzten herrialdeak: Suedia (%7,2), Finlandia (%6,8), Belgika (%6,5), Zipre eta Malta (%6,1 bakoitza), Erresuma Batua (%5,9), Frantzia eta Holanda (%5,5) eta Austria (%5,4).

¹¹ Graduko ikasketak hartzen dira erreferentziatzat Bolognako Planeko ikasketen egitura nahikoa finkatuta baitago.

¹² Hezkuntza-adierazleen bilakaeraren laburpena honako erreferentziak iturri nagusitzat hartuta egin da:

- Hezkuntzaren egoera. ELGA adierazleak

- EUSTATen irakaskuntza estatistika.

- Espainiako hezkuntzaren kopurua, HZM.

Xehetasun gehiago nahi izanez gero, kapitulu honetako atal egokira jo daiteke.

Hezkuntza administrazioen gastua, estatuan, 41.386 milioi eurokoa izan zen 2016an (BPGaren %3,6). EAEn, gastu hori 2.642,2 milioi eurokoa da (aurreko urtean 2.602,5 milioi eurokoa), hots, BPGaren %3,8, estatuko ratioa baino bi harreman gehiago (%3,6) eta 2015ekoa baino %0,1 gutxiago.

Europako eta erreferentziako herrialdeetako batez bestekoarekin konparatzeko, guztizko gastuak izan ditugu aintzat (administrazioen multzokoak). Horrenbestez, EAEko eta Europako batez bestekoak (hedaduraz, herrialdeak) zuzenean konparagarriak ez badira ere, hurbilketa egitea ahalbidetzen digute, zeren eta gasturik handiena hezkuntza administrazioei baitagokie, eta horiek oinarri hartuta, gure Erkidegoak BPGarekiko duen gastu publikoa arlo horretan erreferentziako herrialdeena baino txikiagoa dela esan daiteke.

Unibertsitate-hezkuntza eta unibertsitatez kanpoko hezkuntza bereizita, EAEn, BPGaren gaineko hurrenez hurreneko ratioak % 3,1ekoa eta % 2,7koa izan ziren, estatuan baino handiagoak Unibertsitatez kanpoko hezkuntzan, baina ez Unibertsitateko Hezkuntzako esfortzuan (%0,6 eta %0,8).

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua (soilik hezkuntza arloa) 2.588,8 milioi euro izan zen 2016an. Hots, %1,1eko igoera aurreko ekitaldiaren aldean. Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuan duen partaidetza %25ekoa izan zen, aurreko urtekoaren antzekoa (%25,2). Gastu hori EAEko BPGaren %3,65 da, 2015ean izandakoa baino pixka bat txikiagoa (%3,74).

Bestalde, 2017ko aurrekontuetan, Hezkuntza Sailak soilik hezkuntzara bideraturiko partidari, 2.578,8 milioi euro izan ziren. Hots, %1,9ko gehikuntza aurreko urteko aurrekontuko gastuaren aldean. Hona hemen Eusko Jaurlaritzaren gastuen aurrekontuan duen partaidetza-ehunekoa: %23,3. Hau da, EAEko BPGaren %3,5eko gastua. 2016an, berriz, %3,57koa zen.

- Hezkuntzako gastua ikasle bakoitzeko.

EUROSTATen arabera, 2014an, ikasle bakoitzeko gastua 6.133 euro izan zen estatuan, hezkuntza erakunde publikoetan eta pribatuetan, eta 6.687 eurokoa erakunde publikoetan. Bi gastu horiek hauexetakoak baino txikiagoak dira: Zipre, Frantzia, Finlandia, Malta, Alemania, Belgika, Holanda eta Erresuma Batua, eta oso urruti Austriakotik eta Luxenburgokotik.

HKMren arabera, zentro publikoen ikasle bakoitzeko gastu publikoa Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, Lan Heziketa alde batera utzita, 6.437 eurokoa izan zen EAEn 2015. urtean. Beraz, berriz ere dugu gure Erkidegoan ikasle bakoitzeko gasturik handiena, baina berriro ere behera egin du zatidurak aurreko urtearen aldean. Estatuko batez bestekoa 4.743 euro zenez gero, ikasle bakoitzeko gastua %35,7 handiagoa izan zen EAEn Estatuan baino.

Ikastetxe publikoko ikasle bakoitzeko gastu publikoa Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan, hor ere Lanbide Heziketa alde batera utzita, 8.973 euro izan zen EAEn, eta berriz ere du gure Erkidegoak ikasleko gasturik handiena. Estatuko batez bestekoa 5.436 euro izan zen, eta, beraz, EAEko ikastetxe publikoetako ikasle bakoitzeko gastua Estatukoa baino %65,1 handiagoa da.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako aurrekontuko likidazioaren arabera, hezkuntzan ikasleko eginiko gastuak (ikasle guztiak, hau da, Araubide Orokorrekoak¹³ nahiz Araubide Berezikokoak¹⁴), gora egin zuen berriz ere 2014 eta 2015 artean, 5.259 eurotik 5.328 eurora hain zuzen.

¹³ Unibertsitatekoa eta unibertsitatez kanpoko.

¹⁴ Arte Plastikokoak eta Diseinua, Hizkuntzak, Musika, Dantza, Kirola eta Diseinuko Goi-mailako Ikasketak.

- Egokitasuna ikaslearen adinean.

HKKMren arabera, EAEko urteko ikasleen %4,6 Lehen Hezkuntzako 3. mailan zeuden matrikulatuta 2015-16 ikasturtean, adin horri dagokion ikasturtean; 10 urterekin, 5. mailako ikasleen tasa %3,6 txikiagoa da (%91 hain zuzen ere). DBHko adinetan, egokitasun-tasak jaitsiz doaz adinean aurrera egin hala. Hala, 12 urteko ikasleen %87,8 etapa horretako 1. mailan dabil; 14 urteko ikasleen %79,2, hirugarren mailan, eta 15 urtekoen %74,2 laugarrenean dago matrikulatuta. Ratio horiek estatuko batez bestekoak baino txikiagoak dira. Kataluniak du egokitasun-tasarik onena aztertutako adin guztietan, eta EAE hobetuz doa adin teorikoak aurrera egiten duen heinean.

Genero-ikuspegitik, emakumeen egokitasun-tasak gizonezkoenak baino handiagoak dira, eta alde handiagoa da adinean gora egin ahala. EAEko kasu zehatzean, 2015-16 ikasturtean alde hauek izan ziren: 2,1 puntu emakumeen aldea 8 urterekin, 3 puntu 10 urterekin, 3,5 puntu 12 urterekin, 8,2 puntu 14 urterekin eta 10,6 puntu 15 urterekin.

- Eskola- eta trebakuntza-uzte goiztiarra.

HKKMren arabera, eskola- eta trebakuntza-uzte goiztiarraren tasak beheranzko joera du gure Erkidegoan, eta 2016an %7,9an kokatu zen, 28ko EBko batez bestekoaren (%10,7) eta estatukoaren (%19) azpitik. Hala, EBk 2020rako ezarritako %10eko helburua lortu du EAEk.

- Unibertsitate-adierazleak.

Errendimendu-, uzte-, aldatze- eta egokitasun-tasak

EAEko graduiko ikasleen *errendimendu-tasa*, 2015-16 ikasturtean, %80,7 izan zen, unibertsitate guztietako batez bestekoaren gainetik (%77,7). Gure Erkidegoa zazpigarren tokian dago AA.EE.en rankingean, Nafarroaren (%86,7), Kataluniaren (%83,6%), Valentziaren (%82,2), Madrilen (%81,5), Gaztela-Leonen (%81,2) eta Errioxaren (%81,1) atzetik. Emakumeen tasak gizonezkoenak baino handiagoak dira autonomia erkidego guztietan. EAEn, %84,6 da, eta besteetan %74,3.

Masterreko ikasleen %93,4 izan zen. Beraz, graduiko ikasleen tasa baino handiagoa (%80,7). Unibertsitate guztien batez bestekoarekin erkatuta, EAEko ratioa handiagoa da (%93,4 eta %89,1). EAE hirugarren tokian dago AA.EE.en rankingean, Nafarroaren (%98,1) eta Gaztela-Leonen (%95,6) atzetik eta Asturiasen parean. Emakumeen tasak handiagoak dira gizonezkoak baino autonomia erkidego guztietan, Madrilen eta Nafarroan izan ezik. EAEn, %94,4 eta %92,3.

Graduko ikasleen *ikasketen lehen urteko uzte-tasa* %15,2 izan zen 2013-14 ikasturtean sartu ziren ikasleen artean, unibertsitate guztietako batez bestekoaren azpitik (%21,8), baina aurreko urtean sartu ziren ikasleen inguruan bildutakoa baino tasa handiagoa (%13,8). Hala, EAEk bosgarren tasarik txikiena du, hauexen atzetik: Gaztela-Leon (%12,3), Nafarroa (%14,8), Gaztela-Mantxa (%14,9) eta Madril (%15,1).

Masterreko lehen urtean, %8,4 izan zen 2013-14 ikasturteko ikasleetan, unibertsitate guztietako batez bestekoaren azpitik (%13,3), baina 2012-13 ikasturtean sartu zirenenaren gainetik (%7,2). EAEk laugarren tasarik txikiena du Gaztela-Leonen (%6,2), Asturiasen (%6,3) eta Kanaria Uhartearen (%6,4) atzetik.

2013-14 ikasturtean sartu ziren ikasleen *graduiko ikasketen lehen urteko aldaketa-tasa* %7,3 izan zen, unibertsitate guztietako batez bestekoaren azpitik (%8,3), baina aurreko urteko ikasturteko ikasleei dagokien tasa baino pixka bat txikiagoa (%6,2). Gure Erkidegoak laugarren tasarik txikiena du Errioxaren (%4,5), Gaztela-Leonen (%6,1) eta Gaztela-Mantxaren (%7) atzetik.

Masterreko ikasketen lehen urteko aldaketa-tasa %2,2koa izan zen, unibertsitate guztietako batez bestekoaren gainetik (%2) eta 2012-13 ikasturteko ikasleei dagokienaren antzekoa (%2,3). EAEko adierazle horretan, okerrera egin du autonomia erkidegoen rankingean aurreko urtearen aldean. Izan ere, tasa handia du, soilik Balearren (%6,3) eta Kataluniaren (%3,4) atzetik eta Madrilen eta Aragoiren parean.

Graduko ikasleen *egokitasun-tasa* %44,4 izan zen lau urteko graduko ikasleetan, 2012-13 ikasturtean hasi ziren ikasleetan, eta %33,3koa bost urteko graduatan matrikulaturiko ikasleetan (2011-2012 ikasturtean hasi zirenak). Ehuneko horiek, hurrenez hurren, unibertsitateen multzoko batez bestekoaren gainera daude lehen kasuan (%44,4 eta %34,9) eta txikiagoa bigarrenean (%33,3 eta %34,9), non jaitsiera ikusten den hain zuzen ere.

2014-15 ikasturtean hasi ziren masterreko ikasleen tasa %81ekoa da urtebeteko masterretan eta %88,9koa bi urteko masterretan matrikulaturiko ikasleen kasuan. Ehuneko horiek unibertsitateen multzorako batez bestekoaren gainera daude, %73,4 eta %70,5. Urtebeteko masterreko ikasleen egokitasuna (2015-16 ikasturtean hasi zirenak) gora egin du aurreko epealdiaren aldean (%81etik %82,9ra).

Nazioartekotzea: Espainiako Unibertsitate Sistemaren (EUS) sartzea eta irtetea.

2015-16 ikasturtean, nazioarteko 2.736 ikasle ikasi zuten 2015-16 ikasturtean EAEko unibertsitatearen batean. %55,8 emakumeak izan ziren eta %44,2 gizonak, eta gehienak (guztien %53,4) unibertsitate publikoan matrikulatu zen. Estatuan %75eko ratioa dago. Jatorriko herrialdeari dagokionez, 28ko EBkoak nabarmentzen dira EAEn nahiz Estatuan (guztien %47,3 EAEn eta guztien %49 estatuan), baita Latinoamerikakoak ere. (%38,4 EAEn eta %30,1 Estatuan).

Mugikortasun programa dela-eta euskal unibertsitatean sartzen diren atzerriko unibertsitatean matrikulaturiko ikasleen ehuneko (doktoregoko ikasleak barne) %3 izan zen (estatuko batez bestekoa %3,9 da). Bestalde, EAEko unibertsitatean matrikulaturik dauden eta mugikortasun programa dela-eta atzerriko unibertsitateera doazen ikasleen ehuneko (doktoregoko ikasleak sartu gabe) %5 izan zen (estatuko batez bestekoa: %2,9), Estatuko ratorik handiena alegia Sartzen diren eta ateratzen diren ikasleen kopuruaren arteko koefizienteak erakusten du, Estatuan, ateratzen diren 100 ikasle bakoitzeko 140 sartzen direla; EAEn, aldiz, egoera aurkakoa da. Izan ere, ateratzen diren 100 ikasle bakoitzeko 70 sartzen dira soilik eta hori ratorik baxuena da Nafarroaren atzetik.

- Shangaiko Unibertsitate-rankinga.

Espainiak 11 unibertsitate zituen 2017an TOP 500 rankingean (2016an 12 izan ziren). Lehenengoa Pompeu Fabra da, mundu mailako TOP 300 rankingaren barruan. Ondoren, Bartzelonako Unibertsitatea eta Granadako Unibertsitatea daude, horiek ere TOP 300 rankingaren baitan.

UPV-EHU berriz ere agertu zen 2017an TOP500 rankingean. Zehazki hamargarren tokia du estatuko rankingean. Oraingoan aurretik ditu: Pompeu Fabra, Bartzelonako U., Granadako, Bartzelonako Autonomoa, Madrilgo Autonomoa, Madrilgo Complutense, Santiago de Compostelakoa, Valentziako Politeknikoa eta Jaume I.

Bestalde, eta kulturari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak bi urterik behin argitaratzen duen *Arteen eta Kultur Industriaren Estatistika* delakoaren azken edizioak (2017ko ekaina) euskal kulturaren errealitatearen erretratua ematen du bilakaeraren ikuspegitik. Datu horien arabera, hauexek osatzen zuten sektorea 2015ean: 397 eragile pribatuak (irabazteko asmoarekin eta hori gabe), 2013an baino 27 eragile gehiago. Eragile horiek gehienak liburu-dendak (guztien %27,5, 13 eragile gehiago 2013 eta 2015 bitartean), ikus-entzunezko ekoiztetxeak (guztien %22,7, 16 eragile gehiago 2013 eta 2015 bitartean), arte eszenikoen ekoizleak (%18,9, 9 eragile gehiago 2013 eta 2015 bitartean) eta argitaletxeak dira (guztien %10,6, eta 6 eragile gehiago).

397 eragile horiek guztira 184.936,8 mila euro fakturatu zituzten 2015ean. Gehienak liburu-dendak dira (guztien %30,1), eta ondoren ikus-entzunezkoen ekoizleak (%25,6), argitaletxeak (%16,9) eta musika-sustatzailen pribatuak (%15,6). 2013 eta 2015 bitartean, guztizko fakturazioak %15,7 egin zuen gora 2013aren aldean.

Eragile bakoitzeko batez besteko sarrerari dagokionez, lehenik eta behin musika-sustatzaile pribatuak daude (1.341,1 mila euro eragileko); ondoren argialetxeak daude (743,1 mila euro eragileko) eta ikus-entzunezkoen ekoiztetxeak (526,6 mila euro eragileko). Nabarmentzekoa da 2011 eta 2015 bitartean lehenbizikoek izandako igoera (913,8 eurotik 1.371,1 euroa eragileko).

Enpleguari gagozkiola, kultur industrietan 2.814 lagunei ematen zieten lana 2015ean (lanaldi osoko lanpostuetan neurtuta). Gehienek ikus-entzunezko ekoiztetxeetan (1.255,6 langile) egiten zuten lan; urrutiago zeuden liburu-dendak (301,7 lagun), arte eszenikoen programatzaileak (224,1 lagun), arte eszenikoen ekoizleak (204,8 lagun) eta orkestrak eta bandak (oro har, 367,2 lagun).

2013 eta 2015 bitartean, kultur industrien enpleguak %5,2 egin zuen gora. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoak kulturaren 2015ean likidaturiko gastuak %11,2 egin zuen behera 2014aren aldean HKKMren arabera. Gastu horiek gure Erkidegoaren BPGaren %0,16 da, autonomia erkidego guztietako batez bestekoaren gainetik (%0,1). Biztanleko gastua, EAEn, 49,6€ zen 2015ean, 2014an baino %6,2 gutxiago, eta handiagoa da Estatuko batez bestekoa baino (23,3€).

Bestalde, euskal etxeek ondasunetan eta zerbitzu kulturaletan egindako gastua, 2016an, 707,4 milioi eurokoa zen, hau da, % 2,9ko igoera egon da.

Familiako batez besteko gastua 783 euro izan zen (+%2,8 aurreko urtearen aldean). Pertsonako batez besteko gastua 329,3 eurokoa izan zen, 2015ean baino %2,8 gehiago, eta Estatuko batez bestekoa baino %7,4 handiagoa. Hortaz, EAE seigarren erkidegoa da gehien gastatzen dutenen rankigean, Madrilen, Aragoiren, Nafarroaren, Kataluniaren eta Asturiasen atzetik.

Ingurune Naturalaren egoera

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak emandako informazioaren arabera, hobekuntza nabarmena gertatu da EAeko **airearen kalitatean** azken urteetan. Hala ere, argitaraturiko azken datuen arabera, batez besteko iraunkortasun-adierazlea %99 da, 2015eko ratioa baino txikiagoa (%99,2). Adierazle hori bi hauen arteko erlazioaren bidez lortzen da: "*Oso ona*", "*Ona*" eta "*Hobetu daiteke*" kalifikazioa duten eguneko kopurua gehi urteko egun kopurua. Termino agregatuetan, kalitate oso oneko edo oneko egunen ehunekoa urtean % 83,4tik % 82ra igaro zen 2015 eta 2016 bitartean.

Hondakinen sorreraren eta kudeaketaren arloan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren datuen arabera, 2016an biztanleko 515 Kg hiriko hondakin bildu ziren EAEn, 2015erako zenbatetsitakoa baino gehiago (502 Kg/biztanle). 515 Kg/biztanle horietatik, 111 energiaren aldetik balioztatu eta errautsi ziren, 173 birziklatu eta 24 konpostari dagozkio (ongarri organikoa). Gainerakoa, hau da, 171, zabortegira joan ziren. 2015ekoaren aldean, energiaren aldetik balioztaturiko eta erraustutako hondakinen kopurua jaitsi egin zen, 10 kg biztanleko, birziklatuetan 10 kg gehiago biztanleko eta ongarri organikoetan 3 kg gehiago bildu dira biztanleko. Bestalde, zabortegira eramandakoetan 10 kg-ko hazkundera izan da biztanleko.

Lurralde Historikoen araberrako analisiak alde batzuk agertzen ditu.

- Berreskuratzeko eragiketei dagokienez:
 - Egonkor eusten dio energiaren aldetik balioztatzeke eta errausteko eragiketarak Araban eta Gipuzkoan, baina behera egin du Bizkaian. Araban 15 Kg biztanleko eta Gipuzkoan 35 Kg biztanleko. Bizkaian, berriz, 187 Kg biztanleko.
 - Birziklatzeak gora egin du Araban eta Bizkaian (110 eta 186 kg/biztanle, hurrenez hurren). Gipuzkoan, berriz, behera egin du, biztanleko 184 kg-tik 180 kg-ra.
 - Ongarri organiko bihurtzeak gorakada izan du hiru Lurralde Historikoetan, baina maila txikitzen jarraitzen du, Gipuzkoan izan ezik. 12 Kg/biztanle Araban, 6 Bizkaian eta 59 Gipuzkoan.
- Hondakin gutxiago eraman dira zabortegira Araban, eta gehiago Bizkaian eta Gipuzkoan: 161, 120 eta 254 kg biztanleko.

Hondakin arriskutsuak eta arriskutsuak ez diren bereiziz, 2015 eta 2016 bitartean, %6,4 egin zuen behera kudeaturiko hondakin ez arriskutsuen guztizko kopuruak. Arriskutsuenak, berriz, %1,4 egin zuen gora 2014-2015 aldian (ez dago 2016rako daturik). Gauzak horrela, 2016an, guztira, 3.307.978 Tm bildu ziren eta arriskutsuak 327.766 Tm izan ziren 2015ean. Hots, hondakin arriskutsuak guztien %8,5 zen urte horretan. Ez arriskutsuena, berriz, %91,5 ziren.

2016an, hondakin ez arriskutsu guztien %54,3 birziklatu edo konposta egin ziren (aurreko urtean %53,3), %3,4 energiaren aldetik balioztatu zen (aurreko urtean %3,9) eta gainerako %42,3a desagerrarazi zen (%42,8 aurreko aldian). Bestalde, hondakin arriskutsu guztietatik (2015eko datuak), %67,7 birziklatu edo konposta egin zen (%66,6 2014an), %1,8 energiaren aldetik balioztatu zen (2014an %1), %0,6 errautsi zen (%0,8 2014an) eta gainerakoa %29,9 desagerrarazi zen (%31,5 2014an).

Bukatzeko, EINek egindako "Industria-enpresek ingurumen babesean izandako gastuaren inkesta"ri buruzko azken datuen arabera, 2015ean EAEn enpresa horiek ingurumen babesean izandako gastua (gastu arrunta eta inbertsioa), guztira, 175,9 milioi eurokoa izan zen Hori 2014an egondakoa baino %0,6 txikiagoa da. Hala hiru urtez jarraian metatu dira jaitzierak. Intentsitatearen aldetik, jaitziera txikia ikusten da 2015ean 2013koaren aldean, %2koa hain zuzen, eta %0,26an kokatzen da. Hala ere, Estatuko batezbestekoa baino handiagoa da, %0,19koa baita bertan. Hala, EAEk zazpigarren tokia izan zuen 2015ean, honako hauen atzetik: Asturias eta Nafarroa (bietan % 0,41), Gaztela-Mantxa (%0,38) eta Kantabria (%0,33), Errioxa (%0,28) eta Murtzia (%0,27).

Osasuna eta Osasun Sistema

Hasteko, zenbait adierazle aurkeztuko ditugu, herritarren osasun-egoerara hurbiltzea ahalbidetzen digutenak, besteak beste, **menpekotasuna, buruko osasuna (depresio sintomatologia) eta hilkortasuna.**

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren arabera, **bizi esperantzan jaiotzean** (Blj) Euskadin, 2001 eta 2014 bitartean, 3,5, urtetan hazi da, eta 2014an 83,9 urtera iritsi zen, Estatuan ikusitako bera, baina Madrilen (85), Gaztela eta Leonen eta Errioxan (bietan 84,1) izandakoa baino txikiagoa, eta Nafarroan 83,9 da. Aldi bereko hazkundera Estatuan EAEkoa bezalakoa da, hots, 3,5 urtekoa, eta autonomia erkidego guztietan egin zuen gora.

Hala eta guztiz ere, jaiotzako bizi itzaropenaren hazkunde horrek ez du esan nahi adierazle hori igotzen den bizitzako urte horietan guztietan osasun-egoera ona izango denik. Izan ere, pertsonen bizitza-kalitatea galtzea eragin dezaketen gaixotasunak eta osasun-arazoak jasan ditzakete, heriotza berehala eragiten ez badute ere. Horren ondorioz, heriotza-tasak pixkanaka balioa galdu du osasunaren egoeraren adierazle gisa, eta gaixotasuna bere ondorioen bidez neurtu beharra dago, hala nola jarduera egiteko muga edo ezintasuna.

Datu-iturri beraren arabera, EAEn nahiz Estatuan, **Bizi Urte Osasuntsuak** jaiotzean, goranzko joera ageri da. 2006 eta 2014 bitartean, 5,3, eta 4 urtetan handitu ziren hurrenez hurren, eta 68,7 eta 66,9 urtetan kokatu ziren. Horrela, 2014an, seigarren tokian zegoen EAE jaiotzean bizitza osasuntsuen urte gehien zituzten autonomia erkidegoen rankingean, honako hauen atzetik: Aragoi, 72,6 urte; Kantabria, 72,3 urte; Nafarroa, 70,5 urte; Gaztela-Mantxa, 70,1 urte eta Gaztela eta Leon, 69,8 urte.

Bestalde, 65 urterekin (Bl₆₅), euskaldunek, 2014an, urtean 22 bizitza urte izatea espero zuten, eta Bl₆₅ handiena duen hirugarren autonomia erkidegoa da, hain zuzen Madrilen (22,9) eta Gaztela eta Leonen (22,3) atzetik eta Nafarroaren pare (22). Eta adin horretan bertan 2014an, euskaldunek bizitza osasuntsuko 12,4 urte izatea espero zuten (BUO₆₅), eta BUO₆₅ kopururik handiena duen autonomia erkidegoa da.

Orain, **depresio sintomatologiari buruzko** datuak aztertuko ditugu. Osasunaren Europako Inkestaren Espainiako datuen arabera (2017ko ekainaren 17an argitaratu zen Osasunaren Sistema Nazionalaren 2016ko Urteko Txostenean bilduak), EAEn, 2014an, %0,7 zen depresio gaitz larria izan zuten 15 urte eta gehiagokoekin portzentajea, Estatu osokoa baino txikiagoa (%1,1) Ez hain gaitz larria dutenak kontuan hartzen baditugu, ratioa %2,1 da, estatuko batez bestekoaren azpitik (%2,9). AA.EE.en arabera, depresio gaitz larria edo ez hain larria izan zuten 15 urte eta gehiagokoekin biztanleriaren ratorik handiena zuen EAEk (%2,1), eta ondoren, Madril (%2), Galizia (%1,9), Gaztela-Mantxa (%1,8), Gaztela eta Leon

(%1,7), Errioxa (%1,3) eta Extremadura (%1,2) zeuden, baina zorionez ez zituen izan beste batzuen portzentajeak: Kantabria (%3,5), Nafarroa (%3,7), Andaluzia (%4,6), U. Kanariarrak (%4,7) eta Asturias (%6,2).

Sexuen arabera, gizonen prebalentzia emakumeena baino handiagoa izan zen. EAEn, %2,7 izan zen, 2014an, gaitz larria edo ez hain larria izan zuten 15 urte eta gehiagoko emakumeen portzentajea. Gizonena, berriz, %1,5 izan zen. Estatuan, %3,8 izan zen lehen kasuan eta %1,9 bigarreanean.

Heriotza-tasari dagokionez, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren arabera, AAEE guztietan murriztu dira heriotza-tasak azken urteetan, eta 2015ean, adinaz doituriko¹⁵ 100.000 biztanleko heriotza-tasa txikiagoa da EAEn Estatuko batez bestekoa baino (437,5 eta 461). Beste AAEE batzuekin erkatuta ikusten denez, EAEk emaitza ona du. Hala, Madrilen, Nafarroan, Gaztela eta Leonen eta Errioxan baino ez daude tasa txikiagoak.

Adinari dagokionez, heriotzen zatirik handiena, EUSTATen “*Heriotzen Estatistika*”ren arabera, goranzko joera ageri da, eta handiagoa emakumeen artean. Izan ere, 2016an, batez besteko adina 80 urtetan kokatu zen (76,8, gizonentzat eta 83,4 emakumeentzat). Berez, urte beretan, heriotzen %65,3 80 urtetik gorakoan artean gertatzen zen. Hala, 80-89 urtekoen taldeko heriotza kopurua 8.165 da; 90-99 urtekoetan, 5.394, eta 99tik gorakoetan, berriz, 294.

Heriotzen kausei dagokienez, hainbat estatistika-iturrik erakusten dutenez, EAEn nahiz gure ingurune sozioekonomikoko herrialdeetan, gehienak transmititzen ez diren eritasunen ondorioz gertatzen dira, gehienbat eritasun kardiobaskularrengatik eta tumorengatik. Hala, EUSTATen arabera, gertaturiko heriotza gehienak, 2007tik hona, tumorengatik gertatu dira. Aurreko urteetan, aldiz, zirkulazio sistemaren gaixotasunek eragin zuten heriotza gehien. 2016an, tumoreek eragindako heriotzak guztizkoaren %29,8 izan ziren, eta zirkulazio aparatuko eritasunen ondoriozkoak %27. Hirugarrenik, arnas sistemako eritasunak daude (eritasun guztien %9,7).

Galdutako bizitzako balizko urteen azterketatik, hilkortasunak herritar gazteenengan duen eragina islatzen duen neurrian heriotzak ahal den neurrian prebenitze aldera, ondorioztatzen da, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren datuen arabera, gizonen kasuan, heriotza goiztiarreko bost kausa nagusiak hauek direla (2008-2016 epeko datuak): trakeako, bronkioetako eta birrikako tumore gaiztoak; kardiopatia iskemikoak; suizidioak eta norberak egindako lesioak; trafiko-istripuak motordun ibilgailuekin eta zirrosia eta gibeledako gaixotasun kronikoak. Ondoren, bestelako kausak ditugu hala nola burmuin eta hodiedetako eritasunak eta piskofarmakoek eta drogek eragindako nahigabeko pozoitzeak. Bestalde, gibelarekin lorturikoak (zirrosia eta gibelaren gaixotasun kronikoak) aurreko urteetan baino gutxiago izan dira. Emakumeen kasuan, epe bera aztertuta, ikusten da hilkortasuneko hiru kausa nagusiak hauek izaten direla: bularreko tumore gaiztoak; trakeako, bronkioetako eta birrikako tumore gaiztoak eta suizidioak eta autolesioak. Gaixotasun zerebroaskularrak edo zirrosia ez dira aurreko urteetan bezain ohikoak izan eta, aldiz, antzeman da emakumeen hilkortasun goiztiarra areagotu egin da koloneko, obarioko eta encefaloko tumore gaiztoengatik.

¹⁵Tasa gordina populazioaren gaineko esperientziaren laburpen erarik errazena eta zuzenena da. Heriotza-tasa orokorrak oso lotura estua du adinarekin, halako moldez non oso ezberdinak izango baitira adinaren arabeko heriotza-tasa espezifikokoak. Tasa gordinak sortzen duen “batez besteko balio” horren atzean, adin-estratuaren arabeko heriotza-tasa espezifikoen heterogeneotasuna dago.

Gaia bereziki garrantzitsua da biztanlerien edo epealdi desberdinen arteko tasak erkatzen direnean, zeren eta, biztanlerien osaera ezberdina bada, balizko ezberdinen zati bat behintzat estratuen arteko aldeengatik izan baitaiteke.

“Doikuntza” eta “estandarizazio” terminoak erabiltzen dira, biak ala biak, laburpen-neurriak taldeen artean erkatzeko modua errazteko; hartara, talde artifizialak egiten dira prozedura matematikoen bidez.

Hala, adinaren arabeko heriotza-tasa estandarizatu (HTE) lurralde batean erregistraturiko heriotza kopuruari dagokio (100.000 biztanleko adierazita) heriotza-tasaren arabera, sexuka eta adinka banatuta, eta biztanleria tipo edo estandarreko adinen arabeko egitura erabiliz.

Zuzeneko estandarizazio deritzon metodo horrek heriotza-tasen batez besteko haztatua kalkulatzeko du adin-taldeen arabera, non haztapen-koefizientea erreferentzia estandarreko biztanleria den.

Metodo horri zuzeneko estandarizazioa deritza, eta adin-taldeko heriotza-tasen batez besteko haztatua kalkulatzeko du, non haztapen-koefizientek erreferentzia estandarreko biztanleria den.

Bizitzako ohiturak determinanteak dira osasunean, osasuntsuagoak edo ez hain osasuntsuak diren neurrian. Hori dela eta, orain osasunean eragina duten zenbait **determinante ez mediko** aztertuko ditugu. Zehazki, tabako kontsumoa, alkohol kontsumoa eta obesitatea.

Tabako kontsumoari dagokionez, Osasunaren Europako Inkestaren Espainiako datuen arabera (2014), hain zuzen Osasun Sistema Nazionalaren 2016ko Urteko Txostenean bilduak, EAEn, urte berean, 15 urte eta gehiagokoen %22,8k egunero erretzen zuen, Estatuan baino portzentaje txikiagoa (%23). Sexuen arabera, egunero erretzen zuten gizonen portzentajea handiagoa zen emakume erretzaileena baino, bai gure Erkidegoan (%28,5 eta %17,4), bai Estatuan (%27,6 eta %18,6). Datuek erakusten dutenez, EAEko tabakoaren eguneroko kontsumoaren prebalentzia txikiagoa - Estatukoarekin alderatuta - gertatzen da euskal emakumeen kontsumoaren prebalentzia txikiagoa delako Estatuko emakumeen batez bestekoaren aldean (%17,4 eta %18,6), zeren eta euskal gizonen kontsumoa handiagoa izan baitzen (%28,5 EAEn eta %27,6 Estatuan).

Autonomia erkidegoen arabera, EAEk erdiko posizioa zuen autonomia erkidegoen rankingean, eta egunero tabakoa kontsumitzen dutenen ratorik handienak Extremaduran eta Murtzian (bietan %25,6), Andaluzian (%24,4) eta Aragoian (%23,9) daude, eta txikiak, %21etik behera, Melillan, Galizian eta Asturiasen. Alabaina, sexuaren arabera azterketa eginez gero ikusiko dugunez, gizonen bosgarren prebalentziarik handiena dute, hauexen atzetik Extremadura (%31,8), Katalunia (%29,8), U. Kanariarrak (%29,5) eta Balearrak (%29,3).

Alkohol kontsumoari dagokionez, datu-iturri beraren arabera, 15 urte eta gehiagoko euskaldunen %76,6k alkohola edan zuen inoiz urte horretan. EAEk alkoholdun edarien 2. kontsumo tasarik handiena zuen, Kantabriaren atzetik (%77), eta Estatuko batez bestekoa baino 9,3 gehiago zituen (%67,3). Sexuen arabera, edaten zuten gizonen portzentajea emakumeena baino handiagoa zen, bai gure Erkidegoan (%84,2 eta %69,6), bai Estatuan (%77,5 eta %57,7).

Gainerako autonomia erkidegoen aldean, nabarmentzekoa da euskal emakumeen kontsumo handia, prebalentziarik handiena baitzuten (%69,6), eta ondoren Kantabriako emakumeak (%68), Balearretakoak (%65,8) eta Aragoikoak (%65,6) zeuden. Bestalde, euskal gizonen hirugarren prebalentziarik handiena zuten (%84,2), eta atzetik zeuden kantabriarrak (%86,4) eta asturiarrak (%84,3).

Osasun Sistema Nazionalaren 2016ko Urteko Txostenaren arabera, Estatu osoko datu hauek ditugu:

- Sexuaren arabera aldeak ikusten dira adin guztietan, baina txikiagoak dira gazteenen artean.
- Edaleen prebalentzian sexuen arabera dauden aldeek hezkuntza eta lan arloko gradientekin dute zerikusia. Kontsumoaren prebalentzia handiagoa da gradientetik handienetan, batez ere. Goi mailako ikasketak dituzten emakumeen %74,9k alkohola edan zuten azken urtean. Oinarrizko ikasketak edo txikiagoak dituzten emakumeen portzentajea, berriz, txikiagoa da, %45,2 hain zuzen: adin-talde guztietan ageri da aldea.

Obesitatea (30 kg/m²-ko gorputz-masaren indizea edo handiagoa) osasun arazoaren eta egoera kroniko askoren arrisku faktore nagusienetakoa da, eritasun hauek barne: bihotzekoa, zerebrobaskularra, diabetes mellitusa, hipertentsio arteriala eta minbizi mota batzuk.

Osasunaren Europako Inkestako Espainiako datuen arabera, gure Erkidegoan, 18 urte eta gehiagokoen %13k obesitatea zeukan 2014. urtean (Estatuko batez bestekoa baino %3,9 gutxiago -%16,9-). Autonomia erkidegoen rankingean, bigarren obesitate-tasarik txikiena zeukan. Soilik Nafarroak zuen tasa txikiagoa (%11,7). Ratorik handienak Galizian, Andaluzian eta Gaztela-Mantxan ageri dira. gain-pisua ere aintzat hartuz gero, %46,4k obesitatea edo gain-pisua zuen (Estatuko batez bestekoa baino 6,2 puntu portzentual gutxiago - %52,6-).

EAEk zuen tasarik txikiena. Sexuen arabera, edaten zuten gizonen portzentajea emakumeena baino handiagoa zen, bai gure Erkidegoan (%84,2 eta %69,6), bai Estatuan (%77,5 eta %57,7). Sexuaren arabera, euskal gizonen %14,2k obesitatea zeukan eta emakumeena, berriz, %11,9. gain-pisua ere kontsideratuz gero, %54,6 eta %38,7 ditugu.

Bilakaeraren aldetik, Osasun Sistema Nazionalaren 2016ko Urteko Txostenaren arabera, 2001 eta 2014 bitartean, obesitatearen prebalentziak, EAEn, %4,4ko igoera izan zuen. 2001ean, 18 urte eta gehiagoko euskal herritarren %8,7k zeukan 30 kg/m²-ko edo handiagoko gorputz-masaren indizea. 2014an, berriz, %13 zen.

Orain, Euskadiko **laguntzako baliabideen eta jardueraren** gaineko zenbait adierazle azalduko ditugu, Osakidetzaren datuak baliatuz.

Datu horien arabera, 2016an, pixka bat behera egin du eskariak. Hala, sareko **batez besteko okupazio-indize** globalak behera egin zuen 2015ekoaren aldean, eta %77an kokatzen da. Aurreko urtean, berriz, %78,8 izan zen.

Hala, % 100a gainditzen da eta, beraz, berriz ere kokatzen dira batez besteko horren ginetik, zerbitzu medikoetan, honako espezialitateak: pneumologia (%148,4), barne medikuntza (%122,53) eta digestio-aparatua (%104,3); eta kirurgiako zerbitzuetan: Kirurgia kardiobaskularra (%114,2) eta urologia (%103,9). %100aren azpitik baina batez bestekoaren ginetik ditugu gainerako zerbitzu medikoak, eta kirurgiako gainerako zerbitzuak, kirurgia plastikoa (%60,7), kirurgia baskularra (%69,6) eta kirurgia orokorra (%72,4).

Batez besteko egonaldiak 5 egunekoa izateari eusten dio. Batez bestekoaren oso ginetik daude errehabilitazioa (33,9), psikiatria (14,2) eta zainketa aringarriak (13,8).

Itxaronzerrendei dagokienez, kanpoko kontsultetako itxaronzerrendetako pazienteen kopuruak gora egin zuen, 91.124tik 97.709ra. Zerrendetan paziente kopururik handiena duten espezialitateak, 2016an, berriz ere aurreko urteetako berdina dira, eta ordena berean: traumatologia (18.152), oftalmologia (13.81), dermatologia (11.438), errehabilitazioa (8.734) eta ginekologia (6.509). Berandutze aldiari dagokionez, 2015 eta 2016 artean hilabetetik gora itxaroten duten biztanleen portzentajea %39,3 da (aurreko urteko antzeko ratioa). Gainerako %60,7ak hilabete baino gutxiago itxaroten du.

Datu horiek eta Informazio Sistemak Osasun Sistema Nazionalak (SISLE-OSN) itxaronzerrendei buruz ematen dituen datuak alderatzen baditugu oinarriko espezialitateetan eta 2016ko datuekin, hauxe ikusiko dugu: itxaronzerrendan 1.000 biztanleko dauden pazienteen kopurua txikiagoa da EAEn Estatuan baino espezialitateotan, baina oso hurbil dago: Ginekologian (2,8 eta 2,9), Kardiologian (1,4 eta 1,5), ORLn (2,6 eta 2,9) eta Traumatologian (7,9 eta 8,2). Gainerako oinarriko espezialitateetan, handiagoa da EAEn aldeko diferentzia (paziente gutxiago itxaronzerrendetan): Oftalmologia (6 eta 8,1), Dermatologia (5 eta 6,1), Digestio aparatua (1,4 eta 2,4), K. Orokorra eta Digestio A. (1,2 eta 1,9), Neurologia (2,6 eta 2,9), Urologia (1,6 eta 2). Artatuak izateko hilabetetik gora itxaroten duten pazienteen ehunekoari dagokionez, nahiz eta adierazleak zuzenean ezin konpara daitezkeen, badirudi agerian uzten dutela Estatuko egoera ez dela hain ona.

Kirurgiako itxaronzerrendei dagokienez, horietako pazienteen kopuruak berriz ere egin zuen behera EAEn 2016an; jada bost urtez jarraian izan da jaitsiera. Zehazki, 2015 eta 2016 urte bitartean 17.725 pertsona izatetik 17.343 pertsona izatera, hots, 7,7 pazientetik 7,6 pazientera osasun-txartela duten mila biztanleko; Estatuko 13,7ko batez bestekoaren azpitik dago ratio hori. Itxaronaldi luzeenak traumatologian (60 egun) eta otorrinolaringologian (52,8 egun) daude. Pixka bat behera egin du batez besteko berandutze egunen kopuruak (50,6 egunetik 50,3 egunera), Estatuan izandakoa baino txikiagoa (115 egun).

Bestalde, ebakuntza egiteko 3 hilabete baino gehiago itxaron behar duten pazienteen portzentajeak behera egin du, %15etik %14,3ra, baina 2013an eta 2014an ikusitako ratioetatik goitik jarraitzen du.

Kapitulu hau amaitzeko, **Osasun Sistemaren gastua** aztertuko dugu. Eusko Jaurlaritzaren 2016ko aurrekontuko likidazioaren datuen arabera, Osasunaren atalak (ez da Kontsumoa sartzen), 3.514 milioi euro izanik, lehen tokian jarraitzen du baliabideen portzentajearen, hots, guztizko gastuaren %33,9 da, non programa nagusia Osakidetzaren transferentzietan dagokien eta BPGd nominalaren 4,96 den, aurreko urteko portzentajetik behera pixka bat. Kopuru absolutuetan, 2015 eta 2016 bitartean, likidaturiko gastua 91 milioi euro handiagoa da.

Osasuneko Finantzazioa eta Kontratazioa eta Farmazia programak ia likidaturiko guztizko gastu osoa dira (%98,2): Zehazki, Osasuneko Finantzazioa eta Kontratazioa %83,7 eta Farmaziak %14,6.

Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioaren arabera, EAEn osasunean biztanleko¹⁶ eginiko gastu publikoak goranzko joera izan zuen 2007 eta 2011 bitartean. Izan ere, urte horretan, gorabeherak hasi ziren gertatzen ratioan krisi ekonomikoaren ondorioz. 2015etik hasita, berriz ere goranzko bidetik doa.

Horrenbestez, EAE da aztertutako aldi osoan (2007-2017) biztanleko gasturik handiena egiten duena. Zehazki, 2017an, behin-behineko datuen arabera, 1.670,3 euro guztira. EAEn kopuruetatik hurbil daude Nafarroa (1.635,8 euro), Asturias (1.586,6), Extremadura (1.453,1), Aragoi (1.441,4) eta Gaztela eta Leon (1.431,1).

Osakidetzaren aurrekontu-likidazioak, EAEn Kontu Orokorretatik abiatuta egindakoak, erakusten du erakundeak 2016an egindako gastua 2.763 milioi eurokoa izan zela (+% 1,5 2015arekin alderatuta). Hori BPGd nominalaren % 3,9 da, 2015eko ratio berbera. Igoera hori egon da ustiakuntza-gastuak hazi direlako, inbertsioak murriztu baitira.

Zehazki, likidatutako ustiakuntza-gastuak 2.670 milioi eurokoak izan dira; horietatik, 1.801,7 milioi euro langileen gastuei dagozkien (ustiakuntza-gastuen % 67,5, % 2,3ko hazkundearekin aurreko urtearekiko).

Bestalde, likidaturiko kapital-aurrekontua 65,7 milioi euro da; 2015ean likidaturikoa baino %11 gutxiago, hots, bi urtez jarraian jaitsierak izan dira.

Azkenik, 2013-2020ko Osasun Planaren emaitzen urteko txostenak dakartzen datuen arabera, plana ezarri den hirugarren urtean (2016) proposaturiko helburuen %31 eta ekintzen %31 dagoeneko abiarazita daude; helburuen %49 eta ekintzen %52 abiarazita daude, eta helburuen %20 eta ekintzen %16 ez dira abiarazi.

Adierazleetatik 60 adierazleren informazio eguneratua dugu, guztizkoaren %55 (aurreko urtean 57 adierazle izan ziren). 60 helburu horietatik, 2020ko helburua beteta dago edo helburua betetzeko joera ageri da 27 adierazletan, 17k hobekuntza dute oinarritzko egoerarekiko, baina egungo joerarekin, ez da aurreikusten helburua 2020rako betetzea; 1ek ez du aldaketarik oinarritzko egoerarekiko eta 15etan egoera okerragoa dago oinarritzko egoerarekiko.

Etxebizitza

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren "Higiezinaren Eskaintzaren Estatistikak" adierazten du, lehenik eta behin, azkenengo urtean etxebizitzaren guztizko eskaintza (salmenta gehi alokairua) % 17,1 erori dela (-%10 2016an); laugarren hiruhilekoan 27.798 unitate batuz. 2017an eta aurreko urtean bezalaxe, etxebizitza mota guztien eskaintza murriztu zen, babestutako alokairua izan ezik, guztizko eskaintzaren % 2 dena.

Etxebizitza motaren arabera, datu hauek nabarmendu behar ditugu:

- Salgai gauden etxebizitza libre berrien eskaintza %2,2 txikitu da, eta horren prezioa metro koadroko eurotan, 3.222 €/m² da, 2016ko batez bestekoa baino %1,3 gehiago. Lurraldean arabera, batez bestekorik txikiena Araban dago (2.492,6 €/m²); Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, 3.286,7 €/m² eta 3.309,1 €/m² dira hurrenez hurren.
- Saltzeko eskaintzako BOEn batez besteko prezioa 1.750 €/m² zen 2017an, aurreko urtean baino %0,4 gehiago. Eskaintza 2017ko laugarren hiruhilekoan 1.206 etxebizitzakoa zen, aurreko urtean baino %6 gutxiago
- Eskaintzan dauden bigarren eskuko etxebizitzaren stockean %19,7ko jaitsiera dago eta haien batez besteko prezioa 2017an 2.758 €/m² zen, aurreko urteko batez bestekoa baino %0,8 gutxiago. Lurraldean hiruretan batez

¹⁶Datuek osasuneko aurreko aurrekontuak islatzen dituzte, autonomia erkidego bakoitzaren mailan bateratuak, hain zuzen autonomia erkidegoek beren aurrekontu bateratuetan sartutako erakundeek dagozkienak. Beraz, baztertuta gelditzen dira fundazioak, partzuergoak, enpresa publikoak eta osasunaren arloan jarduerak egiten dituen eta gutxi gorabeherako aurrekontua duen beste edozein erakunde publiko. Biztanleriaren datuak EINEk argitaraturiko erroldari dagozkio.

bestekoaren azpitik jaitsi dira prezioak (-%3,7 Araban, -%1,2 Bizkaian eta -%4, Gipuzkoan), inbiliariek Araban eskaintzaren gaineko eguneratze handia burutu dutelako (%46 murriztuta) eta ondorengo doikuntza izan delako haztapenetan.

- Alokairuan eskainitako 1.503 etxebizitzako eskaintza zenbatu da, aurreko urtean baino %7,5 gehiago. Libreei dagokionez (eskaintzaren %62,8), berriz, %6,2 jaitsi da: 1.006 etxebizitzatik 944 etxebizitzara, alokairuko etxebizitza babestuetan %42,6 egin du gora. Beraz, babesturiko alokairuak gora egin du: alokairuaren %28 2016an eta %37,2 2017an. Bestalde, EAeko alokairuko etxebizitza babestuen batez besteko errenta, 2017an, 329,4 euro zen hilean, aurreko urtean baino % 22,9 gehiago.
- Azkenik, alokairuan eskainitako etxebizitza libreen laginak 944,3 euroko batez besteko errenta du hilero 2017an, urtebete lehenago baino % 7,3 gehiago. Lurralde historikoen artean, Gipuzkoak du preziorik altuena (1.028 € hilean); ondoren Bizkaia dator, 955,5 € hilean, eta azkenik Araban (709,7 € hilean).

Eraikuntzaren jarduerari dagokionez, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak agerian utzi duenez, hasitako etxebizitzaren guztizko kopurua, 2008an eta 2009an nabarmen jaitsi ondoren, goranzko bidean hasi zen 2010-2011 biurtekoan, nabarmen hazita betiere. 2012 eta 2015 bitartean, ordea, %15 egin zuen behera hasitako etxebizitzaren kopuruak. 2016an (eskuratu dugun azken datua), hasitako etxebizitzaren kopurua %89,6 igo zen aurreko urtearen aldean. Hasitako etxebizitzetatik %77 libreak ziren eta %23 babestuak. Badakigu zein diren hasitako etxebizitza babestuei buruzko 2017ko zifrak (ez dago merkatu libreari buruzko informaziorik): guztira 1.443 hasi ziren, 2016an baino %8,43 gehiago. 2010ean izan ezik, hasitako etxebizitza babestuak behera egin zuen 2007tik 2015era, eta berriz ere gora egin zuen azken urte horretan.

Bestalde, EAEn 2017an *amaitutako etxebizitzak* 3.665 dira, aurreko urtean baino %1,9 gehiago, amaitutako etxebizitza libreen beherakadaren (-%83,5) eta babestutako enbiziaren (+%80,8) baturaren emaitza. Horren ondorioz, aurtan murriztu egin da etxebizitza babestuak EAeko eraikuntzako jardueran duen partaidetza, zeren eta bukatutako etxebizitzaren artean behera egin baitzuen, 2016ko %48,1etik 2017ko %7,8ra.

Bestalde, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak txosten bat egin zuen 2017an, eta bertan nabarmentzen denez, alokairu librearen pisuak nabarmen egin du gora krisia hasi zenetik. Izan ere, etxebizitza eskuratzeko araubideko biztanleriaren %14,2 izatetik 2008an %16,3 izatera 2016an, hots, EAeko ratioa baino %4,7 gehiago, %11,6koa baita urte horretan (%8,8koa zen 2008an). Bestalde, alokairuak baliabide gutxien duten familien artean duen pisu handia nabarmentzen da, erreferentziako Europako herrialdeetan artean.

EAEn, alokairu libreko etxebizitzetan bizi diren 10 familietatik 4k prestazio edo laguntza motaren bat jaso zuen 2016an, aurrekontuko inbertsio nabarmenaren bidez. Izan ere, 100 milioi eurotik gorakoa izan zen. Beraz, agerian gelditzen da garrantzizkoak direla alokairurako laguntzak eta laguntza programak familia behartsuenen artean. Alokairu libreko etxebizitzetan bizi diren familiei emandako prestazioen multzoan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin (DSBE) loturiko Etxebizitza Prestazio Osagarria (EPO) nabarmentzen da, 35.000 familia hartzaile baino gehiago 2016an.

Etxebizitzaren eskariari dagokionez, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18-44 urteko pertsonen lehenbiziko etxebizitza eskuratzeko duten beharri buruzko hurbilketan, hauxe egiaztatu du Eusko Jaurlaritzaren 2015eko "Etxebizitzaren beharrei eta eskariari buruzko inkestak" (EBEI): etxebizitza eskuratzeko prozesua finantzatzeko pentsatzeko adina diru-sarrerak dituzten 72.836 pertsonak adierazten dute behar hori. 2013aren aldean, %11,5 igo da kopuru hori; aurreko inkestetan beherakada nabarmenak izan zituen: %25,9 2011 eta 2013 bitartean eta %18,5 2010 eta 2011 bitartean. Bestalde, EAeko 53.132 familiak zioen etxebizitza aldatu beharra zuela, guztien %6,2k. Hau da, %13,8ko jaitziera 2013aren aldean: urte horretan guztizkoaren %7,1 ziren etxebizitza horiek. Halaber, EBElren zenbatespenen arabera, 58.017 euskal familiak behar dute etxebizitza birgaitzeko jarduketara 2015ean. Hala, magnitude hori EAeko familia-etxebizitza parkearen %6,7 da. Bilakeraren aldetik, etxebizitza birgaitzeko beharrak behera egin zuen 2013aren aldean, bai familien bolumenean (-%35,6), bai behar horren intzidentzia erlatiboan (-3,6 puntu portzental gehiago).

EAEko familiek etxebizitzak ordaintzeko egin behar duten finantza-ahaleginari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaren Behatokiak erakutsi du, Higiezin Erregistro Estatistikako datuak erabilia, finantza-ahalegin hori hileko batez besteko hipoteka kuotaren eta soldata kostuaren arteko erlazioaren ikuspuntutik aztertuz gero, % 26,69koa izan zela 2017ko laugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko urtean baino 0,19 puntu portzental gutxiago ditu, aurreko urtean bi puntu baino gehiago jaitsi ondoren. Estatu mailan, kontrako ibilbidea da: ahalegin hori batez besteko soldata kostuaren %29,24 zen 2017ko amaieran. 2016ko laugarren hiruhilekoan, berriz, %27,60 zen (+1,64 puntu portzental), eta beheranzko joera du 2013tik.

Sustapen Ministerioak Notarioritza Estatistikatik jasotako datuen arabera, EAEn notarioaren aurrean 20.891 etxebizitza-saleroketa formalizatu ziren guztira 2017. urtean (behin-behineko datuak), hots, %11,5eko hazkundera 2016aren aldean (+%16,3 erregistratu zen epealdi berean, Estatuan, non guztira 523.367 transakzio erregistratu baitziren).

Etxebizitza politikari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak betearazitako gastua nabarmen handitu zen azken urteetan, eta 2009an 207,4 milioi eurokoa zen. 2015ean, berriz, erdira murriztu zen. Informazioa dugun azken urte horretan, betearazitako gastua 99,8 milioi euroraino jaitsi zen. 2016an (eskuratu dugun azken datua), berriz ere egin zuen gora gastuak, 108,1 milioi euroraino (+%8,3), hots, EAEko BPGaren %0,15.

Eusko Jaurlaritzaren 2013-2016ko Etxebizitzaren Plan Zuzendaria bukatuta (zenbatespenen arabera, guztira 460,38 milioi euro ordainduko ziren), Etxebizitza Sailak aldi horretan eginiko gastu agregatua 440,6 milioi eurokoa izan da eta, Etxebizitza Talde osoa aintzat hartuta (Saila gehi VISESA eta ALOKABIDE), gastu finkatua, orotara, 768,3 milioi eurokoa da epealdi horretan. Eusko Jaurlaritzaren birgaikuntza politika Planaren ardatz estrategikoetako bat da, eta guztizko aurrekontutik %21 helburu horretarako erabiltzen da, esana dugunez, epealdi bera duen "Etxebizitza birgaitzeko Renove plana"ren bidez. Planaren indarraldia bukatuta, ebaluazio txostenak erakusten duenez, lehenik eta behin emandako laguntzen zenbatekoa 74,9 milioi euro da, eta horiek beste 1.077,4 milioi euro mugiarazi dituzte, hots, orotara 1.152,3 milioi euroko baliabideak erabili dira birgaikuntzarako.

Bukatzeko, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak egindako "EAEko etxebizitzarekin loturiko zerga politika" txostenak, betiere hiru foru aldundien 2010 eta 2015 urte bitarteko PFEZren ziozko likidazioetako datuak oinarri hartuta, hauxe nabarmentzen du: ohiko etxebizitzaren ziozko kenkarien zenbatekoa (alokairua eta inbertsioa), hain zuzen ere bigarren kenkaria izan ohi dena kopuruaren aldetik familien eta norbanakoaren kenkarien atzetik, 375,55 milioi eurokoa izan zen 2015ean, 2014an baino %1 gehiago. Hala, badirudi eten egin dela ekitaldi horretan 2008an hasitako beherako joera. Kenkari horiek PFEZren guztizko bilketaren %8,5 dira eta zerga-bilketa osoaren batuaren %3, baita EAEko urte horretako BPGaren %3 ere, behin-behineko datuen arabera. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak eginiko gastuaren %376 dira (99,8 milioi euro).

2. GOGOETAK

I. DEMOGRAFIA

Berriz ere Europar Batasunean, hirugarren herrialdeetatik datorren biztanleriaren ekarpenari esker, bere pisu demografikoari eutsi ahal izan zaio nazioarte mailan. Aldagai demografikoen bilakaerak erakusten duenez, azken finean, arazo garrantzitsua eta orokorra da Europa mailan.

Gure Erkidegoari dagokionez, Udal Erroldaren 2017ko urtarrileko datuek berresten dutenez, beste urtebetez, demografia ez aurrera ez atzera dago gaur egun. Nagusiki berezko hazkundearen bilakaeraren ondorioz (migrazio-saldoak positibo izateari eusten dio, igoera txikia bada ere), jaiotzen eta heriotzen arteko diferentzia negatiboa da lau urtez jarraian, eta gainera, azken urtean sakondu egin da, zeren eta jaiotzen kopuruak beherantz egiten jarraitzen baitu, eta heriotzen kopuruen gainetik egin du hala.

Batzorde onen ustez, oso kezagarria da egoera, eta premiazko erantzuna behar du. Horregatik, azken urteetako memoriatan, eredu orokorra eskatu izan du EAE osorako, horren gaineko politika publikoak bideratzeko, halako moldez non zeharkakoagoak eta koordinatuagoak izango baitira politikak; izan ere, funtsezkoak dira garapen sozialerako eta ekonomikorako. Ildo horretan, Eusko Jaurlaritzak konfiantza du honako bi hauek egungo egoera demografikoa iraultzea ahalbidetuko duten neurriak ekarriko dituztela: batetik, erakundeek 2018ko urtarrilean izenpeturiko “Familien eta Haurren Aldeko Euskal Ituna” delakoa, zeinaren xedea, beste helburu batzuen artean, egungo erronka demografikoari erantzutea baita, jaiotzak sustatuz, hain zuzen ere biztanleria zahartzea geldiarazte aldera; eta bestetik, Eusko Jaurlaritza lantzen ari den “Familien eta Haurren Aldeko Euskal Estrategia”.

Eta, gure Erkidegoak berezko saldoaren joera negatiboa konpentsatzeko modua ematen duten migrazio-saldoei dagokienez, erreparatu beharreko gertaera bat ikusten dugu: goi-mailako titulazioak dituztenen migrazio-saldo negatiboa hain zuzen. Nahiz eta EAetik irteten direnen kopurua oso handia ez izan, alde kualitatibotik, baldin eta azken urteetan izandako joerari eusten bazaio eta joera hori sakontzen bada, giza kapitala galtzea ekarriko du, eta horrek ondorioak dakartza gizarte eta ekonomia mailan. Hortaz, arreta jarri behar dugu gai horretan, eta horretarako, zergatik gertatzen ari den sakontzen saiatu behar dugu eta goi-mailako tituludun horiek atxikitzeke neurriak hartu.

Bestalde, atzeritar jatorriko biztanleriak gora egin du EAEn hirugarren urtez jarraian. Ildo horretan, ekonomiaren, demografiaren eta kulturaren aldetik duten ekarpena balioetsi beharra dago. Ildo horretan, beste urtebetez berretsi egin behar dugu euskal herritarrak jabetuta daudela etorkizunak beharrezkoak direla gure ekonomiaren eta gizartearen martxa onerako, zeren eta aniztasun aberasgarria bideratzen baitute, betiere berme demografikorako duten garrantzia ahaztu gabe, are gehiago kontuan hartzen badugu, ez bakarrik beste herrialde batzuetatik datozen pertsonak, baizik eta atzeritar jatorriko emakumeen jaiotza-tasa hemengoena baino handiagoa dela ere.

Aurreko bi atal horiek ikusita, batera kontsideratuta, ezinbestekoa da jarraipena egitea; izan ere, azaldutako joerak areagotuz gero, biztanleriaren egituraren eraketa kualitatiboa aldaraz baitezakete, baita dinamismorako oinarriak ere.

II. EKONOMIA

Aztertutako datuek erakusten dutenez, 2017. urtea positiboa izan da euskal ekonomiarentzat. Izan ere, hazkundera izan da haren jardueran, eta hori lanpostuen gehikuntzan ere islatu da. Alabaina, goranzko bultzada hori moteldu egin da kontsumoan eta ekipo-ondasunen inbertsioan, eta ezin ahanztu dezakegu ezen, 2017an inflazioaren presiorik izan ez bada ere, Petrolioia Esportatzen duten Herrialdeen Erakundeak hartutako akordioaren ondorioz, igoerak izan direla Brent upelaren prezioan. Euskal ekonomiaren mendekotasun energetikoa dela-eta, egoera horrek eragina izan dezake gure hazkundearen bidean.

Horren ondorioz, etorkizunari begira gure egitura ekonomikoan funtsezkoak izan diren alderdiak hobetzen jarraitu beharra dagoela esan daiteke. Xede hori izanik, bereziki garrantzizkotzat jotzen dugun aurrerabideko zenbait arlo gogoraraziko ditugu.

- Euskal enpresaren tamaina txikia konstantea da EAEko ekoizpen-egituran. Egungo nazioarteko lehiakortasunaren ingurumarian, alderdi hori zuzendu beharra dago ahal den neurrian, zeren eta, osterantzean, ezin izango baitzaie aurre egin nahikoa bermekin berrikuntzei eta nazioartekotze-prozesuei. Horretarako, euskal enpresen arteko lankidetzak, ituntzea eta elkarlana bultzatzeko estrategiak handitu eta finkatu behar direla esan behar da berriz ere, baita jakintza eta topaketa sareak eta lankidetzarako inguruneak indartzen jarraitzea ere, klusterrak esaterako.

- Zerbitzuen sektorearen eraketaren bilakaerari erreparatu behar zaio. Batez ere sormen eta kultura jarduera goranzkorrei dagokiena, osasunarekin edo hezkuntzarekin edo jakintza handiko enpresentzako zerbitzuekin lotuta, zeren eta jarduera horien etengabeko hazkundeak ekonomiaren hazkundeak eta kalitatezko enpleguaren gehikuntza adierazi baititzake.

Beste alderdi batzuen inguruko gogoeta ere egin behar dela deritzogu; izan ere, gure ekonomiaren oraingo eta geroko bilakaeran izango dute eragina inolako zalantzarik gabe. Ildo horretan, eta kapitulu honetan emandako informazioa kontuan hartuta, honako balorazio hauek egin nahi ditugu:

Ekoizpeneko azpiegiturei dagokienez:

- Mendekotasun energetikoa, energia ekoizteko egiturazko urritasuna eta Europako 2020 Estrategian ezarritako helburua ez betetzea, hots, energiaren ekoizpenaren %20 gutxienez iturri berriztagarrikoak izatea. Hori guztia arazo larria da herrialdeko ekonomiaren lehiakortasunerako eta iraunkortasunerako.

EAEren tamainari esker, energia-eredua aldatzeko lidergoa mantendu eta handitu daiteke, mendekotasun txikiagoa izatera eta ingurumenaren iraunkortasun handiagoa lortzera bideratuta, aurrezpena eta energia-eraginkortasuna indartuz.

EAEren energia-mendekotasuna, ageri-agerian, EBko eta Estatuko batez bestekoa baino handiagoa da. Ezaugarri hori ezagutarazi beharra dago, gizarte-ekoizpeneko eragileek nahiz herritarrek oro har parte-hartze handiagoa izan dezaten egoera horretan.

PCTI2020 delakoarekin bat etorritik energia ekoizteko sektoreak eta, horren barruan, energia ekoizteko bitartekoenak, jarduera sortzen du eta aberastasuna eta enplegua dakartza, gero eta gehiago, eta indartzen jarraitu beharra dago.

- Garraiorako azpiegituren eskaintza zabala dago, datozen urteetan handitzeko joera duena eta, beraz, zentzuzkoa izango litzateke erakunde guztiek koordinatuago jardutea azpiegitura horien erabileran, eraginkorra izan dadin. Hots, komeniko litzateke garraio-sare eraginkorra egituratzen jarraitzea, lurralde historiko guztietan berdintasunezko salneurria ekarriko dituen hain zuzen ere.

...

EAEko sektore publikoari dagokionez, lehenik eta behin Batzorde honek egiaztatu ahal izan duenez, 2017an, indartu egin da finantza publikoen berreskurapena, bilketa handiagoa izanda. Oro har ikusten denez, jokabide hobea dago zeharkako zergetan (+%16,4) zuzenekoetan baino (+%7,2), baina, nolana ere, gehikuntza hori zerga nagusietara igaro da, Sozietateen gaineko Zerga barne. Horri esker, gastuaren igoera eta defizitaren arloko konpromisoen betetzea bateragarri egiteko modua izan dugu. Izan ere, datu positiboetara itzuli gara aurrekontuko saldoan, krisiaren aurretik gertatzen ez dena hain zuzen.

Beste urte batez gogoarazi nahi dugu Eusko Jaurlaritzaren gastu nagusia Hezkuntzarako eta Osasunerako erabiltzen dela, eta horrek gizarte ongizateari begira egitaraturiko fondoan erabilera adierazten du.

Bestalde, kezkarria zaigu ikustea inbertsio errealek -funtsezkoak baitira herrialdearen garapenerako ondo bideratuta daude-, bilakaera negatiboko sei ekitaldien eta 2016an hazi ondoren, berriz ere behera egin izana 2017an, baina zentzuzko denbora itxaron beharko da bilakaerari buruzko balorazioa emateko.

Halaber, nabarmendu behar dugu gorantz jarraitu izan duela zor publiko biziak, baina, beste urte betez, beheranzko erritmoan. Ildo horretan, jardueraren eta horrekin lotuta sarrera publikoen susperraldiari esker, bere zorpetzea kontrolatzeko bidean aurrera egiteko modua izaten ari da Sektore Publikoa.

....

I+G+b jarduerak EAeko I+G-ko gastuan hiru urtez jarraian jaitsierak izan ondoren, 2016an hazi egin zen. Alabaina, kezkarria iruditzen zaigu, esfortzuen aldetik, beste jaitsiera bat izatea. Horrek urrundu egiten baitu I+G-ko finantzazioaren 2020rako helburuetatik, bai sektore pribatuan, bai sektore publikoan (ildo horretan, berriz gogorazi behar dugu helburu zehatzak finkatu direla EBko estatuentzat: BPGaren %05etik %4a bitartean, 2020an lortu beharrekoak. Espainian, berriz, %2koa da).

Aldi berean, I+G-ko gastuaren finantzazioak sektore pribatuan eta sektore publikoan duen banaketa ez da oso desberdina EAEn eta Eurogunearen egoera erkatzean (EAEn %55,7 eta %33,5 hurrenez hurren eta Eurogunean %57,3 eta %31,8). Ohartarazi egin behar dugu finantzazioaren pisua txikiagoa dela EAEn I+G-ko erreferentziako herrialdeetan baino. Hala ere, alde nabarmena da, kasu honetan kontrako zentzuan, Estatuko batezbetekoarekiko, non sektore pribatuak I+G-ren %46,7 baino ez duen finantzatzen.

Ildo horretan, baliteke zenbait aldagai eragina izatea enpresen ahalmen txikiagoan, enpresen tamaina esaterako (handiagoa da EAEn Estatuan baino, baina EBkoa baino txikiagoa), hain zuzen ere I+G+b-ko prozesuei ekiteko. Izan ere, ohartarazi nahi dugu dimentsio alde handia dagoela Euskadin I+G egitea lortzen duten enpresen (70 lagun batez beste) eta enpresen multzoaren artean.

Atseginez ikusten dugu berrikuntza teknologikorako jardueretako gastuak I+G-ko gastuan izan duen jokabidea, hots, horretan ere hazkundera izatea, hain zuzen azken lau urtean izandako beheranzko joera hautsita. Haatik, berrikuntza teknologikoa duten enpresek enpresa guztiekiko duten ratioak behera egin du, baita ikerlarienak ere, eta hori kezkatzeko modukoa dela deritzogu.

Ildo horretan, enpresetan berrikuntza galarazten duten zenbait faktore arindu beharra nabarmendu behar dugu, batez ere ekonomikoak, baita enpresek arriskuen inguruan duten errezeloa ere. Horregatik, ekonomia sustatzeko eta enpresak berrikuntzara bultzatzeko baliabideak hobetu beharra dago, mekanismo berriak ezarri oztopo horiek desagertatezen. Horrez gain, ahaleginak egin behar dira berrikuntzaren abantailak berrikuntzak izan litzakeen arriskuak baino handiagoak direla jabeatzeko.

Aurreko urteetan bezala, kezkarria da ezen, 2017ko berrikuntzako adierazle sintetikoak 0,48 izan arren eta Estatukoaren gaineratik (0,39) eta 28-EBtik hurbil (0,50) badago ere, "Aktibo intelektualak" dimentsioa 0,29 da, 28-EBko batez bestekoa (0,49) edo Estatukoa (0,40) baino txikiagoa. Emaizta horrek erakusten duenez, EAEk inbertsio handia egin izan du I+G arloan, baina badirudi zailtasunak dituela emaitza horiek inbertsiora ekartzeko eta, beraz, argi dago eraginkortasun edo produktibitate txikiagoa duela. Ekoizpen zientifikoko adierazleek, aldiz, goranzko joerari eusten diote eta beraz, eraginkortasun handiagoa dagoela esan daiteke. Horregatik, transferentzia-prozesua azpimarratu beharra dago.

Halaber, EAEko eta 28ko EBko emaitzak erkatzean ere Europako Berrikuntzako Adierazleen Panelean (2017) bildutako beste bi alderdiz ohartarazi beharra dugu. Alde batetik, berrikuntza ez teknologikoa duten enpresen proportzio txikiagoa (marketinean edo antolaketan berritzaileak diren ETEak ETEen % gisa (%20,85 EAEn eta %34,89 28ko EBn). Eta bestetik, berrikuntzak salmentetan eta enpleguan duen eragina txikia EAEn.

Azken finean, Espainiako eskualdeen multzoan I+G-ren arloan liderrak garelako ikusita pozik agertu behar badugu ere, jarduera horretan dugun ekarpena irmotasunez handitu behar dugula nabarmendu behar dugu, ez bakarrik lorturiko posizioari eusteko, baizik eta posizio hori hobetzeko ere bai, goi-mailan dauden herrialdeetara hurbilduta (nahikoa urrutik daude), gertatzen ari den berrikuntza teknologikoa gure gizartearen ongizatea hobetzeko aukera bihur dadin hain zuzen.

...

Aurreko Memoria Sozioekonomikoetan aditzera eman izan dugunez, **IKT ekipamenduak garrantzitsuak dira EAEn**, norbanakoaren ikuspegitik nahiz enpresen aldetik.

Alabaina, berriz ere azpimarratu behar dugu ezen, EAE etxetiko interneteko sarbidea duten familien portzentajeetan autonomia erkidegoen artean nahikoa posizio onean badago ere, oraindik hobetzeko marjina dagoela. Izan ere, urrutik gaude Europako iparraldeko eskualdeetan ikusten diren erreferentzietatik: kasu batzuetan %90etik gorakoak dira, eta batzuetan, are gehiago, %100a.

Aldi berean, oso aintzat hartu behar dugu gure gizartearen badirela zenbait talde kaltetu IKTen erabilerari dagokionez, eta hona hemen Interneterako konexioa ez duten pertsonen profila: bakartuta bizi diren pertsonak, 55 urtekoak eta gehiagokoak, prestakuntza maila txikiagokoak eta langabeak.

Ezin ahantz dezakegu ere enpresetako ekipamenduen zuzkidurak hobetzeko tarte duela, zeren eta, horien hedapena enpresen tamainarekin batera hedatuz badoa ere (handia da, egia esan), handienetan enplegatu guztiek ez baitute ekipamendu horiek eskuratzerik.

Horrez gain, EINen arabera, Interneteko konexioa duten enpresen ratioak, izenpe elektronikoa erabiltzen duen enpresena eta hodeiko konputazio soluzioak (cloud computing) erosten dituzten enpresen ratioa (horien artean daude posta elektronikoa, fitxategiak gordetzea, enpresako datu-baseen zerbitzaria eta hainbat software mota) Euskadin txikiagoak dira Estatuko batez bestekoak baino.

Posta elektronikoari dagokionez, bide hori erabilita egin diren salmentak gutxiago baliatzen dituzte euskal enpresek Europakoek baino. Ondorioz, baliteke tresna horietan aukerak galtzen ari izatea euskal enpresak azken urteetan modu esponontzian hazten ari diren salmentetan.

III. LAN-MERKATUA

Lan-merkatuak gizartearentzat duen garrantzi handia eta horren konplexutasuna direla-eta, haren bilakaerari buruzko diagnostikoa lortzeko, kontu handiz aztertu behar dira aldagai ugariaren jokabidea eta berekin dakartzan ondorioak.

Hamabost urtez lanpostuak sortu ondoren, EAEko lan-merkatuan okupazio zifren jaitsiera aldi berean murgildu zen EAE 2009an, eta hala jarraitu zuen 2013ra arte. Ondorioz, 100.000 lanpostu galdu ziren, guztizkoaren %10. 2014an, urte arteko tasa positiboak aipatzen hasiak ziren estatistika-iturriak, guztiak norabide berean. 2014. urteaz geroztik, datu positiboak hasi ziren antzematen berriz ere. Hala, harrezkero eta 2017ra arte, enplegua sortu da EAEn, baina oraindik bidea dago egiteke krisiaren aurreko enplegu maila lortzeko.

Ildo horretan, 2017. urtea aurrerapenen urtea izan da EAEko lan-merkatuaren adierazleen zati handi batean: enplegua sortu eta langabezia murriztu da sektore eta adin guztietan, eta sexu bietan. Era berean, iraupen luzeko langabeziaren pisuan bi hamarreneko murrizpena aipatu beharra dago 2017an, hots, urtebetetik gorakoa.

Aldagai horien jokabide onak berekin dakar lan-merkatuaren baldintzen hobekuntza, aitortua eta ongietorria, baina arreta merezi dute azterketa xehatuagoaren beharra duten mezuek.

Langabeziaren bilakaera positiboarekin batera, azken urteetan ez bezala, biztanleria aktiboak eutsi egiten dio kopuru absolutuetan, baina berriz ere egin du behera jarduera-tasak. Izan ere, urtearen amaieran %56,2 izan zen, komeniko litzateenaren azpitik hain zuzen. Aldi berean, iraupen luzeko langabeziaren murriztapenak ez du galarazten langabezia horrek langabe dauden pertsonen erdiari baino gehiago eragitea. Horregatik, Batzorde honek langabeziaren eraginpeko pertsonen egoeraren inguruko kezkarri eusten dio, lan-merkatutik baztertuak izateko arriskuan daudelako.

Enpleguaren kalitateari dagokionez, elkarren kontrakoak diren errealitateak daude. Alde batetik, pisua irabazten jarraitzen du lanaldi partzialeko kontratazioak, eta hori arazoa izan daiteke langileak nahi ez duen lanaldi motagatik gertatzen baldin bada. Izan ere, lan-merkatuaren dinamismoa nahikoa ez dela esan adieraz dezake horrek, zeren eta langileen zati batek lanaldia luzatuko nahi izango bailuke.

Bestalde, aldi baterako kontratazioa kontratazio mugagabea baino indartsuago hazi da hiru urtez jarraian, eta horrek esan nahi du bide onetik goazela. Horrez gain, azken urteetan lehen aldiz murriztu da txandaketa pixka bat. Alabaina, aldi baterako enpleguaren tasak oraindik oso handiak dira, eta bereziki eragiten die emakumeei. Horrez gain, soldataren aldetik alde handia dago sexuen artean, argi eta garbi emakumearen kalterako, eta bereziki nahi ez den lanaldi partzialaren eraginpean daude emakumeak.

Gainera, langabeziak emakumeei eta 55 urtetik gorako langileei eragiten die neurri handiagoan eta, beraz, aldi baterako enpleguaren kontra egiteko eta talde horien laneratzera errazteko politika espezifikoak hartu behar dira premiaz. Horrez gain, soldatek igoera txikiak izan dituzte krisia hasi zenetik, prezioen bilakaeraren azpitik. Horren ondorioz, erosteko ahalmena galdu dute langileek, baina azken datuen arabera, egoera nolabait zuzentzen ari da.

Azaldutako emaitzak ez ditu baliogabetzen arestian esandako guztiak, baina ñabardurak ematen ditu, eta Batzorde honen ustez, aintzat hartu behar dituzte gure Erkidegoko ekonomia eta gizarte eragileek.

Bestalde, badirudi berretsi egiten dela, egungo lan-merkatuan, ikasketa mailaren eta enplegua eskuratzearen arteko erlazioa, sarritan kalitate txarreko enpleguarekin lotzen den arren. Eta ildo horretan, enplegarritasun egokia izateko posibilitateetan zuzeneko eragina duen prestakuntzako eskaintzaren beharra aldarrikatu nahi dugu. Alde horretan, garrantzizkoa da nabarmentzea lanean aritu arren enplegu-eskatzailak diren pertsonen kopuru handia eta, zentzu horretan, etengabeko prestakuntzaren garrantziaz ohartarazi nahi dugu landunen prestakuntzako hobetzeko bidea den aldetik, baita etengabeko bilakaeran den merkatuan egokitzeko ere, beharrezko gaitasunei erantzuna emate aldera.

Ildo horretan, hauxe nabarmendu nahi dugu: Batzorde honek ekimenaz egin den EAEko gazteen enplegarritasunari eta lan-merkatuan sartzeari buruzko azken azterlanean, bere gogoeten artean, laneratzeko zailtasun handienak dituzten gazte-taldeentzako berariazko politikak sortu behar direla aipatzen da.

Herri erakundeek buruturiko enplegu politiken inguruko beste datu baliagarri bat langabeziaren ziozko estaldura-tasen bilakaera da gure Erkidegoan: Autonomia erkidegoetako baliorik txikiena dugu, eta etengabe egin izan du behera azken urteetan. Beraz, langabezia-tasak behera eginda lasaiago egon gaitzkeen arren, horrekin batera, babesik eza ere handitu egiten da langabezia daudenentzat. Ekoizpen-sistemak zenbait talde bere gain hartzeko duen zailtasunaren sintoma da errealitate hori, eta agerian uzten du enplegurako politika aktiboek hobekuntza-marjina handia dutela kasuistika horiei aurre egiteko.

Lan istripuen kopuruak berriz ere gora egin zuen 2017an, 2014an hasitako joerari jarraiki, kopuru absolutuetan nahiz erlatiboetan, heriotza dakarten istripuen kopurua izan ezik: murriztu egin dira. Horrez gain, ezbeharrek aldi baterako kontratua duten pertsonen artean ugariagoak badira ere, deigarria da azken urteetan nabarmen murriztu izana bi kontratazio mota horien arteko alde handia. Horregatik, lan-istripuen prebentzio zorrotzari eutsi beharraz ohartarazi nahi du EGABe, jarduera areagotzeak istripuen kopurua ere handitu ez dezan.

Azkenik, aipamen berezia egin nahi dugu 2017an sindikatuek eta ugazaberiak izenpeturiko negoziazio kolektiboko egituraren gaineko akordioaz, negoziazio kolektiboko eremu autonomikoak zaintzen dituen neurrian.

IV. BIZI BALDINTZAK ETA GIZARTE BABESA

Bizi Baldintzak EAEn

Lehenik eta behin nabarmendu nahi dugu ezen, azken urtean, EAEko bizi-baldintzen adierazle nagusiek bilakaera ona izan dutela. Hala, AROPE tasan 1,7 puntuko jaitsiera izan da, biltzen dituen hiru eremuetan hobetuta. Batez besteko errentek gora egin dute, bai familiako, bai per capita kopuruetan, eta murriztu egin dira familien baldintza materialei buruzko beste adierazle batzuk, hala nola pobrezia energetikoa edo hilaren bukaerara iristeko zailtasunak. Halaber, PGDIren azken kopuruek erakusten dutenez, behera egin du errentaren banaketaren desberdintasunak 2014aren aldean, eta itxuraz, geldiarazi egin da adierazle horiek krisiaren hasieran izandako beherakada. Horiek aldagai guztiek, beste urtez batez, egoera oso onean jartzen dute gure Erkidegoa Estatu mailan eta Europa mailan.

Alabaina, ez da ahaztu behar ageriko hobekuntza horiek ez dutela ekarri krisiaren ondorioz galdutako ongizate maila berreskuratzea, zeren eta aipaturiko adierazleak, oro har, oraindik ez baitira itzuli 2008aren aurreko kopuruetara. Horrez gain, azken urtean ere bai, bilakaera txarreko aldagaiek diraute, hala nola etxebizitzarekin loturiko ordainketetan atzerapenak dituzten familien ehunekoa, edo ezusteko gastuei aurre egiteko modurik ez dutenen ehunekoa, bietan igoerak izan direlako.

Ildo horretan, pobrezia eta bazterketaren guneen osakerako aldaketa kualitatiboei erreparatu beharko diegu. Aldaketa horiek arrisku multzoan sartzen dira, besteak beste, "ezohikoak" diren biztanle sektoreak eta EAEko gizarte-ekoizpen sarean txertatuta daudenak.

Datu horiek ikusita, gure ustez, bide onetik aurrera egin bada ere, beharrezko ahaleginak egin behar dira joera horiek finkatzeko, bizi-baldintzen hobekuntzak gizarteko maila guztietara irits daitezen eta krisiaren aurreko ongizate mailak berreskura daitezen. Halaber, dirudienez hobetzeko bidetik joatearen kontra ageri diren aldagaiei erreparatu behar diegu aurrerantzean ere.

Etixerik gabeko pertsonen fenomenoari dagokionez, esan behar dugu ezen, pertsona kopuru txikiari eragiten dion arren, bazterketa prozesuen ondorio tristeenetako bat dela, eta eragina izan dezakete pertsonengan. Eusko Jaurlaritzak 2016an eginiko hirugarren zenbaketari esker, taldearen eta horren ezaugarritzearen gaineko jarraipena egin dezakegu: Jakin badakigu zahartzen ari dela eta funtsean laguntza publikoei esker dirauela bizirik, eta ez dutela ia lan-merkatuan sartzerik. Hori dela eta, pertsona horiek benetan gizarteratu ahal izateko, etxebizitza izateko duten eskubidea aitortu beharra dago, baina laneratzea ere bultzatu beharra dago gizarteratzeko modu naturala den aldetik.

Halaber, laneratzeko modua izan arte, gizarte laguntzak funtsezkoak direla nabarmendu nahi dugu. Horregatik, kezka agertu behar dugu pertsona horien zati handi batek ez dituelako laguntzak eskatzen edo ez duelako horien berri.

Bestalde, ikusi denez, familiak toki nagusia betetzen jarraitzen du eta, beraz, oso kontuan hartzekoak dira familia-unitate motetan gertatzen ari diren aldaketak eta aldaketa horien ondorioak; izan ere, botere publikoen lehentasunezko arreta eskatzen dute

EAEko familiek hainbat laguntza dituzte Eusko Jaurlaritzaren Familia Planen bidez 2002. urtetik hona. Kezkagarri iruditzen zaigu ikustea azken planaren ebaluazioari buruzko txostenean, 2011 eta 2015 urteetan indarrean egon zen horretan, honako hau aitortzea: planak biltzen zuen ekimen multzo zabala, funtsean, familientzako diru-laguntzetara murriztu dela.

Egia da eginkizun garrantzitsua betetzen dutena, baina gure ustez, diru-laguntza nahikoak emateaz gain, funtsezkoa da zerbitzuen eta ekipamenduen nahikoa eskaintza zabala finkatzea, hain zuzen ere familiek nahi dituzten seme-alabak izan ditzaten eta bizitzako eremuak egoki uztartzeko modua izan dezaten.

Ildo beretik, kezkagarria da aurrerapenik ez izatea emakumeen eta gizonen arteko baterako erantzukizunaren arloan etxeko lanetan eta zaintza-lanetan, EUSTATen Lana eta Bizitza Pertsonala eta Familia Bateratzeari buruzko Inkestako azken datuetan ikusten denez. Ez da garrantzi gutxiko gaia, zeren eta ondorio sakonak baititu eremu garrantzitsu askotan: emakumeen garapen profesionalerako eta pertsonalerako posibilitateetan eta beren ahalmenak ez aprobetxatzean, baita emakumeen bizi-kalitatean eta bilakaera demografikoan ere.

“Familiei Laguntzeko IV. Plana” deritzon zehaztuko den “Familien eta Haurren Aldeko Itunak” dakarren estrategia berriak bultzada handia izan behar du, bide egokian aurre egitea ahalbidetzeko, betiere zeharkakotasuna eta erakundeen arteko lankidetzara oso aintzat hartuta. Horretarako, adierazpenetatik jardun publikoetara egin beharko da aurrerapausoa itunak dakartzan eremuetan, non administrazioko maila guztiek parte hartze irmoa eta koordinatua izango duten. Ezinbestekoa izango da, gainera, gure gizartean ahalik eta ongizate mailari handiena lortzeko lanean diharduten gizarte eragile guztien jarduketetan parte hartzea, aldaketa sakona bultzatuz, zeinaren ondorioz berdintasun, ekitate eta bizi-kalitate handiagoak izango baitira.

Aurreikusitako epealdiaren amaieran ahalegin horren emaitzak ebaluatzea ezinbestekoa izango da familiari buruzko geroko politikak bideratzeko. Eta horretarako, berebiziko eta berehalako arreta jarri beharko zaie hori ahalbidetzeko adierazleak sortzeari eta zehazteari, hain zuzen ere “EAEko familiei laguntzeko erakundeen arteko III. Plana”ren ebaluazioari buruzko txostenarekin gertatu bezala, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Politiketako Sailak eginiko ebaluazioa funtsean kualitatiboa izan ez dadin. Adierazle baliagarrien sistema behar dugu, kalitatezkoa, jarraipena egiteko, eta horri esker, balorazio zehatzagoa egin ahal izango dugu.

Gizarte babesa EAE

Kapitulu honetan emandako datuei esker egiaztatzen denez, EAEko gizarte babeseko sistemak maila onargarria du Europako herrialde nagusiekin alderatuta, eta Estatukoa baino hobea da.

Diru-sarrerak bermatzeko sistemari dagokionez, gure ongizate sistema bermatzeko funtsezko tresna dena, 2017. urtean zehar, lehenengo aldiz, gastuak behera egin zuen eta, aldi berean, ondoz ondoko hirugarren urtez, diru-sarrerak bermatzeko errenta (sistemaren prestazio nagusia) jasotzen duten pertsonen kopurua murriztu zen. Eboluzio hori pobrezia eta bazterkeria tasen hobetzeko joerarekin bateragarria da, aurreko atalean egiaztatu den moduan, baita sistema osotasunean modu zorrotzagoan kudeatu izanaren ondorio ere.

Diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokionez, gizarte kohesioa ziurtatze aldera duen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Baina, batez ere, nabarmendu nahi dugu diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen ia % 20k euren soldaten osagarri gisa jasotzen duela (11.993 pertsona 2017an, 2016an, berriz, 12.568 pertsona). Osagarri izate horren bi balorazio egiten ditugu; alde batetik, lan-aktibazioaren pizgarria ez kentzeak duen ondorio positiboa nabarmendu nahi dugu, izan ere, horrek gizarte babesa kroniko bihurtzea saihesten du. Beste alde batetik, datu hori ikusita ohartu behar gara, zenbait pertsonen kasuan, bakoitzaren inguruabarrak aintzat hartuta, enplegu bat izatea ez dela nahikoa euren ongizate pertsonala eta familia ongizatea bermatzeko eta horrek arduradun publikoen lehentasunezko arreta behar du.

DSBERi dagokionez, gizarteratzea bermatzeko duen garrantzia azpimarratu nahi dugu, eta aldi berean, haren eginkizuna aldatzen ari dela ikusi dugu, gizarte estalduratik gizarte estaldura osagarria, gastuaren banaketa eta bizikidetzaren unitate hartzaileen beharrak ikusita. Bestalde, positibotzat jotzen dugu Eusko Jaurlaritzak bere burua behartzea gizarte babesaren moduko bai batean, halaxe islatu baita Eusko Jaurlaritzaren IV Gizarteratze Planak bizi baldintzei buruz berriki amaitu den bilakaerari buruzko balorazio negatiboan. Beraz, babes sistemak hutsuneak dituela esan daiteke. Espero dezagun Gizarteratze Plan berriak, 2017-2021era zehaztuak, hutsune horiek konpondu eta, halaber, III. Planean ezinezkoa izan den ebaluazio kuantitatiboa ahalbidetzea. Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen dugu EAEko gizarte babeseko sistema indartzen jarraitzea.

Gizarte Segurantzaren pentsioen sistemari dagokionez, beste urte batez kezkarri zaizkigu gure Erkidegoan dagoen defizit saldoak, gizartearen zahartzearen ingurumari demografikoan, langileen eta pentsiodunen arteko proportzioa ez aurrera ez atzera egotea eta lan-merkatuaren eraldaketa sakonak. Hortaz, premiazkoa da administrazioek eta gizarte eragileek pentsioen sistema publikoari eusteko beharrezko mekanismoak aintzat hartzea eta eztabaidatzea.

Azkenik, eta mendekotasunaren arretari dagokionez, sistema finkatzeko aurrerapenak izan dira, estaldura areagotuta eta erreferentziako adierazleak hobetuta hala nola itxaronzerrendak. Gure gizartea zahartzearen ondorioz, gero eta handiagoak dira mendekotasunaren arretarako beharrak eta, beraz, sistema garatzeak gizarte aukera eta enplegua eta aberastasuna sortzeko modua dakar. Ildo horretan, teknologia berriek posibilitate handiak ematen dituzte mendekotasunean diren pertsonen arreta hobean eta eraginkorrean aurrera egiteko. Horregatik, egokitzat jotzen dugu herri administrazioak inbertsioa eta ikerkuntza bultzatzea arlo horretan. Hortaz, beste urte batez, balorazio positiboa egin beharra dago.

Egoera hori ikusita, beharrezkotzat jotzen dugu gizarte babeseko sistema hobetzea, iraunkortasuna bermatzeko eta prestazioak gizarte errealitate eta behar berrietarako egokitzeko. Horrek erronka handiak dakartza berekin, gure ekonomiaren susperraldian eta, aldi berean, denbora eta ahaleginak egin beharko dira, baina premiazkoa da horiei ekitea.

V. BIZI-KALITATEA

Hezkuntza eta kultura

Aurreko urteetan bezala, azpimarratu beharreko egitate bat dela uste dugu EAE hezkuntza-adierazle batzuetan lehenengo postuetan egotea, Europako beste estatu batzuekin eta autonomia erkidegoekin alderatuta.

Hala, EAEk emaitza onak lortu izan ditu unibertsitatekoa ez den hezkuntza, oso adierazlea garrantzitsuetan hala nola eskolaratze-tasetan, lanaldi osoko irakasleko kopurua, eskola-uztean edo ikasleen adinaren egokitasunean. Ez da gauza bera gertatzen Unibertsitate Hezkuntza eta, beraz, komenigarria izango litzateke hurren Unibertsitate Planean beharrezko emaitzak lortzeko neurrietan asmatzea.

Hala ere, beste adierazle batzuetan, emaitzak ez dira hain onak eta horrek esan nahi du aztertu beharreko alderdiak daudela, hausnartze eta hobetze aldera. Horretarako, uste dugu arreta berezia jarri behar dela honako kontu hauetan:

Lanbide Heziketako matrikulazioen gehikuntza nabarmendu beharra dago eta, batik bat, lan-merkatuan bereziki eskaturiko zenbait lanbide-adarretan. Zentzu horretan, uste dugu beharrezkoa dela esfortzuak bikoiztea, arlo horiek indartzeko beharrezkoa izan daitezken estadio guztietan. Horrek berekin dakar ospea erakunde eta gizarte mailan finkatzen jarraitzea prestakuntza aukeratuz.

Lanbide heziketan nahiz unibertsitateko ikasketetan generoaren aldetik dagoen segmentazio garrantzitsuaz ohartarazi behar dugu. Emakumeen gizarte desberdintasunaren kontra egiteko eta desberdintasun hori laguntzeko den hezkuntza sistema behar dugu, eta hori gizarte adostasunaren eta hezkuntza komunitatearen baitan dago, hezkuntza legerian beren beregi jasota dagoenez.

Hezkuntza sistemak, hura dagoen gizartea islatuz, kultur jarraibideak errepikatzen ditu, eta ez dago gizarte jokaera nagusietatik aparte sexuaren arabera. Horrek eragina du ikasleen ikasketen aukeraketetan; izan ere, “sexuari dagozkionak” hartzeraz bultzatzen dituzte.

Hezkuntza sistemak, oro har, bikoiztu egin behar du bere partaidetzan emakumeen desberdintasun hori gainditzeko, bere garapen osoari buruzko alderdien beharrezko plangintzaren bidez eta, zehazkiago, balioetako hezkuntza eta sexismoa zalantzan jarrita eta sexuen arteko berdintasuna sustatuta.

Errealitate hori zalantzan jartzen duten profesionalak oinarri hartuta, hezkuntza jardun eraldatzaileen etsenpluak gero eta gehiago izan arren, ezin esan daiteke orokorra denik.

Hezkuntza etapa guztietan, baterako hezkuntza-jarduna behar da pertsonak osotasunean trebatzeko, sexua edozein delarik ere, berdintasunezko hezkuntzaren bidez, hierarkia maskulinorik gabe. Hezkuntzaren arloko orientazioa eremu zehatza eta espezifiko da, non hezkuntza sistemak, zentroek eta irakasleek eurek ahaleginak bateratu beharko lituzketen ikasleak nahita aukeratzen laguntzeko, baita aukeraketa estereotipatueta bideraturiko mekanismoak desagerrarazten erre.

Kulturari dagokionez, gogorarazi behar dugu berez aberastasuna sortzen duela kulturak, baina, horrez gain, harago doa eta eragin erabakigarria du beste arlo batzuetan. Hala, gure turismo sektoreak hobetzeko, kultura eskaintza indartu beharra dago, baina eskaintzak, berez, gizarteratzeko eta batuagoa lortzeko ahalmena balioetsi beharra dago.

Ildo horretan, kezka agertu nahi dugu Kulturaren likidaturiko gastuaren murriztapenagatik, zeren eta horrek eragina baitu jarduera ekonomikoan bertan.

Ingurune naturalaren egoera EAE-n

Batzorde honek adierazi izan duenez, hobetzeko marjina duten eremuak daude.

Hala, airearen kalitateak azken urteetan nabarmen hobera egin badu ere, deigarria da 2015 eta 2016 bitartean izandako okertzea. Horregatik, lurralde antolamenduko, hirigintza plangintzako eta trafikoko kudeaketako politiketan txertatu behar da airearen kalitatea.

Gustagarria da ikustea hondakinak gero eta gutxiago desagerrarazten direla (arriskutsuak eta ez arriskutsuak) berreskuratzeko eragiketen mesederako (birziklatzea, konposta edo energiaren aldetik balioztatzea). Alabaina, kezkarria iruditzen zaigu hiriko hondakinen kasu zehatzean berreskuratzeko eragiketek gora egin izana berreskuratzeko eragiketen kalterako.

Bestalde, hobetzeko marjina ikusten dugu enpresek ingurumenaren babesean eginiko gastuaren etengabeko jaitzian edo uraren unitate kostuaren bilakaeran (horrek ondorioak dakartza familien ekonomian), baina sakondu egin beharko litzateke bi aldagai horietarako azaldutako bilakaeren atzean dagoena.

Horregatik, Euskadiko EGABek uste du beharrezkoa dela herritarrak sentsibilizatzeko lanean jarraitzea eta ekoizpen-prozesu garbiagoak martxan jartzea ahalbidetzea, ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren hiru aldagaiak egoki uztartu ahal izateko.

Horregatik guztiagatik, garrantzizkoa da ikuspegi sistemikoa duten politika publikoak sakontzea, iraunkortasunarekin bateragarriagoak diren eskaintzaren eta eskariaren eraldaketa sustatzeko eta zeharkako egintzak bultzatzeko, ekoberrikuntza esaterako.

Osasuna eta Osasun Sistema

Ikusten dugunez, aurreko urteetan bezala, EAEko biztanleriak osasun oneko adierazleak ditu, eta hobetuz doaz (bizi itxaropen handiak eta goranzkoak eta osasun oneko bizitzakoak...), baina OMEk dioenez, osasuna *“ongizate fisiko, mental eta sozial osoko egoera da, ez bakarrik gaitzik edo gaixotasunik eza”*, eta Osasunaren Europako Inkestak EAerako depresio sintomatologiari buruz erakusten duenez, alde batetik osasun mentalari eta detekzio goiztiarrari buruzko ikuspegiak berraztertu behar dira, zeren eta depresiorik larriena ere gaingitu egin baitaiteke tratamendu egokiarekin; eta bestalde, emakumearen egoera berezia hartu beharko da kontuan, depresio sintomatologia handiagoa delako emakumeengan gizonezkoengan baino.

Bestalde, berriz ere nabarmendu nahi dugu heriotza gero eta adin aurreratuagoetan gertatzen dela, eta horrek ondorioak dakartza morbiditatearen, mendekotasunaren eta, hedaturaz, gastu soziosanitarioaren aldetik. Horrenbestez,

- Azaldu izan dugun bezala, herritarrak jabetuago egon beharko lirateke prebentzioaren eta norberaren autonomiaren sustapenaren arloan, norbanakoaren aldetik nahiz talde gisa. Eta ez soilik osasun ikuspegitik hertsiki, baizik eta gero eta behar handiagoak dituen osasun sistema publikoaren iraunkortasunaren aldetik ere bai, baliabide egokiak eta nahikoak izateari kalterik egin gabe, diru baliabideak eta giza baliabideak, osasun publikoa bete-betean eskuratzea bermatuko dutenak hain zuzen ere.
- Zaintzaileen lan eta familia bizitzak bateratzeko politiken arloko neurriak hobetu beharko lirateke, baita Lurralde Historikoetan dauden esperientzia arrakastatsuen konparazioak egin ere, foru aldundiek kudeatzen duten Mendekotasunaren Legean bildutako jarduketa-ildoak berriz aztertzeraz eta hobetzeraz bideratuta betiere.

Tabako eta alkohol kontsumoaren gaineko ohiturez eta obesitateaz ohartarazi behar dugu.

- Alde batetik, tabako kontsumoaren prebalentzia euskal gizonengan handiagoa dela ikusten dugu Estatu mailako gizonen aldean, baina joera hori ez da emakumeengan antzematen.
- Bestalde, gure erkidegoak 2. alkohol kontsumo tasarik handiena du, eta gainera, gizonen kontsumoa handiagoa da emakumeena baino. Alabaina, beste autonomia erkidego batzuen aldean, nabarmentzekoa da euskal emakumeen alkohol kontsumo handia, eta kontuan izan behar dugu, autonomia erkidegoen araberrako daturik ez badugu ere, kontsumoaren prebalentzia handiagoa dela hezkuntza eta lan gradiente handienetan, eta bereziki emakumeengan.
- Azkenik, eta obesitateari dagokionez, Estatuko mailarik baxuenetan badago ere, azken urteetan izandako bilakaeraz ohartarazi behar dugu, goranzko joera baitu argi eta garbi, eta horrexegatik, neurriren bat abiarazi beharko litzatekeela pentsatu beharra dago.

Batzordeak adierazi izan duen bezala, gizarte osoa kezkatzen duen balio partekatu bat da euskal osasun sistemaren etorkizuneko iraunkortasuna. Eusko Jaurlaritzak osasunean likidaturiko gastuak eta Osakidetza likidaturiko gastuak gora egiten jarraitzen dute kopuru absolutuetan. Gainera, osasunean eginiko gastua Estatuko handiena da per capita kopuruetan, eta goranzko joerari eusten dio. Horrek guztiak erakusten du gure gizarteak osasun kolektiboari eusteko borondate handia duela.

Beste urte batez, beharrezkotzat jotzen dugu indarreko osasun planaren emaitzak arreta handiz jarraitzea, konpromiso sendoa baitugu eginiko ahaleginak isla egokia izan dezan eraginkortasunaren aldetik, hori guztia osasun sistemaren beraren iraunkortasuna lortze aldera.

Iraunkortasun horrek, beste faktore batzuekin batera, erlazio zuzena du gizartearen pixkanakako zahartzearekin eta lurraldean aberastasuna sortzeko lehiarako ahalmenarekin. Ildo horretan, komenigarria izango litzateke herritarrek osasun publikoarekin duten konpromiso maila handitzea, baita baliabideetan sakontzea ere, hala nola teknologia berriak sartzea (e-osasuna), besteak beste, sistemak eraginkortasunez funtzionatzeko modua izan dezan.

Etxebizitza

EGABen ustez, etxebizitzaren arloko ekimen publikoak eutsi egin behar dio parkea birgaitzeko eta alokairu babestuko eskaintza handiagoa merkatuan jartzeko apustuari, etxebizitza errazago eskura dezaten horretarako zailtasun handienak dituzten taldeek. Izan ere, alokairuko eskaintza urriak errentak igoarazten ditu, jada handiak horrelako pertsonentzat, eta horrek eragina izango du alokairua eskuratzean. Horrek guztiak berekin dakar etxebizitza parke iraunkorra izatea, bereziki alokairukoa, baita etxebizitza hutsa gehiago erakartzea lortzea ere.

Ildo horretan, berriki bukatu diren 2013-2016 Plan Zuzendariaren eta Renove Planaren balantzeetan, Batzorde honek partekaturiko jarduketak ezarri dira lehentasunezko ardatz, baina oso urruti daude zenbait helburu betetzetik, bereziki etxebizitzaren eskaintza handiagoari dagokionez, batik bat alokairukoa. Helburu horietatik benetan bete den bakarretako bat, dirudienez, Etxebizitzaren Prestazio Osagarriari dagokiona da, Gizarte Babesaren barruan sartzen dena benetako etxebizitza politikakoa baino.

Ildo horretan, kezka agertu nahi dugu babesturiko alokairuko batez besteko errentan azken urteetan izandako igoeragatik (%22,9). Gure ustez, diru-sarrera gutxien dituzten biztanle-taldeei eragiten die (EUROSTATen analisisan egiaztaturik gelditu den bezala).

Horrez gain, berriz diogu bereziki beharrezkoa dela oraindik ere alokairuan antzemandako beharrak betetzeko politikak sakontzea, gero eta urriagoak baitira. Bereziki beharrezkoa da hori gazteen kasuan, zeinen emantzipazio beharrak eragozpena baitu horretan (EGABek 2017an gazteen enpleguarritasunari buruz eginiko Bere Ekimeneko Azterlanean agerian gelditu zen moduan), eta gainera ondorioak ditu demografian.